

MEMORIA OROKORRA

2019ko abenduan



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	1
0.Sarrera	5
1. Etxebizitza	7
1.1. Gazteak eta Emantzipazioa lantaldea	7
1.2. Eta gazteon emantzipazioa? Hiruburua	10
1.3. Milaka Elkarbizitza	13
1.4. Etxebizitza eredu berriak- <i>Gazteak eta Etxebizitza 2019</i> txostena	16
1.5. Emantzipatzeko neurrien mapa interaktiboa	18
1.6. Etxebizitza arloan lan egiten duten eragileekin harremana	21
1.7. Eguneroko lana	25
2. Enplegua	28
2.1. Gazteak eta Emantzipazioa lantaldea	28
2.2. Formakuntza Duala Ezagutzen	30
2.3. Enplegu arloko data esanguratsuen egutegia	33
2.4. Lan istripuen protokoloa	35
2.5. Ideia bat daukazu?	37
2.6. GazteLabel	38
2.7. Enplegu arloan lan egiten duten eragileekin harremana	39
2.8. Eguneroko Lana	42
3. Hezkuntza	46
3.1. Hezkuntza Foroa	46
3.2. Hezkuntza Eragileak	49
3.3. Garrio Txostena II	50
3.4. Eskola Kontseilua	54
3.5. Astialdi Foroen koordinazioa	56
3.6. Boluntariotza Kanpaina 2019	60
3.7. Astialdiko Ikastaroen Kanpaina	64

3.8 Udako Kanpaina	66
3.9. Astialdi Foroko webgunea (www.astialdiforoo.org)	69
3.10. Atergune: Aterpetxe, landa eta kanpinen ataria	70
3.11. Haziak Astialdira hezkidetzat astialdian lantzeko gida	71
3.12. Droga-mendekotasun Formakuntza	71
3.13. Administrazioekin koordinatu	74
3.14. Egunerokotasuna	75
4. Parte-hartzea	77
4.1. EGK Sendotzen	77
4.2. Aholkularitza	80
4.3. Hitzartzen: Emakume politikariak hitza hartzen	86
4.4. Gizarte Aldaketarako Herritartasuna	86
4.5. Eragin #Plazandre	88
4.6. Droga-mendekotasuna topaketa	89
4.7. #BilboZaintzen galdetegia	89
4.8. Euskadiko Gazteok Lankidetzan	90
4.9. Open Government Partnership (OGP) Euskadi	93
4.10. Arabako Gazteriaren Kontseilua	94
4.11. Material eta gela lagapena	96
4.12. Egunerokoa	99
5. Bakea eta bizikidetzat	101
5.1. Bake lantaldea	101
5.2. Etiketa Programa	102
5.3. Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak	105
5.4. Migratzaileei buruzko aurreiritziei planto!	108
5.5. Gazteon Aukera dokumentalaren difusioa	110
5.6. Bake eta Bizikidetzarako mahai inguruak	112
5.7. Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatu Zentroarekin lankidetzat	114
5.8. Egunerokoa	117
6. Berdintasuna	119

6.1. Gaur8	119
6.2. #BazterretikErdira zineforuma	120
6.3. Gune Anitza	123
6.4. Berdintasun Protokoloak.....	125
6.5. Festak: Gure espazioa birpentsatzen	127
6.6. Hitzartzen: Emakume politikariak hitza hitzartzen	130
6.7. Eragin #Plazandre	133
6.8. Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak.....	135
6.9. Haziak Astialdira hezkidetzaz astialdian loratzeko lanketa	135
6.10. I. Berdintasun Plana	138
6.11. Egunerokoa	140
7. Komunikazioa	143
7.1. Diseinatzaile gazteen lan-poltsa.....	143
7.2. Sare sozialak kudeatu.....	145
7.3. EGK ezagutarazteko bideoak.....	153
7.4. Lan-arloka sarea osatu	155
7.5. Piztu! buletin digitala	157
7.6. Gizarte Aldaketarako Herritartasuna	160
7.7. Komunikabideekin harremana	162
7.8. www.egk.eus webgunea kudeatu	164
7.9. Bilbo YouTuber aukeraketa	169
7.10. Webguneen mantenua	171
7.11. Barne komunikazioa.....	173
7.12. Beste lan-arloekin harremana.....	175
8. Presidentzia.....	186
8.1. Gazteriaren Euskal Legea	186
8.2. #GazteAgora.....	187
8.3. Elkarrekin Harremana (EGK sendotzen).....	189
8.4. Gobernu Irekia (OGP)	191
8.5. Batzorde Iraunkorra	192

8.6. Lantalde Teknikoaren koordinazioa	194
8.7. Batzorde Ekonomikoa	196
8.8. Batzar Orokorra	198
8.9. Lankidetzeta eta ordezkaritza	199

O.Sarrera

Dokumentu honetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2019an zehar burutu duen lana jasotzen da. Bederatzi lan-arloek -etxebizitza, enplegua, hezkuntza, parte-hartzea, bakea eta bizikidetza, berdintasuna, komunikazioa, presidentzia eta administrazioa- burututako proiektu eta ekintza guztiak azaldu eta horien ebaluazio bat egin da.

Urtero bezala, martxoaren 9an EGK-ko 39. Batzar Orokorra egin zen. Bertan, 2018ko memoria azaldu, 2019ko plangintza aurkeztu eta onartzeaz gain, hurrengo urteetarako lan ildoak finkatu ziren. Gainera, EGK-k elkarre berri bateri eman dio ongi etorria, Euskarabenturari alegia. Honekin bat, beste berrikuntza bat izan da. Gaur egun, enplegu eta etxebizitza gazteriarentzat garrantzi berezia duten gaiak direnez, ordura arte bat izandako enplegu eta etxebizitza lan-arloak banatu egin dira, bakoitza modu propioan landu ahal izateko.

Aurten ere burututako proiektu eta ekintza guztiak EGKren diskurtsoa elikatzeke eta osatzeko baliatu dira. Berauek oso modu baikorrean balioetsi dira. Alde batetik, azkeneko urteetan parte-hartzea sustatzeko egin den indar bereziarekin lanean jarraitu da: Komunikazio bideak indartuz, ikus-entzunezkoei garrantzi gehiago emanez eta sare sozialen bitartez gazteekin gertuagoko interakzioa bilatzen jarraituz. Honekin bat, **EGK Sendotzen** proiektuari esker, elkarre desberdinen eta EGK barneko elkarre harremanak sendotzen jarraitzen da. Horiek horrela, bide horretan hurrengo urteetarako parte-hartzea handitzeko estrategiak lantzen jarraituko da.


Bestetik, aurten EGK-k zeregin garrantzitsuak izan ditu, besteak beste, Gazteria Legeari ekarpenak egitea. Honekin bat, oso adierazgarria da ere aurten EGK-k aurrera eramandako ekintza, ekitaldi eta txosten kopurua eta aniztasuna. **Etikasi** etika eta giza eskubideei buruzko bisita hezitzaile aitzindariak, Formakuntza Dualaren garapena aztertzeke **Formakuntza Duala Ezagutzen** proiektua, etxebizitza eredu desberdinak aztertzeke **Hiruburuak**, parte-hartze feministaren sustapen proiektua den **Eragin #Plazandre**, ikasleen egoera hobetzeko sortu den **Hezkuntza Foroa** edo hobekuntzarako beharrak identifikatzean datzan **Garraio Txostena II**. Azken finean, ekitaldi hauekin bat lantaldeetan parte hartzen duten gazteen ekarpen, gogoeta eta eskariak EGKren diskurtsoa eratzeke oinarri dira. Honela soilik da posible EGK-k administrazioari gazteen proposamen eta ekarpenak helaraztea.

Barne mailan aurten komunikazioari garrantzi berezia eman zaio. Hori dela-eta hiru formakuntza egin ditu lantaldeak. Hauetako bat komunikazio inklusiboari buruzkoa izanik, berdintasuna zeharkako lan lerro garrantzitsu gisa ulertzen dela azpimarratzen da.

Guzti honengatik, EGK-ko langile eta kideek oso positiboki balioetsi dute 2019ko jarduna. Oihartzun handiagoa lortu da eta Kontseiluak egindako lana erakundeetako neurrietan islatu dela iritzi da. Datorren urteari begira aurrekoa hobetzea izango da asmoa.

1. Etxebizitza

1.1. Gazteak eta Emantzipazioa lantaldea



Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzea edo galtzea eta enpleguaren prekaritatearen arazoa orokortu egin da. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahasiz. Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta lehenagotik pairatutako baldintzengatik ere.

Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat osatzea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helarazteko. Aurten, EGK-ko etxebizitza eta enplegua lan-arloak banatu badira ere, lantalde bera mantenduz, etxebizitza eta enplegu gaiak lantzen jarraitu du. Honela, lantaldea indartzeko asmoarekin gazte kolektibo zein norbanako berriengana hurbiltzeko saiakera egin da, lantzeko gai desberdinak planteatuz..

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren perspektiba batetik honekin loturiko etxebizitza ekimenak eta neurriak aztertzea, administrazioari hausnartutako ondorioak helarazi ahal izateko eta horrela, politika publikoetan eragin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak etxebizitza arloaren gainean batuko dituen eztabaidagune bat ezartzea.
- Gazteriaren prekaritate egoeraren aurrean eta emantzipazio prozesuetan gazteriak dauzkan zailtasunen aurrean, gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta aukera eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Eztabaidagunean sortutako ekimenei jarraipena ematea eta horren funtzionamendua kudeatzea eta bultzatzea gazte berrien parte-hartzea lortuz.

Garapena

Urteko plangintza bilera:

Otsailean egin zen lehen bilera honetan urteko plangintza osatu zen. EGK-k 2019ko urtean aurrera eramango zituen ekitaldiak eta baita ere, lantaldeak landu nahi zituen gaiak jorratu ziren. Azken honi dagokionez, etxebizitza alorrean gazte ikuspuntutik landu nahi ziren gaiak mahai gaineratu ziren. Hauek izan ziren proposatutako gaiak:

- Gazteen enplegu eta etxebizitzaren inguruko egoera ezagutzea.
- Gazteek emantzipatzeko dituzten eredu desberdinak ezagutzea.
- Gazteen enplegu prekaritate egoeraren aurrean ahalduentzeko tresnak lantzea.

Bestalde, aurtengo erronka moduan ere, lantaldea indartzeko gazte kolektibo gehiagorengana zabaltzea ezarri zen.

Datuak aztertzea:

Gazteen etxebizitzaren egoera ezagutzeko asmoz, martxoan datu gaurkotuak landu ziren. Horretarako, Gazteen Euskal Behatokiak eta baita Etxebizitza Behatokiak publikatutako azken

txostenak ikertu ziren. Datuak oinarri gisa izanik, diagnostikoa eta proposamenak jasotzen zituzten paneltxo batzuk landu ziren. Paneltxo hauek gazteen eta etxebizitzaren gaineko datuak jasotzeaz gain, egoera hauei erantzungo dien erronka proposamenak jasotzen dituzte. Berauek sare sozialetan gaia gizarteratzeko eta ekitaldi desberdinetan gazteen eta etxebizitzaren egoeraren diagnostiko moduan azaltzeko erabili izan dira.



Eredu desberdinak aztertzea:

Lantaldeak emantzipazioa ahalbidetzeko edo errazteko prozesuan gazteek eredu desberdinak ezagutzeko beharra dutela nabarmendu izan du. Behar horri erantzunez, apirilean aztertuak izan ziren Bilboko Udaleko [Gazte Solidarioentzako Udal Etxebizitzen Programa](#) eta etxebizitza kolaboratiboen ereduak (co-housing moduan ere ezaguna).

Lehenengo neurria aztertzeko, alde z aurretik, EGK Bilbao Etxebizitzako teknikariek in bildu zen, beraiekin programaren nondik norakoak modu sakonagoan ezagutzeko. Bestalde, bileran informazio tekniko honekin bat programako parte-hartzaile gazte baten testigantza izan zen, programa zehatzago aztertu eta ekarpenak egin ahal izateko.

Bigarren neurriari dagokionez, etxebizitza kolaboratiboen ereduak ezagutu zen. Bilerak ardatz bi izan bazituen ere, lehenengo ereduak sortu zuen interesa dela medio etxebizitza kolaboratiboa sakontasunez lantzeko tarterik ez zen izan. Baina honen inguruan sortutako interesak bultzatuta Gasteizen eta Donostian antolatutako Hiruburuak baliatu ziren eredu hau lantzeko.

Gaztelagun programaren jarraipena:

Lantaldeak gazteriaren perspektiba batetik honekin loturiko etxebizitza neurriak aztertzeko erronka duen heinean, aurrean ere, Gaztelagun neurrian jarri da fokua. Gaztelagun -Eusko Jaurlaritzaren alokairu dirulaguntza neurria- 2019ko urtarrilean indarrean sartu zen eta urte erdialde bueltan, honek izan zuen eraginaren datuak azaldu ziren. Honekin bat Gaztelagun neurriak zenbait aldaketa izango zituela iragarri zen.

Horren aurrean, lantaldeak neurriaren jarraipena eta aurreikusten ziren aldaketei ekarpenak egiteko beharra ikusi zuen. Hori dela-eta, lehenengo, EGK Alokabideko teknikariek in harremanetan jarri zen, azken datu eguneratuak lortzeko eta berauek lantaldeko bileran

lantzeko. Lantaldeak zenbait ekarpen landu zituen. Ondoren, EGK Gazteria Zuzendaria eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendariarekin elkartu zen proposamenak lantzeko asmoz.

Ebaluazioa

- Lantaldearen parte hartzeari dagokionez, bilerak gaika jorratzearen aukerak parte hartzaileen interesetara egokiago moldatzeko aukera eman du eta berau, positiboki balioetsi da. Honekin bat, gazte zein gazte kolektibo desberdinetan ezagutzera emateko erronka positiboki balioetsi izan da.
- Bileretako hausnarketen sakontasuna, kideen jarrera aktiboa eta bileren maiztasun handiagoa lantaldearen funtzionamenduaren hobekuntzaren seinale argiak dira. Guzti hauek modu positiboan balioetsiz, bide horretan lanean jarraituko da.

1.2. Eta gazteon emantzipazioa? Hiruburua

Hiriburuetako gazteek ere, Gasteiz kasu, emantzipatzeko dituzten zailtasunak nabariak dira. Egoera honen aurrean, erantzunak bilatu nahian gazteak eta etxebizitzaz aritzeko espazioa sortu behar zela identifikatu zen. Zehazki, gazteek gaur egun dituzten emantzipazio aukerak aztertu eta Europako emantzipazio eredu desberdinak ezagutzeko espazioa litzateke.

Bide horretan, emantzipazioaren inguruan aritzen diren agenteen (gazteak, teknikariak eta politikariak) iritzia jasotzeko eta ikuspuntuak elkar banatzeko asmoz **Eta Gazteon emantzipazioa? Hiruburua** antolatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen emantzipazioaren inguruan aritzen diren agente, gazte eta eragileren arteko koordinazio eta hausnarketarako gune bat sortuz, Gasteizko gazteek emantzipatzeko dituzten aukerak aztertzea eta eredu desberdinen inguruko gogoeta bultzatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Europako etxebizitza eredu desberdinak EAEn duten garapena eta euskal administrazioetan garatzeko aukerak aztertzea.
- Gazteak, teknikariak eta politikariak emantzipazio eredu desberdinen inguruan eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune bat sortzea.

Garapena

Diseinua eta antolaketa:

Lehenik eta behin, EGK-k Gasteizko gazteen etxebizitza egoera zehatzago ezagutzeko lanketa egin zuen. Ondoren, Gasteizko Udaleko Gazteria Sailekoekin egindako koordinazio bileren bidez,

Eta Gazteen emantzipazioa? Hiruburuaren diseinu, antolaketa eta edukia garatu zen.

Edukiari dagokionez, jardunaldian landu beharreko ardatz desberdinak identifikatu ziren: udalaren neurriak eta belaunaldi arteko etxebizitza eredua alegia. Udalaren neurriak zen lehenengo ardatza prestatzeko Zabalgunea 21ekoekin elkartu izan da. Bigarrena prestatzeko Gasteizko errealitateari erreparatuz UPV/EHU eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea elkarlanean kudeatzen duten belaunaldi arteko programa aztertu zen. Alde teknikoa ezagutzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko teknikariarekin elkartu zen. Gazteen esperientzia ezagutzeko aldiz, horren parte-hartzaile gazte batekin egin ziren bilerak.

Edukia lantzeko metodologiari zegokionez, Hiruburu eztabaida dinamika jarraitzea adostu zen. Hau da, gazteak, kargu politikoak eta teknikoak aipatutako gaiak jorratzeko mahai baten inguruan elkartzen dituen espazioa sortzea. Horretarako, profil desberdinekin jarri izan zen harremanetan. Teknikariei dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Zabalgunea 21, Alokabide etab. Politikari profilari dagokionez, Gasteizko Udaleko alderdi politikoei zuzendu zitzairen. Gazteei dagokienez, elkarte, alderdi, zein norbanakoei luzatu zitzairen gonbidapena.

Urriak 3, **Eta Gazteon emantzipazioa?** Hiruburua:

Hiruburu hau, 2019ko urriaren 3an egin zen, Landatxo Gizarte etxean. Bi atal nagusi izan zituen: alde batetik, gazteen eta etxebizitzaren inguruko diagnostiko bat egin zen eta bestetik, gazteak eta etxebizitzaren egoeraren gaineko ariketa parte-hartzailea izan zen.

Lehenengo zatiari dagokionez, EGK-k etxebizitza eta gazteriaren inguruko egoera azaldu zuen. Datu hauek Gasteizeko egoerari egokituz mahai gaineratu ziren eta etxebizitza eredu desberdinei zegokionez, belaunaldi arteko eredu desberdinak azaldu ziren.

Bigarren zatian profilen arteko eztabaida sortzeko world cafe dinamika jarraitu zen, talde txikietan banatuz. Honela, hiru erronda egin ziren eta gai desberdinak landu zituzten. Honako hauek izan ziren:

- Gasteizko Udalaren neurriak ezagutzea eta ekarpenek egitea.
- Belaunaldi arteko eredua ezagutzea eta ekarpenak egitea.
- Gasteizerako proposamen bat sortzea.

Gasteizerako proposamena sortzearen azken erronka hau izan zen talde txikietan landu ondoren talde handira eraman zena.

Jardunaldiaren ondorengoak:

Hurrengo jardunaldia hobeto egin ahal izateko, parte-hartzaileei balorazio galdetegia bidali zitzaion, haien iritzi eta hobekuntza proposamenak jasotzeko asmoz. Bestalde, **Eta Gazteon emantzipazio?** Hiruburuan jasotakoa 2020aren hasieran publikatuko den ondorio-txostenean jasoko da.

Ebaluazioa

- Parte-hartzaileek gaiari buruz interesa erakutsi dute eta egindako ekarpenak sakonak izan dira. Honek EGKren diskurtsoa osatzeko informazio eta iritzi baliagarriak jaso izana ahalbidetu du.
- Antolaketari dagokionez, profilen arteko harremana izateko espazio erosoak sortu zen. Denboraren aldetik aldiz, talde txikietan eztabaidatzeko denbora gehiago nahi zutela adierazi zuten balorazio galdetegietan.

13. Milaka Elkarbizitza



Aurreko urtean EGK-k Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarekin elkarlanean Donostiako gazteek emantzipazio prozesuren egoera eta beharrak identifikatzeko **#GaztEmantzipazioa** World Cafe-a antolatu zuen. Topaketa hau ibilbide baten abiapuntua izan zen.

Gaiak gazteen artean sortzen duen interesa ikusita, lan ildo beretik jarraitzeko asmoz, aurten **Milaka Elkarbizitza** Hiruburua antolatu da. Horretarako, etxebizitzaren gaia ardatz harturik, gazteen emantzipazio eredu desberdinak jarri dira mahai gainean emantzipazioaren inguruan aritzen diren agenteen (gazteak, teknikariak eta politikariak) iritzia jasotzeko eta ikuspuntuak elkar banatzeko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Europako emantzipazio eredu desberdinak landuz, gazteei emantzipaziorako gaiarekiko interesa piztea eta eredu hauen inguruko hausnarketan sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen emantzipazioaren inguruan aritzen diren agente, gazte eta eragileren arteko koordinazio eta hausnarketarako gune bat sortzea.
- Emantzipazioaren inguruko gazteen esperientzia eta iritziak jasotzea.
- Europako etxebizitza desberdinak EAEn duten garapena eta euskal administrazioek garatzeko duten aukerei ikusgarritasuna ematea eta berauek aztertzea.

Garapena

Diseinua eta antolaketa:

Lehenik eta behin, maiatzetik ekainera bitartean, EGK eta Donostiako Udaletxeko Gazteria Sailaren arteko koordinazio bileren bidez **Milaka Elkarbizitza** jardunaldiaren diseinua eta antolaketa garatu zen.

Proiektuaren diseinua eta antolaketa egiterako orduan zenbait zehaztapen egin ziren: lehenik, jardunaldiaren edukia zehaztu; bigarrenik, jardunaldia garatuko zen metodologia aukeratu; hirugarrenik, jardunaldirako espazio posibleak pentsatu eta amaitzeko, ekitaldian parte hartuko zuten profilak zeintzuk izango ziren aukeratu.

Edukiari dagokionez, aurreko urtean **#GaztEmantzipazioa** jardunaldiaren bidez zabaldutako bidea jarraiki, Europan ibilbide luzeagoa duen belaunaldi arteko eredua aztertzea erabaki zen. Eredua sakontasunarekin ezagutzeko, Usurbilgo Udaleko Txirikorda proiektukoak gonbidatzea erabaki zen. Horretarako, Txirikorda proiektuko Usurbileko alkatea, Agurtzane Solaberrieta eta Hiritik At kooperatibako Ainhua Retegirekin koordinazio bilerak egin ziren.

Metodologiari dagokionez, jardunaldia Hiruburu eztabaida dinamikaren bidez garatzea erabaki zen. Honela, gazteak, kargu politikoak eta teknikoak gai zehatz bat jorratzeko mahai baten inguruan elkartzen dituen espazioa sortzea izan zen asmoa. Profil desberdinen bateratze honek

dakarren aberastasunari bide emateko, zenbait profilen identifikazioa egin zen. Honela, teknikariei dagokienez, besteak beste, hurrengo hauekin jarri izan zen harremanetan: Alokabide, Donostia Etxegintza, arkitektura elkargokoak etab. Politikariei dagokienez, Donostia mailako kargu politikoei zuzendu zitzaien gonbidapena.

Espazioari dagokionez, zenbait aukera balioetsi ondoren Tabakalerako Kutxa Kultur Plazan egiteko aukera lehenetsi zen. Horrela izateko, Kutxa Kultur Plazakoekin koordinazio bilerak egin ziren.

Aurrera begirako kronologia bat markatu zen, hala, helbide elektroniko, telefono bidezko harremana eta aurrez aurreko koordinazio bilerak egin ziren.

Azaroak 7, Milaka Elkarbizitza Hiruburua Kutxa Kultur Plazan:
Hiruburu hau, 2019ko azaroaren 7an egin zen, Tabakalerako Kutxa



Kutxa Kultur Plazan. Bi atal nagusi izan zituen: alde batetik, gazteen eta etxebizitzaren inguruko diagnostikoa egin zen, eta baita ere, Txirikorda proiektuaren esperientzia ezagutzeko tarte izan zen. Bestetik, ariketa parte-hartzaile baten bidez gazteak eta etxebizitzaren inguruko zenbait puntu landu ziren.

Lehenengo zatia egiteko EGK-k etxebizitza eta gazteriaren inguruko datu batzuk azaldu zituen gazteen etxebizitza egoeraren irudi bat osatzeko. Ondoren, Txirikorda proiektukoak diren Agurtzane Solabarrieta eta Ainhoa Retegik belaunaldi arteko eredu komunitarioaren proiektuaren nondik norakoak eta prozesuaren garapena azaltzeko tarte bat izan zen.

Bigarren zatian eztabaida taldeen dinamiken metodologia erabili zen. Lehendabizi, zenbait gai desberdin talde txikietan eztabaidatu ziren, eta ondoren, talde txikietan ateratako ondorioak talde handiagotara eramane ziren. Honako hauek izan ziren landutakoak:

- Donostiako Udalaren neurriak ezagutzea eta ekarpenak egitea.
- Belaunaldi arteko ereduaren ezagutzea eta ekarpenak egitea.
- Donostiarako proposamen bat sortzea.

Jardunaldiaren ondorengoak:

Hurrengo jardunaldia hobetzeko, parte-hartzaileei balorazio galdetegia bidali zitzaien, haien iritzia eta hobekuntza proposamenak jasotzeko asmoz.

Bestalde, **Milaka Elkarbizitza** Hiruburuan jasotakoa urtarrilean publikatuko den ondorio-txostenean jaso da.

Ebaluazioa

- Profil desberdinen parte-hartzea modu orekatuan burutu zen. Honek Hiruburuaren aberastasuna handitzearekin bat, gazteen emantzipazioaren inguruan aritzen diren profil desberdinen arteko koordinazio eta hausnarketarako espazio eroso sortzea ahalbidetu zuen.
- Gazteen profila nabarmen handiagoa izan zenez, bereziki, gazteen intereseko gaia zela positiboki balioetsi da.
- Gazteen emantzipazio eredu desberdinak mahai gainean jartzea oso modu positiboan balioetsi zuten parte-hartzaileek ebaluazio galdetegietan. Alde batetik, Txirikorda proiektuko gonbidatu berezia izatea belaunaldi arteko elkarbizitza eredua hurbilagotik ezagutzeko aukera oso baliagarria izan zitzaiela adierazi zuten. Bestalde, ezagutzeaz gain, modu aktiboan iritzia emateko burututako ariketa parte-hartzailea ere oso egokia izan zela azaldu zuten.
- Profil desberdinak espazio berean eztabaidan aritzeak administrazio eta gazteen arteko harremana hurbilagoa izateko bide egokia ere badela azpimarratu zen.

1.4. Etxebizitza eredu berriak- *Gazteak eta Etxebizitza 2019 txostena*

Gaur egungo Euskadiko gazteen arazo handienetako bat emantzipatzeko ezintasuna da. Euskadiko batez besteko emantzipazio adina 30 urteren bueltan dago, Europan aldiz, 26 urteren bueltan. Horregatik, Europako eredu desberdinak oinarri zuen 2018ko **EuroEmantzipatu** proiektuari jarraipena eman zaio aurren. Horretarako, Europako eredu hauek EAEn zein nolako garapena duten edo izan ditzaketen aztertu da.

Hainbat emantzipazio eredu mahai gainean jarri eta hauetan sakondu da. Besteak beste belaunaldi arteko ereduaz aztertzekeo hautua izan da. Horretarako, lan teorikoa eta jardunaldien bidezko kontraste lana gauzatu da, emaitza *Gazteak eta Etxebizitza 2019* txostena izan da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen emantzipazio eredu berrien eta esperientzien azterketan sakontzea, bereziki, Europako eredu desberdinetan enfokaturik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Belaunaldi arteko ereduaren inguruko iritzi eta ekarpenak jasotzea.
- EAEko emantzipazio politiketan proposamen eta ekarpenak egitea.
- Eredu berri hauen gaineko gazte, teknikari eta politikarien iritzia ezagutzea eta ezagutaraztea.

Garapena

Informazio eta material bilketa:

Gazteen etxebizitza egoeraren azterketa egiteko eta baita emantzipazio eredu eta etxebizitza eskuratzeko formula desberdinak aztertzekeo, iturri desberdinak erabili izan dira. Besteak beste, 3/2015 Etxebizitza Legea, Gazteen Euskal Behatoki txostenak Housing Europe Observatory-ko txostenak eta bereziki, belaunaldi arteko ereduaren materialari dagokionez, SIIS dokumentazioa eta ikerketako *Experiencias y modelos de alojamiento intergeneracional* txostena erabili izan da.

Bide horretan lanean ari diren eragileekin bilerak:

Txostenetatik jaso daitekeen informazioa osatzeko garrantzitsua izan da horretan lanean ari diren eragileen esperientzia eta ekarpenak ezagutzea. Horregatik etxebizitza eredu desberdinen inguruan aktibo dauden eragileekin elkartu izan da etxebizitza teknikaria. Besteak beste, Abaraska, Ametsak Sortzen, Txirikorda eta Kuvu-rekin, hauen errealitatea ezagutzea ezinbestekoa izan da lana aurrera eramateko.

Gazteen, politikarien eta teknikarien iritzia jasotzeko Hiruburuak:

Behin, informazio bilketa eginda, egitekoak ziren bi Hiruburuak -Eta Gazteen emantzipazioa? eta Milaka Elkarbizitza- informazioa kontrastatzeko baliatu ziren. Honela, Gasteiz eta Donostiako gazteekin hiri bakoitzeko gazteen egoera aztertzearekin bat belaunaldi arteko eredua aztertze baliatu izan dira. Bi Hiruburuetako edukia ondorio txosten bakarrean bildu dira.

Jasotako informazio guztiaren bilketa:

Bide desberdinetatik jasotako informazioa -bai txostenen bidez, bai eragile desberdinekin izandako bilerak- baita Hiruburuetan jasotako iritzi, ekarpen eta proposamenak bildu, forma eman eta txosten batean jasotzea izan da azken urratsa. Maketazio lanarekin amaituta, 2020ko urte hasieran argitaratzea aurreikusten da.

Ebaluazioa

- Informazioa jasotako modu desberdinek eredu berrien azterketa sakonagoa egitea posible bihurtu dute.
- Oso baliagarri izan da EGK-k eredu berri honi buruz diskurtso bat eratzeko behar dituen irizpideak eskuratu izana.
- Europako etxebizitza eredu desberdinek EAEko lurraldean zein nolako garapena izaten ari diren eta hauek garatzeko dituzten aukeren azterketan sakontzeko aukera ahalbidetu du.

1.5. Emantzipatzeko neurrien mapa interaktiboa

Sarri gazteek ez dituzte administrazioak emantzipatzeko dituzten aukerak ezagutzen; haien udalek alokairu dirulaguntzarik eskaintzen ote duen edota gazteentzako alokairuzko neurririk duen. Gainera, badira kasuak administrazio desberdinek haien artean bateragarriak ez diren norabide bereko neurriak dituztela, zenbait udaletxe eta Eusko Jaurlaritzako alokairu dirulaguntzen programak adibidez.

Horiek horrela, arazo honi erantzun nahian neurri hauen inguruan gazteen iritzia jasotzeko xedea zuen proiektua gauzatu zitekeela balioetsi zen. Baina, zenbait hausnarketaren ondoren, alde aurretik bestelako urratsak egin behar zirela ondorioztatu zen. Honela, administrazio desberdinek (tokiko eta Eusko Jaurlaritza batik bat) gazteek emantzipatzeko dituzten eskaintzan bilketa bat egitea erabaki zen. Bilketa honek gazteentzat eta baita ere, administrazioentzat baliagarria izatea bilatzen zen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek administrazioak hauentzat dituzten emantzipazio programak ezagutzea eta berauek ezagutaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Administrazio desberdinek emantzipazioa errazteko dituzten neurriak ezagutzea.
- Euskal gazteriaren eta administrazioaren arteko zubi lana egitea.


Garapena

Koordinazio bilerak:

Bilketa honen forma eta gauzatzea zelan bideratuko zen diseinatzeko zenbait koordinazio bilera egin ziren. Ondorio moduan, online egongo zen mapa interaktibo bat egiteko adostasuna izan zen.

Mapa interaktiboaren abiapuntua:

Mapa interaktiboa gauzatzeko bi bide landu ziren. Alde batetik, edukiari dagokionez, bertan jasoko zen informazioa biltzeari ekin zitzaion. Horretarako, EGK Bizkaiko hiru herriko Udalekin- Barakaldo, Durango eta Lekeitio- harremanetan jarri zen



proiektuaren nondik norakoak azaltzeko eta parte-hartzeko gonbidapena luzatzeko. Ondoren, Gipuzkoako Zumarraga eta Arabako Zuia udaletxeekin jarri zen harremanetan.

Bestalde, alde teknikoari dagokionez, mapa interaktiboak egiten zituzten kooperatiba birekin proiektua komentatu zen eta hauetako bat aukeratu zen proiektua gauzatzeko, Gislán kooperatiba. Honela, Gislánekoekin koordinazio bilerak egin ziren proiektuaren garapena eta kronologia adostuz.

Mapa interaktiboaren garapena:

Mapa interaktiboan jasoko zen informazioaren bilketari dagokionez, aipatutako udalekin harremanetan jarri eta informazioa bidalketa gauzatu zen. Honela, udaletxe bakoitzak gazteentzako emantzipatzeko dirulaguntzak, edota alokairu programen gaineko informazioa bidali zion etxebizitza teknikariari.

Lan teknikoari dagokionez, mapa bisoreen eredia jaso zen. Honen inguruko ekarpenak eta zalantzak Gislánekoekin elkarbanatu ondoren, aurrera begira modu autonomoan erabili ahal izateko etxebizitza teknikariak mapa interaktiboa kudeatzeko formakuntza jaso zuen.

Mapa bisoreen lehen ereduak:

Behin mapa bisorean lehen herri hauen informazioa jasota izanik, osatzen jarraitzeko bideak landuko dira.

Ebaluazioa

- Tokiko administrazioek gazteentzat dituzten emantzipazio neurriak ezagutzea oso aberasgarria izan da EGKrentzat, gazteek dituzten aukeren irudi osoa osatzeko. Baita ere, herri eta hiriguneetako gazteen egoera desberdinak ezagutzeko ere.
- EGK eta tokiko administrazioaren arteko harremana sortzeko baliagarria izan da.
- Aurrera begira lanean jarraitzeko urratsak egin beharrekoak dira.

1.6. Etxebizitza arloan lan egiten duten eragileekin harremana

Etxebizitzaren alorrean eragile askok dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia hauengana transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta etxebizitzaren arloan lan egiten duten elkarten, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien parte-hartzea lortzea.

Garapena

Hiritik At:

Hiritik At kooperatibak gaur egun udaletxe desberdinekin gazteen emantzipazioaren inguruko zenbait proiektuen dinamizazio, garapen eta diseinu lanetan dihardu. Besteak beste, Errenteria udaleko gazteen etxebizitza komunitarioan eta Usurbilgo Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioan. Berauek gertuagotik ezagutzeko eta harreman bideak sortzeko elkartu izan dira EGK eta Hiritik At-eko kooperatibakoak.

LAB:

Etxebizitza alorrean lanketa duten eragile, elkarte eta sindikatuarekin sinergiak sortzeko bidean LAB sindikatuarekin martxoaren 14ean egin zen lehen bilera.

Bilbao Etxebizitza:

Bilbao Etxebizitza Bilboko Udalaren Etxebizitza Arloari atxikitako Tokiko Erakunde Autonomoa da. Besteak beste, gazteentzako duten eskaintza eta, bereziki, Gazte Solidarioentzako Udal Etxebizitzen Programa ezagutzeko bilera egin zen apirilaren 5ean. Honela EGK eta etxebizitza gaia modu zuzenean jorratzen duten administrazioekin harremana eratzeke urratsa eman zen.

Donostia Etxegintza:

Udalaren antolaketa barruan, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa arduratzen da Donostiako Udalaren etxebizitza-politika gauzatzeaz. Besteak beste gazteentzako emantzipazio neurriak ezagutzeko elkartu izan zen EGK Etxegintzakoekin. Baita ere, Milaka Elkarbizitza Hiruburuaren aurre lanketarako ere.

Zabalgunea 21:

Ensanche 21 Zabalgunea izeneko sozietatea Gasteizko Udalak eratutako udal hirigintza sozietate bat da, sozietate anonimo gisa eratua. Salburua eta Zabalganeko zabalkunde-esparruen plangintzan eta antolakuntzan Gasteizko Udalari laguntza ematea da sozietatearen xedea (udalerriko hirigintza eta ingurumen plangintza aintzat hartuz). Gasteizko gazteentzat emantzipatzeko udalak dituen neurriak ezagutzeko elkartu izan da EGK Zabalgunea 21ekin. Baita ere, **Eta gazteen emantzipazioa?** Hiruburuaren aurre lanketarako ere.

Ametsak Sortzen:

Ametsak Sortzen etxebizitza kolaboratiboen eta erabilera-lagapenezko kooperatiben Euskal Cohousing Elkartea da. EGKtik etxebizitza eredu desberdinen inguruan informazioa bildu eta lantzen ari diren eragileekin harremana izateko asmoarekin elkartu ziren apirilaren 29an.

Kaleratzeak Stop:

Etxebizitza eskubidearen alde hipoteka ez ordaintzegatik etxe desjabetzeen aurka protesta egin eta horien inguruan lege-aldaketa eskatzen duen eragilea da Kaleratzeak Stop. Etxebizitza gaiaren inguruan etxebizitza alorrean lanketa duten elkarte eta mugimenduekin sinergiak sortzeko bidean, EGK-k Kaleratzeak Stopen errealitatea ezagutu eta izan daitezkeen elkarlanerako bideak planteatzeko bilerak egin ziren: Kaleratzeak Stop Donostiarekin maiatzaren 13an eta Arabako taldearekin maiatzaren 28an.

UPV/EHU belaunaldi arteko programaren partaidea:

UPV/EHUK ikasleentzako duen belaunaldi arteko alojamentu programako parte-hartzailea den gizarte langintzako ikaslearekin egin zen lehen bilera maiatzaren 21ean. EGKrentzat etxebizitza sarbide berriak gazteen bizipenetik ezagutzea oso baliagarria izan da.

ELA:

Etxebizitza alorrean lanketa duten eragile, elkarte eta sindikatuarekin sinergiak sortzeko bidean ELA sindikatuarekin maiatzaren 14ean egin zen bilera.

Abaraska:

Abaraska etxebizitza kooperatiboan oinarri duen Donostiako proiektu bat da. EGKren etxebizitza eredu berriak ezagutzeko lan ildoan sakonduz, Abaraskak planteatzen duen eredua ezagutzeko eta EGK eragile desberdinen artean ezagutzera emateko egin zen lehen bilera maiatzaren 22an.

Kuvu gazteekin bilera:

Kuvu gazte taldeak, belaunaldi arteko etxebizitza programa baten plataforma sortzaileak dira. Honen gaineko informazio gehiago jasotzeko eta EGK ezagutzera emateko elkartuko ziren EGK eta Kuvu-ko gazteak maiatzaren 30ean.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea:

Gasteizen UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ikasleentzako bideratutako belaunaldi arteko ereduaren inguruko ostatu programa bat du martxan. EGK-k neurriaren kudeaketa teknika ezagutzeko Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterakoekin harremanetan izan da.

Tendel elkarte:

Tendel Otxarkoagako auzo elkarte bat da. Ekintza kultural desberdinekin batera auzo elkartearen bidez Bilbo Etxebizitzak-en alokairu sozial neurri batzuk kudeatzen dira. Berauek gertuagotik ezagutzeko eta baita, programa honen erabiltzaile baten esperientzia ezagutzeko egin zen bilera ekainaren 19an.

Enai:

Enai, ezker abertzaleko gazte antolakundearekin harreman bilerak izan ziren. Ipes-ekoekin bat antolatu zuten Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) 'Prekaritatearen eragina gazteengan: parte-hartze politikotik bizi ikuskerara' jardunaldian parte-hartzeko gonbidapena luzatu zioten EGKri. Bertan ekainaren 28an Eibarko Unibertsitatean egindako ikastaroan gazteen enplegu eta etxebizitzaren egoeraren diagnostiko bat azaldu zuen EGK-k.

Lagunkoia:

Donostia Lagunkoia Udalak sustatutako hiri plana da. Honen bitartez, hiriko bizitzaren esparru guztietan populazioaren zahartzeak planteatzen dituen erronketan arreta jarri nahi du eta lan

ildo garrantzitsutzat dute etxebizitzarena. Besteak beste, belaunaldi arteko ereduan jarri dute fokua. Horien inguruan aritzeko eta Donostiako jardunaldia antolatzeko elkartu izan dira.

Txirikorda:

Usurbilgo udaletxea aurrera eramaten ari den belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektua da Txirikorda. Berau ezagutzeko, eta Donostiako **Milaka Elkarbizitza** Hiruburuaren antolaketarako harremana sortu da.

Fundación Vital:

Vital Fundazioaren zati den Vitalquiler sozietateak alokairu sozial eta dirulaguntza batzuk kudeatzen ditu. Aukera hau gertuagotik ezagutzeko bilera izan zuten uztailaren 22an EGK-k eta Fundación Vital-eko zuzendariak.

Alokabide:

Alokabide Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa da, etxebizitzak gizartean betetzen duen eginkizuna garatzen du, alokairurako politikaren bidez. Besteak beste, Gaztelagun dirulaguntzaren programaren kudeaketa egiten dutenez, programak izan duen garapena eta eragina ezagutzeko eta administrazioarekin harreman zuzena izateko elkartu ziren EGK eta Alokabide irailaren 10ean.

Maiden Otamendi Tolosa:

Maiden Otamendi Tolosa legebiltzarkidea eta EH Bilduren Etxebizitza idazkaria da. Haren eskariari erantzunez bilera bat izan zen azaroaren 12an, etxebizitzaren inguruko EGK eta EH Bilduren lanketak elkar banatzeko.

EGI:

Etxebizitza eredu berrien inguruan EGlen eta EGKren lanketak, erronkak eta aurrera begirakoak lantzeko bilera egin zen azaroak 20an Donostiako EGKren egoitzan.

Eragin:

Bilboko Gazte Prekarizatuen Asanblada den Eragin-ekin harremana sortu du EGK-k.

Ebaluazioa

- Eragile, administrazio eta elkarte desberdinekin izandako bilerak gazteriaren datuak aztertzeko, partekatzeko eta kontrastatzeko bideak zabaldu ditu. Hauen bidez, alde batetik, EGKren lana zabaltzea lortu da eta, bestetik, elkarte, sindikatu, elkarte edota mugimenduen lana EGKra hurbildu da.
- Aurten enplegua eta etxebizitza lan arloen banaketa egin den lehen urtea izan denez, harreman desberdinak egitea izan da erronketako bat. Bide horretan oinarri hori eratzeke urratsak egin direla balioesten da. Elkarte, erakunde eta administrazio desberdinekin sortu baitira harremanak.
- Administrazioekin egindako bilerak emankorrak izan dira eta harremana mantentzeko oso baliagarriak direla uste da.

1.7. Eguneroko lana

EGKn lan-arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak biltzen dira etxebizitza lan-arloaren egunerokoan, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan eremuekin elkarlan egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Lantaldearen formazioan parte hartzea.
- Pentsarekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.
- Etxebizitza eta gazteriaren gaineko datu eguneratuak izatea.
- Lantaldearen formazioan parte hartzea.

- Beste lan-arloen lanaren kontrastea egitea.
- Batzorde Iraunkorarekin eta lankideekin harremana/lankidetzatza izatea.
- Memoria eta Plangintza kudeatzea eta ebaluatzea.

Garapena

Bilboko etxebizitza Plan zuzentzailearen ekimena:

Urtarrilaren 24ean Bilbo Etxebizitzak antolatutako kontraste jardunaldi baten parte hartu zuen EGK-k. Bertan udaleko zein udaletik at aurkitzen diren eragile desberdinak bildu ziren Etxebizitza Plan Zuzentzaileari ekarpenak egiteko.

Gazteria Legea:

Apirilaren 6an EGK-k Gazteria Legearen gainerako ekarpenak jasotzeko ekitaldia antolatu zuen. Gazteek Legeari ekarpenak egiteko ekitaldiaren antolaketa izan zen EGK-ren lantaldea eta baita ere, jardunaldian jasotako ekarpenak administrazioari helarazteko forma eman eta jasotzeko ardura izan zen.

Gasteizko prekaritatearen analisia:

Gasteizko Udalak SIIS dokumentazio eta ikerketa zentroarekin bat maiatzaren 17an antolatutako gazteen prekaritatearen inguruko jardunaldietan parte hartu zuen EGK-k.

Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) ikastaroa:

‘Prekaritatearen eragina gazteengan: parte-hartze politikotik bizi ikuskerara’ UEUko ikastaroan hizlari moduan parte hartu zuen EGK-k. Ernai eta Ipes-ek antolatutako ikastaroan gazteen enplegu eta etxebizitza egoeraren datu batzuk mahai gainerratu zituen EGK-k ekainaren 28an Eibarreko Unibertsitatean.

Belaunaldietan zeharreko etxebizitzak jardunaldia:

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Gipuzkoan duen ordezkariak, Donostia Lagunkoiarekin elkarlanean, eta Mugak Arkitektura Bienalaren programaren barnean, ‘Belaunaldietan zeharreko etxebizitzak’ erakusketa antolatu zuen. Horren zati izan ziren jardunaldiak antolatu ziren urriaren 23an, bertan parte hartu zuen EGK-k.

Alokairu eskuragarriaren erronkarako irtenbideak ekitaldia:

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak ‘Alokairu eskuragarriaren erronkarako irtenbideak’ jardunaldia antolatu zuen azaroaren 28an Euskalduna Jauregian. EGK bertan izan zen.

Ebaluazioa

- Egoitzako kudeaketa lanekin aurrera jarraitzea.
- Jarraipen bilerak egiten jarraitzea.
- Etxebizitzaren inguruko formakuntza eta jardunaldietan parte-hartzen jarraitzea.

2. Enplegua

2.1. Gazteak eta Emantzipazioa lantaldea

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzea edo galtzea eta enpleguaren prekaritatearen arazoa orokortu egin da. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahasiz. Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta lehenagotik pairatutako baldintzengatik ere.

Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat osatzea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helarazteko. Aurten, EGK-ko etxebizitza eta enplegu lan-arloak banatu badira ere, lantalde bera mantenduz, etxebizitza eta enplegu gaiak lantzen jarraitu du lantaldeak. Honela, lantaldea indartzeko asmoarekin gazte kolektibo zein norbanako berriengana hurbiltzeko saiakera egingo da, lantzeko gai desberdinak planteatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu ekimenak eta neurriak aztertzea, administrazioei hausnartutako ondorioak helarazi ahal izateko eta horrela, politika publikoetan eragin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu arloaren inguruan batuko dituen eztabaidagune bat ezartzea.
- Gazteek enpleguaren inguruan duten informazioa handitzea, egoerari aurre egin ahal izateko erremintak lortzeko.

- Eztabaidagunean sortutako ekimenei jarraipena ematea eta horren funtzionamendua kudeatzea gazteen parte-hartzea bultzatuz.

Garapena

Lantaldea:

Emantzipa...Zer? lantaldeko bileretan gazteei zuzenduriko politika publikoez hausnartu da eta EGK-ko proiektu desberdinak landu, lantalde honek programa horien kontrastea eginez.

EGKren zeregina izan da bilera hauek dinamizatu eta programa eta politiken gaineko proposamen eta ekarpenak administrazio publikoari helaraztea. Bilerak EGK-ko bulegoan burutu ziren eta memento honetan, nahiz eta lantaldea nahiko osatua egon bideak zabaldu dira gazte gehiagok parte hartzeko.

Urteko plangintza bilera:

Otsailean egin zen lehen bileran urteko plangintza osatu zen. EGK-k 2019ko urtean aurrera eramango zituen ekitaldiak eta baita ere lantaldeak landu nahi zituen gaiak jorratu ziren. Azken honi dagokionez enpleguaren alorrean gazte ikuspuntutik landu nahi ziren gaiak mahai gaineratu ziren. Hauek izan ziren proposatutakoak:

- Gazteen enpleguaren inguruko egoeraren ezagutza
- Gazteen enplegu prekaritate egoeraren aurrean ahalduntzeko tresnak lantzea

Bestalde, aurtengo erronka moduan ere, lantaldea nahiko osatua egonda ere, hau gehiago indartzeko gazte kolektibo gehiagorengana zabaltzeko bidea ezarri zen.

Ezagutu lan kontratuak, ezagutu zure eskubideak formakuntza saioa:

Lantaldeak identifikatutako beharra izan da lan eskubideen eta lan baldintzen ondorioen inguruan beharrezkoa den informazioa eta formazioa falta dela, batez ere gazteen artean. Horregatik, **Emantzipa...Zer?** enplegu eta etxebizitza lantaldeak, CCOO-ekin batera **Ezagutu lan kontratuak, ezagutu zure**

eskubideak formazio saioa antolatu zuen ekainaren 13an. Pertsona gazteek haien lan eskubideak eta kontratuak ezagutu, kontratazio formula berezi ezberdinek eskubide hauek nola



urratzen dituzten identifikatu eta formula hauek epe motz, ertain eta luzean zer nolako arazoak sortzen dituzten aztertzeko eta honen inguruko formazioa handitu nahi izan dute saioek.

Ebaluazioa

- Lantaldearen parte-hartzeari dagokionez, bilerak gaika jorratzearen aukerak parte-hartzaileen interesetara egokiago moldatzea eman du eta berau, positiboki balioetsi da. Honekin bat, gazte zein gazte kolektibo desberdinetan ezagutzera emateko erronka positiboki balioetsi izan da, halere, aurrera begira, bidean jarraitu behar da.
- Bilerak EGK-ko Bilboko bulegoan burutu dira. Hauetara aurretik lantaldekoak ez ziren gazteak ere hurbildu ziren, lantaldea zabaltzeko eta gazteek formakuntza jasotzeko aukera baliagarria izan zen.

2.2. Formakuntza Duala Ezagutzen



Pasaden urtean EGK Formakuntza Dualaren alorra aztertzeko hasi zen. Eredu hau prestakuntza aldiak heziketa-zentroan eta enpresan edo erakundean txandakatzen oinarritzen den hezkuntza

jarduera da. Gero eta indar handiagoa du, hainbeste, batzuek eredu erreferentea kontsideratzen dutela, formakuntza eta enpleguaren arteko zubiak sortzen dituelako. Aurreko urtean landutakoarekin jarraituz, 2019an gazteen ikuspegiak hartu dira kontutan, Formakuntza Dualak gazteen bizitza proiektuan duen eragina aztertzeke eta, ondoren, administrazio ezberdinei ekarpenak helarazi ahal izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Formakuntza Dualaren egoeraren aztertea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Formakuntza Duala burutzen duten gazteen bizitza proiektuan duen eragina aztertea.
- Formakuntza Duala burutu duten eta burutzen ari diren gazteen esperientziak biltzea.
- Formakuntza honen indargune eta ahulguneak identifikatzea.
- Administrazioei formakuntza hau hobetzeko proposamenak egitea.

Garapena

Azken urteetako Formakuntza Dualeko garapena aztertzeke, pasaden urtean burutu ziren bi Hiruburuetan jasotako ekarpenekin *Formakuntza Duala Ezagutzen* [txostena](#) publikatu zen. Honi jarraipena emateko eta Formakuntza Dualaren egoeraren azterketa gazteen ikuspuntutik jasotzeke bi ildo jarraitu dira: inkestak eta eztabaida-taldeak.

Formakuntza Duala Ezagutzen txostenaren argitalpena:

2018an EGK-k Formakuntza Dualaren aztertzeke abiapuntu izan ziren bi Hiruburu burutu zituen; lehenengoa #GasteizGazteaEraikitzen jardunaldien baitan, Gasteizen; eta bigarrena, #FormakuntzaDualaEzagutzen hiruburua, Donostian. Bi jardunaldietan landutakoa jaso zen *Formakuntza Duala Ezagutzen* [txostenean](#). Berau aurten, webgunean albiste argitaratu da eta EGKren sare sozialetan zabaldu.

Inkestak:

Inkestak urrian zehar burutu dira eta EAE osoko Formakuntza Dualeko ikasle gazteak erantzun dituzte. Inkesta hauetan landutakoak hurrengoak izan dira: ikasleen profila, Formakuntza Dualaren errealitatera hurbiltzeko galderak, formakuntza-zentroaren inguruko galderak, praktika-gunearen ingurukoak, eta Formakuntza Dualaren indarguneak, ahulguneak eta ekarpenak. Hauek modu indibidualean erantzun dira eta kontuan izan dira ere ikasleen adina, identitatea, ikasketak eta hauek burutzeko zentroak, hauen bizilekua, burutzeko hizkuntza, etab.

Eztabaida-taldeak:

Gipuzkoako Formakuntza Dualeko bost zentro aukeratu dira eztabaida-taldeak burutzeko: Bidasoa LHII (bi eztabaida-talde), Plaiaundi BHI, Fraisoro Eskola, Monte Albertia LHII eta Aretxabaleta Lanbide Eskola.

Eztabaida-talde hauen abiapuntua Formakuntza Dualaren errealitatea aztertzea izan da, honetan diharduten ikasle gazteen ikuspuntutik. Ondorengoa jorratu da ikasleekin: Formakuntza Dualean ikasteko espektatibak edo hau aukeratzeko zergatiak, ea hauek betetzen diren, Formakuntza Dualaren indarguneak eta ahulguneak eta azken hauek hobetzeko ideiak ere.

Eztabaida-taldeetan informazioa jasotzeaz gain, ikasleek haien ideiak eta ikuspuntuak transmititzeko aukera izan dute, baita haien artean esperientzia ezberdinak partekatzeko aukera ere.

Harremanak:

Funtsezkoak izan dira Gipuzkoa mailan Formakuntza Duala burutzen den zentroetako arduradunekin egindako kontaktuak eta harremanak. Oso baliagarria izan da ere Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Dualeko arduraduna den Jon Azkunarekin egindako harremana, zentro gehiagorekin kontaktua egiteko eskaintako erraztasunagatik.

Ondorio-txostena:

Eztabaida-taldeak burutu ostean eta inkesten erantzunak jaso ondoren, lortutako gazteen iritzi horiekin ondorio-txosten bat sortu da. Txostenean Formakuntza Dualaren inguruko gazteen esperientziak, honen inguruko indarguneak eta ahulguneak eta baita egoera hauek hobetzeko aukerak ere jaso dira.



Ebaluazioa

- Inkestak burutzea oso baliagarria izan da gazte kopuru handiagoarengana heltzeko. Arlo ezberdinetako ikasleen erantzunak jasotzea oso aberatsa izan da Formakuntza Dualaren inguruko azterlan eta ikuspuntu zabalago bat jasotzeko.
- Eztabaida taldeei dagokionez, kasu batzuetan ikasleen agenda dela medio zaila izan da data zehaztea, halere, burututako bilerak bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki oso positibo balioetsi dira. Berauek oso aberasgarriak izan dira ikasleen iritziak jaso ahal izateko eta ikasleek haien artean esperientzia ezberdinak partekatu ahal izateko ere.
- Ezberdintasun handiak aurkitu dira emakumezkoen eta gizonezkoen artean, batez ere hauek aukeratutako ikasketei dagokionez, baina baita hauek garrantzia ematen dioten aspektuei dagokionez ere. Honek genero ikuspegiko azterketaren garrantzia azpimarratzen du.

2.3. Enplegu arloko data esanguratsuen egutegia

Enpleguaren inguruko aldarrikapenei lotutako nazioarteko egunak baliatzen ditu EGK-k bere mezua zabaltzeko. Egutegi hori osatzen jarraitu da data esanguratsuetan dagokion manifestua eta komunikazio kanpaina eginez.

Helburuak


HELBURU OROKORRA:

Urtean zehar enpleguarekin zerikusia duten data garrantzitsuak markatzea eta egun horietan manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn parte hartzea bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.

Garapena



Beste urteetan egin bezala, EGK-k hainbat adierazpen egin ditu enplegu eta etxebizitza lan-arlotik gidatutako eta **Emantzipa...zer?** lantaldearen, Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren laguntzarekin.

Hauek dira 2019an zehar egindako adierazpenak:

- Emakume eta gizonen artean –are gehiago, oraindik, gazteen kasuan– oraindik ematen den soldata arrakala salatzen adierazpena [otsailaren 22an](#), Soldata Berdintasunaren Europako egunaren harira.
- Gazteen osasunaren aldeko eta prekaritatearen aurkako manifestua [apirilaren 28an](#), Lan Osasunaren Nazioarteko egunean.
- Gazteei eskaintzen zaizkien lan baldintza kaskarrak salatzen eta aukera egokiak aldarrikatzeko adierazpena [urriaren 7an](#), Lan Egokiaren Nazioarteko Egunaren harira. Azken honetan diseinuaren berrikuntza izan da.

Ebaluazioa

- Egindako adierazpenen eskutik, EGK-k bere posizionamendua gizarteratu eta, berezko duen zubi-lan funtzioa betez, gazteen egoera mahai gainean jarri eta hobekuntza proposamenak egin ditu.

2.4. Lan istripuen protokoloa

Urteak dira EGK-k gazte bati eragiten dion [lan istripu bat publikoki salatzeko posizionamendu](#) publikoa duela. Lan istripua Euskadin ematen den edo Euskadiko gazte bati –16 eta 30 urte bitartekoa– eragiten dion kasuetan aktibatzen da, langilea larriki zauritzen edo zentzen denean. Honen bitartez, istripuaren errudun den prekarizazioa salatzeko adierazpen publikoa egiten da.

Gertakariaren berri izatean enplegu teknikaria komunikazio teknikaria eta Batzorde Iraunkorarekin koordinatzen da.

Azkenik, azken urteetan bezala, apirilaren 28an, Lan Osasunaren Nazioarteko egunean, gazteen lan egoerak salatu eta hobekuntzak eskatzeko manifestua aldarrikatu da. Hau, EGK-k dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez zabaldu da. Modu horretan gazteriaren duintasun sozioekonomikoaren oinarriak aldarrikatu dira, lan baldintzak eta lan osasuna hobetzeko helburuarekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Maiztasunez gertatzen diren eta gazteei bereziki jotzen dieten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatzea.

- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin harremanetan ipintzea gazte batek lan istripu bat izan duenean EGKri jakinarazteko.
- Arazoaren aurrean EGKren errefusa postura argia gizarteratzea.

Garapena

Lan istripuen protokoloa:

Protokolo hau azken urteetan garatutako enplegu arloko diskurtsoari egokitu zaio, heriotza bat eta zauri larriak sortzen dituzten lan istripuak salatuz.

Urtean zehar, protokoloari jarraipena egin izan zaio, bost aldiz martxan jarri da.

- 2019ko uztailaren 5ean [gazte baten heriotza](#).
- 2019ko irailaren 2an [gazte baten heriotza](#).
- 2019ko urriaren 3an larri zauritutako emakume [gazte baten lan istripua](#).
- 2019ko urriaren 8an larri zauritutako [gazte baten lan istripua](#).
- 2019ko azaroaren 4an, larri zauritutako [gazte baten lan istripua](#).

Ebaluazioa

- Protokoloa bost aldiz aktibatu da, bi kasuetan heriotzagatik, eta beste hirutan lan istripu larriagatik. Protokoloa martxan jarri zenetik, heriotzen zifra handiena 2018. urtekoa izan bazen ere, heriotzak eta lan istripuak, biak kontuan hartzen badira, aurtengoa da zifrarik altuena beraz, egoerak kezkagarria izaten jarraitzen du.
- Zoritxarrez, oraindik, protokoloa martxan jartzeko beharrezkoak diren datuak oso eskasak dira, eta normalean prentsan agertzen direnean egiten da.
- Protokoloa eguneratzea beharrezkoa ikusten da, honetan genero ikuspegia txertatuz. Izan ere, kasu batzuk ez daude jasota.

2.5. Ideia bat daukazu?

2018. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Innobasquerekin burututako koordinazio bilera ezberdinetan gazteek proiektuak eta batez ere, berrikuntza sozialerako proiektuak sortzerako orduan zalantzak zituztela antzeman zen behar nabari bezala.

Egoera hau izanik, gazte elkarteei, gazteekin lanean diharduten elkarteei edota gazteei zuzendutako berrikuntza sozialerako proiektu bat sortzeko pausuak modu laburtu eta sinple batean eskaini ahal izateko paneltxoak sortzea erabaki da. Hauek eskura izateko eta oinarri moduan erabili ahal izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berrikuntza sozialeko proiektu berri bat sortu nahi duten gazteei hauek sortzeko pausuak eta tresna egokiak eskaintzea modu sinple eta azkar batean.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak proiektu berritzaileak egiteko ahalduntzea eta bultzatzea.
- Berrikuntza sozialeko proiektuak sortzeko irizpideak eta pausuak argitzea.

Garapena

Aurreko urtean formakuntza saioak eman zirenez, aurten gazteen beharrei erantzungo dieten material berria eskaintzea izan da asmoa.

Horretarako formakuntza saioen edukirako materiala oinarri izanda, paneltxo batzuk sortzea adostu da. Gazteek paneltxo hauek edozein mementotan eskura izateko, modu azkar eta errazean. Hauekin berrikuntza sozialerako proiektu bat sortzeko eman beharreko pausuak zeintzuk diren jakiteko eta hauek jarraitzeko erabilgarriak izatea dute xede paneltxoak.

Hauen zabalpenerako, ahalik eta gazte gehiengana heltzeko, EGK-ko webgunea eta sare sozialak (Facebook, twitter, Instagram...) erabili dira, hauek gazteen artean komunikabiderik erabilgarrienak baitira.

Ebaluazioa

- Paneltxoak, proiektuen sorkuntzarako beharrezkoak diren pausuen informazioa ahalik eta gazte kopuru handiagoarengana heltzeko erabilgarriak izan dira. Metodologia hau egokia izan da ere, formazio saioetara, egutegi, ordutegi edota distantziagatik bestek beste hurbildu ezin diren gazte horiengana heltzeko.

2.6. GazteLabel

EGK-k, GazteLabel ekimenean gazteei eragiten dieten politika publikoak ebaluatzen ditu, hauek, gazteen behar eta eskubideei egokitzen zaizkion ebaluatzeko. Horrela izatekotan, GazteLabel ziurtagiria ematen die.

Aurtengo honetan, Gasteizko Udalak 23 urte azpiko gazteei bideratutako Hazia 23 programa aztertzea izan da asmoa. Ekimen honen funtsa formaziorik gabeko 25 gazte artatzea da, jada aurretiaz Gasteizko udalak dituen enplegu politika aktiborako programen erabilera pertsonalizatuta eskainita.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hazia 23 programak Gasteizko formaziorik gabeko gazteen laneratze beharrak asetzen dituen ebaluatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- GazteLabeleko kontraste agente berriak formatzea.
- Programa hobetzeko proposamenak egitea.

Garapena

EGK Gasteizko Udaleko Enplegu teknikariarekin harremanetan jarri zen GazteLabel martxan jartzeko zein nolako urratsak jarraitu behar ziren argitzeko.

Uztailaren hasieran Gasteizko Udaleko Enplegu teknikaria, Gazteria teknikaria eta EGK-ko enplegu eta etxebizitza teknikaria bildu ziren. EGK-ko teknikariak GazteLabel prozedura urratsez urrats azaldu zien eta hauek zituzten zalantzak jaso zituen. Gasteizko Udaleko Enplegu teknikariak Hazia 23 programarekin GazteLabel burutzeko aukerak balioetsiko zituela adostu zen.

Uztailaren erdialdean Gasteizko Udaleko Gazte teknikariak Hazia 23 programa oraindik egonkortu beharreko programa zela azaldu zion EGK-ko teknikariari. Horregatik, 2019an programaren hurrengo edizioan berriro ere baloratuko da GazteLabel burutzeko aukera.

Ebaluazioa

- 2020. urtean aztertuko da Hazia 23 programa GazteLabel ziurtagiria lortzeko prozesua.
- GazteLabel zigilua emateko eta azterketa sakona egiteko espero baino denbora gehiago behar da, horregatik urte bat baino gehiago behar du emaitzak izateko.

2.7. Enplegu arloan lan egiten duten eragileekin harremana

Enpleguaren alorrean eragile askok dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea.

Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia hauengana transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta enplegu arloan lan egiten duten elkarleen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.

- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarten artean enplegua lantzen dutenekin harremana sendotzea.
- Eskatzen duten elkarteei eta gazteei formakuntza eman eta elkarteei formakuntza eskaintzea enplegu arloan.

Garapena

CCOO GAZTEAK SINDIKATUA:

EGK-ko elkarteak da eta enplegu eta etxebizitza lantaldean parte hartzen du. Urtean zehar harremana mantendu da proiektu desberdinak informatzeko, eta **Emantzipa...Zer?** lantaldearentzako formakuntza bat burutzeko: **Ezagutu lan kontratuak, ezagutu zure eskubideak** formakuntza. Bestetik, apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean publikatutako manifestura](#) eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxikitu ziren.

Kale Dor Kayiko:

Lantaldearen bileretan parte hartzen du Kale Dor Kayikok, eta otsailak 22ko [Soldata Berdintasunaren Europako eguneko manifestura](#) eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Ekintza Katoliko Orokorra/ Acción Católica General (ECO-ACG):

Lantaldearen bileretan parte hartzen du EKO-ACG-k eta otsailak 22ko [Soldata Berdintasunaren Europako eguneko manifestura](#), apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean publikatutako manifestura](#) eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Euzko Gaztedi-EGI:

Lantaldearen bileretan parte hartzen du eta hauek ere otsailak 22ko [Soldata Berdintasunaren Europako eguneko manifestura](#) eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Eragin:

Bilboko Gazte Prekarizatuen Asanblada den Eraginekin harremanak sortu ditu EGK-k.

ELA:

Enplegu alorrean lanketa duten eragile, elkarte eta sindikatuekin sinergiak sortzeko bidean ELA sindikatuarekin maiatzaren 14ean egin zen bilera.

LAB:

Enplegu alorrean lanketa duten eragile, elkarte eta sindikatuekin sinergiak sortzeko bidean LAB sindikatuarekin bilerak egin dira. Bestetik otsailak 22ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean publikatutako manifestura](#) atxiki ziren.

Gazte Abertzaleak:

Otsailak 22ko [Soldata Berdintasunaren Europako eguneko manifestura](#) eta apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean publikatutako manifestura](#) atxiki ziren.

Bilboko Langile Pastoralta:

Apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean publikatutako manifestura](#) atxiki ziren.

LSB-USO:

Otsailak 22ko [Soldata Berdintasunaren Europako eguneko manifestura](#) eta apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean publikatutako manifestura](#) atxiki ziren.

Ikaslan:

Ikaslanekin harremana sortu du EGK-k Formakuntza Dualaren inguruan.

Ebaluazioa

- Gazteriaren datuak aztertzeko eta partekatzeko modu baliagarria da sortutako harremana.
- EGK-k urte hauetan jasotako informazioarekin beste erakunde batzuei aholkularitza eman ahal izan die eta zenbait jarraipen prozesuetan EGKren iritzia islatuta gelditu izan da.

- Elkarte desberdinekin izandako bilerak oso aberasgarriak izan dira eta etorkizunerako errekursoak lortu dira. Guztietan hartu eman bat egon da, hau da, alde batetik, EGKren lana azaldu egin zaie eta, bestetik, haien lana EGKra hurbildu dute. Gainera, errealitate desberdinak ezagutzeko balio izan dute.
- Administrazioekin egindako bilerak emankorrak izan dira eta harremana mantentzeko oso baliagarriak bezala balioesten dira.

2.8. Eguneroko Lana

EGKn lan-arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan-arloekin elkarlanean eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Prentsarekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Beste lan-arloen lanaren kontrastea egitea.
- Lantaldearen formazioan parte hartzea.
- Lan-arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egitea.
- Batzorde Iraunkorarekin eta lankideekin harremana/lankidetza izatea.
- Memorien eta Plangintzen kudeaketa eta ebaluazioa egitea.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte-hartzea.

Txostenak aztertu:

Beste zeregin bat, gazteen eta enplegu eta emantzipazioaren inguruko datuak jasotzen dituzten txostenak aztertzea da. Enpleguaren, merkatuaren eta emantzipazioaren datuak aldakorrak dira eta honen gaineko informazioa eguneratua edukitzea garrantzitsua da.

Gasteizko Enplegu Foroa:

Otsailean Europa Biltzar Jauregian burututako Enplegu Foroan izan zen EGK. Lan-bitartekaritza eta gaitasun profesionala hobetzea ardatz zuen jardunaldiak. Hori dela medio, enplegu foroak lurraldeko enpresen eta lan bila ari diren langabeen elkargunea sortu zen.

Gazteen prekaritatearen inguruko jardunaldia:

Gasteizko Udalak Simone de Beauvoir gizarte etxean, SIIS dokumentazio eta ikerketa zentroarekin bat maiatzaren 17an antolatutako jardunaldietan izan zen EGK.

Enpleguaren Nazioarteko II. Kongresua:

Eusko Jaurlaritzak eta Lanbidek antolatutako kalitatezko enplegua eta enplegu inklusiboa sortzeko erronkak eta aukerak landu ziren Nazioarteko II. Kongresu honetan.



Merkalan:

Lanbideren enplegu eta formakuntza azoka, Kursalean izan zen. Euskadiko enpresen eta enplegu eskatzaileen premiak bildu ziren bertan.

Adinaren kudeaketa erakundeetan III. Kongresua:

San Prudencio Fundazioak Gasteizko Europa Jauregian antolatutako jardunaldia izan zen. Lan osasunaren inguruko hainbat gai landu ziren.



Buru gaixotasuna duten pertsonen laneratzeara:



Arabako Merkataritza Ganberan izan zen eta Euskadiko enplegu eta osasunaren inguruko politiken gainean aritu ziren. Zehatzago, Lismi -buru gaixotasuna duten pertsonak kontratatzearen betebeharren, laguntzen, dirulaguntzen eta onuren- araudiaren inguruan.

Emantzipazio neurri berritzaileen jardunaldia:

Mondragon Unibertsitateko Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategiko masterreko ikasleek Gasteizko udalarekin bat antolatutako jardunaldian izan zen. Bertan gazteen emantzipazioarekin zerikusia duten proiektuen aurkezpena egin zen.

Jarraipen bilerak:

Jarraipen bilerak lantalde teknikoak burutzen ditu astero Skypen bidez, baita fisikoki EGK-ko bulegoren batean. Baita ere, Batzorde Iraunkorrarekin egindako koordinazio bilerak.

Plangintza eta memoriak:

Urtero bezala, urte hasieran urteko plangintza prestatu da eta urteko memoriak urte amaieran.

Egoitzako kudeaketa lanak:

Bulegoa eta materiala zaindu eta txukun mantendu, telefonoa artatu, bulegoko mantenuaz arduratu informatika, argiketaria, su-itxalgailuaren mantenua... etab.

Teknikari aldaketa:

2019 urtean enplegu arloak teknikari aldaketa izan du. Hori dela-eta, lan deialdia ireki zen ekainean. Hautaketa prozesuaren ondoren teknikari berria lantaldetara batu zen uztailaren erdian.

Ebaluazioa

- EGK-ko enplegu diskurtsoa ondo oinarrituta dago eta aberastu da, administrazioek gero eta gehiago hartzen dute kontutan. Prentsa eta iratiak EGKrengana jotzeak ere EGKren diskurtsoa garrantzia duela adierazten du, aldi berean EGKren oihartzuna handitzea laguntzen dute.
- 2019an barne aldaketa nahiko eman dira enplegu lan-arloan, hori egunerokotasunean nabaritu da bai lan arloaren barruan baita lantaldean ere. Honek oso ondo erantzun du sortu zitezkeen hutsuneak eta oztopoak gainditzeko talde lanaren bidez.

3. Hezkuntza

3.1. Hezkuntza Foroa

Aurten hezkuntza formalaren atalean, EGKren diskurtsoa eta bidea osatzen lagunduko duten ikasle elkarte, kontseiluetako ordezkariekin eta maila indibidualean parte hartzen duten gazteekin batera eztabaidarako guneari aktibazio eta egonkortze bat eman zaio.

Urteak dira Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) baitan ikasle elkarte, eragilez eta hainbat gazte osatutako Foroa egon izan dela, lantalde honek hain zuzen ere beti izan du Hezkuntza Formaleko gazteen eskubideen alde lan egiteko helburua. Eta aurtengo fokua hau indartzea izan da.

Gazte hauekin batera arlo honetako gaiak eztabaidatu eta elkarren arteko adostasunetan oinarritutako proposamenak lantzeaz gain, hezkuntza arloko proiektu zehatzak definitzen dira. Hezkuntza arloaren bitartez harremana eta elkarreagina sortu eta lan horren baitan, administrazioari proposamen zehatzak helaraztea izan da helburua gazteen egoera kontuan izateko eskariak bildu eta bizipen zein iritzien berri emanez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bitartekari lana burutzea: ikasleen kezka eta beharrak proiektu zehatzen bitartez lantzea, gerora hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunei lan horretan jasotako ondorioak helarazteko eta proposamen zehatzen bitartez bideratzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza formaleko elkarte eta eragileekin hezkuntza eztabaida gunea koordinatzea.
- Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen zein ekimenak bideratzea eta administrazioari helaraztea.
- Aurreko urtean emandako pausoetatik abiatuta taldearen definizioa eta honen eginkizunak guztion artean finkatzea.
- Foroak egonkortasun batekin lan egiten duela bermatzea.



#ElkarTopatutik abiatuta:

Otsailaren 7an egin zen **Hezkuntza Foroaren** urteko lehenengo bilera **#ElkarTopatu** jardunaldiari jarraipena emanez. Bilera honetako lehen urratsa, lantaldearen beraren osaketaren inguruan definizio batzuk garatzea izan zen, funtzioen eta funtzionamenduaren gaineko zehaztapenak adostuz hain zuzen ere. Aurreko urtean emandako pausoetatik abiatuta, taldearen definizioa eta honen eginkizunak guztion artean finkatzea lortu zen bilera honetan.

Aurrerantzean izan diren bileretan, gaitegiaren zehaztapenak landu dira.

Harreman eta bileren bira:

Urte osoan zehar, hainbat izan dira elkarteekin garatu diren harremanak, hauei **Hezkuntza Foroa** zer den azaldu eta honetan parte hartzeko deia luzatu zitzaielarik. Honakoak izan dira urte honetan **Hezkuntza Foroaren** berri izan duten elkarteak:

- AEGEE (European Students' Forum/Europar Ikasleen Foroa)
- AVIEM (Asociación Vasca de Intercambio de Estudiantes de Medicina/ Medikuntzako Ikasle Trukaketazko Euskal Elkarte)
- ESN (Erasmus Student Network)
- Ikasle Kontseilua
- ZIMATEK (Fisika eta Ingenieritza elektronikako ikasle elkarte)
- ISF (Ingeniería Sin Fronteras/Mugarik Gabeko Ingenieritza)
- UKS (Unibertsitate Kritikorako Sarea)

Azaroaren 17a, Ikasleen Nazioarteko eguna:

Lantaldearen ideia eta proposamen zehatzetatik abiatuz eta azaroaren 17ko data baliatuz, urtean zehar **Hezkuntza Foroan** jasotako kezka eta beharretatik, egun existitzen diren oztopoak ezabatzeko proposamen zerrenda zehatz bat egin da urte honetan. Honen garapenerako, zenbait elkarteren iritziak hartu izan dira oinarritzat eta beraz, gai honen baitan diskurtso amankomun bat osatzerako bidean lehen pausoak eman dira. Adibide argia da Azaroaren 17an, Ikasleen Nazioarteko Egunean argitaratuta [manifestua](#).

Ikastaro honetan ere, ikasleek egunerokotasunean dituzten erronkak azpimarratzeaz gain, ikasle gazteek dituzten konpromisoak eta aurrera ateratzen dituzten proiektuak goraipatu nahi izan dira, hauen ekintzen eta existentziaren difusioan lagunduz.

Ebaluazioa

- Hezkuntza formaleko **Hezkuntza Foroa** lantaldearen bitartez ikasle-elkarteen saretzean aurrerapausoak eman dira, hau elkar ezagutzarako espazio gisa baliatuz.
- Aurten foro honetarako parte-hartzaile berriak lortu dira eta beraz, ikasle elkarte eta gazteen parte hartzea handitzea lortu da lantaldean.
- Foroak oinarri komun eta egonkortasun batekin lan egitea lortu du eta beharrak eta proposamenak partekatzeko espazioa sendotzea.
- Guztion artean dauden erronkak identifikatu eta hauei nola erantzun bilatzeko lehen urratsak egin dira, gai hau mahai gainean jarritz. Aurrera begira eman beharreko urratsak identifikatu dira.
- Aurrera begira, proiektu konkretuen gauzatze edo egikaritzea izango da erronka nagusienetako bat, proiektuen proposamen edo ideiak lurreratu eta praktikara eramateari begira. Zentzu honetan, asmoa hezkuntza arloko ikasle elkarte, kontseilu zein maila indibidualeko kideekin saretzen jarraitzea eta bilerak koordinatzen jarraitzea da asmoa, honen parte-hartzea posible den heinean handituz.

3.2. Hezkuntza Eragileak

Hezkuntza, EGK-ko lan arlo bat den heinean, hezkuntza eragileekin egiten du lan bere egunerokotasunean. Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana mantentzea egunerokoan presente dago beraz. Honekin batera, EGK ezagutzera emateko modu bat ere da harreman sare hau, arloko agente ezberdinen artean elkarlana eman dadin batez ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana sortzea eta EGK hezkuntza esparruan ezagutzera ematea.

Garapena

III Heziketa Topaketa:

Praktika eta estrategia parte-hartzaileei buruzko [Heziketa Topaketan](#) hartu da parte aurten. Hezkuntza Departamentuak antolatutako topaketak izan dira eta lankidetzaren eta hezkuntza formal eta ez-formalaren munduko pertsona eta kolektiboen arteko topaguneak dira hauek. Metodologiaren alorrean bereziki oinarritutako esperientziak partekatu eta ikaskuntzak ateratzeko guneak.

Eskola Abian Jardunaldia: Berdintasuna eta inklusioa:

EGK-k hezkidetzak lantzeko hartuta duen konpromisoa dela-eta, berdintasuneko teknikariarekin batera 2019ko martxoaren 6 eta 7an hezkidetzako Eskola Abian Jardunaldia: Berdintasuna eta inklusioa jardunaldian parte hartu zen. Bertan, EGK-ko proiektuei dagokion informazioa biltzeko aprobeztatu zen eta hezkuntzan eginiko lanketak ikusteko baliatu zen ekitaldi hau.

Gipuzkoako Aldundian Astialdi Eskolen arloarekin bilera:

Urte honetako irailaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Astialdi Eskoletako gaia daramaten arduradunekin izan zen bilera. Bilera honetara, atalburua, Josean Castaño eta ardura hau daraman Ione Iguaran bertaratu ziren. Bilera honetako asmoa, mementoko egoeraren argazkia

edo analisia EGK-ko hezkuntza arloa eta Aldundiko eskolen arloaren artean partekatzea izan zen bereziki.

Ebaluazioa

- Eremu desberdinetan eman diren harremanen baitako balorazio oso positiboa egiten da, honek EGK-ko hezkuntza lan-arloan dauden planteamendu edo proiektuen eta espazioen inguruko proiektzioa ematen lagundu baitu. Honen harira, ekintza hauetan sortutako harremanak ugariak izan dira eta hauek etorkizunerako baliagarriak izan daitezkeela balioetsi da, sor daitezkeen proiektu berriei begira batez ere. Honek, aurrerantzean EGKren eta zehazki hezkuntza lan-arloaren ikusgarritasunean laguntzea espero da.
- Mota honetako jardunaldi eta topalekuek, aukera ematen dute harremanak sortzeko. Beraz aurreratzean ere hezkuntza saileko zein gainontzeko beste hainbat espaziotatik eratorritako informazioa jasotzen eta kontuan hartzen joango da, arloko eragile eta agenteak dauden espazio hauetan parte hartzeko asmoz eta ezagutzera emateko zein berriak ezagutzeko helburuarekin.

3.3. Garrio Txostena II

EGK-k 2017. urtean atera zuen *Garraio gastuak aztergai txostena*. Honetatik abiatuta, hausnarketa partekatu eta eguneratu bat egitea izan da 2019ko asmoa. Jaso eta bildutako datuei jarraiki, EAEko ikasleekin zein lurraldean ikasten dabiltzan horiekin iritziak partekatu eta analisi honetan sakondu da. Horrela, gazte erabiltzaileen ahotsak entzun dira eta berriz ere egoeraren analisia eraman da aurrera, datuak eguneratu eta hauen gaineko irakurketa eginez. Guzti honekin, gai honek gazteengan eta batez ere ikasten ari diren horiengan duen garrantzia eta kostuak aztertu dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k 2017. urtean ateratako *Garraio gastuak aztergai* [txostenari](#) erabilera jarraipena ematea eta honako hau berriztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Txosten honen ondorioak hezkuntza formalean dabilen ikasleei aurkeztea eta honen inguruan burututako lanketa partekatzea.
- Gazte erabiltzaileen aldetik, gai honen inguruko analisisian sakontzea.
- Garraioaren gaiak gazteengan eta bereziki ikasleengan duen garrantzia aztertzea.
- Egindako lanari jarraipena emango zaiola bermatzea.
- Administrazioari ikasleen iritzi eta ekarpenak helaraztea.

Garapena



Garraio gastuen analisisian, EGK-ko hezkuntza arlotik garraio zerbitzua aztertu nahi izan da, gaia berriz ere erdigunera ekarriz. Alde batetik, 2016an egin zen txostenaren zabalpena egin da eta bestalde, egungo egoeraren inguruko informazioa bildu.

Analisiaren erdigunean honako kontuak egon dira: zein eragin duen garraioak ikasten ari den pertsona baten bizitzan, garraioak zer suposatzen dion eta ea 2016an ateratako neurri beharren gainean berresten den.

Zentzu honetan eta gai hau lantzeko asmoarekin, **#ZerGarraio** kontrastatu eta osatzeko hain zuzen ere, topaketa bat antolatu zen lehendabizi, Donostiako UPV/EHU-ko Barriola espazioan. Proiektuaren nondik norakoak EGKren webgunean [albiste](#) formatuan publikatu ziren.

Harremanak:

Topaketa hau aurrera eramateko, ikasle eremuan lanean dabiltzan elkarte desberdinekin bildu zen EGK, unibertsitatean antolatzen direnak hain zuzen ere. Hauen prestutasuna eta gaiarekiko interesa nabaria bazen ere, zenbait arazo izan ziren ekitaldiko data ezartzerako orduan. Halere, interes eta beharrari erantzuteko planteamendu berri bat proposatu eta martxan jarri zen.

Beste formatu batean egitea egokiagoa litzatekeela partekatu eta adostu zen ikasle elkarte hauekin eta horri ekiteko gogotsu agertu ziren hauek guztiak. Gainera, modu honetan ikasle gehiagorengana heltzeko bideak jarri ziren mahai gainean, behar bezala identifikatuz, ahalik eta ikasle gehienen ahotsak bertan islatuta egotea bermatuz. Beraz, topaketa forma aldatu eta analisia galdetegi forman egin da azkenik. Galdetegi horren bitartez, ikasleen errealtatea eta gai honekiko proposamen zehatzak landu dira, jarraian txosten batean biltzeko. Hauek izan dira ikasleei lanketarako zehazki egin zaizkien galderak:

- Non ikasten duzu?
- Non bizi zara?
- Zer motatako garraioa erabiltzen duzu unibertsitatera edo ikastetxera joateko?
- Eskaintzen diren ordutegiak egokiak direla uste duzu? Zergatik?
- Garraio-gastuei dagokienez, pozik zaude dagoen eskaintzarekin?
- Aurreko bi galderen harira: Azken urteetan, gai honekiko egoera hobetu dela uste duzu?
- Zure ikasketak burutzera ikasketa zentrorra hurbiltzerako orduan, hilabeteen zenbateko batez besteko gastua egiten duzula esango zenuke?
- EAEn zehar bidaiatzeko txartel bakarra izan da urteetan zehar aldarrikapenetako bat zentzu honetan. Ados zaude?
- Errealitate hau hobetzeko, zer proposamen gehituko zenuke? (Zentzu honetan nahi duzuna idazteko aukera duzu hemen)
- Zure egunerokotasunean garraioarekin lotutako edozein proposamen edo esperientzia zehatzen bat kontatu nahi izanez gero kontatu.

Honetaz gain, gainera, aurretik bildutako elkarten iritziak ere jaso dira modu zuzenago batean (askok honakoa elkarte bezala egin dutelarik), lanketa edo analisiaren eraginkortasuna bermatuz eta azterketa kualitatibo hori aberastuz talde-lanketa egitearen bitartez eragilean bertan. Galdetegiaren zabalpena egiteko EGKren webgunean [albistea](#) publikatu zen.

Txartel Bakarraren Aldeko Plataforman parte-hartzea:

Prozesu guzti honetan zehar sortu izan diren harremanak ugariak eta askotarikoak izan dira eta zentzu horretan, EGKtik 'Bizkaiko txartel bakarraren eta garraio sistema publiko bateratuaren aldeko foroan' ere parte hartu izan da aurren. EGK-k txartel bakarraren aldeko proposamenak lantzen dituen taldera gazte ikuspegi eta ahotsa eraman du, plataforma honen urteko batzarrean parte-hartuz.



Ebaluazioa

- Gipuzkoako ikasle elkarte berriein harremanak egiteko komunikazio bide bat izan da txostena. Batez ere unibertsitate mailan antolatzen diren taldeekin egin dira bilerak eta, zentzu horretan, aurrera begirako elkarlan bide berriak ireki dira esaterako Unibertsitate Kritikoko Sarea (UKS) edo Ikasle Kontseiluarekin. Beraz, garraio arloa lehen pertsona bizi duten gazte ezberdinekin harremanak eta komunikazio bide zuzenak ugariak izan dira eta gazteei protagonismoa ematea lortu da gai honetaz hitz egiten jartzerako orduan edo gai honen bitartez, gazte diren ikasle horiek beraien bizitzaren erdigunean kokatzen baitute behar, premia edo arazo hau.
- Galdetegiaren prozesuari dagokionez, ehundik gora ikaslek bete dute honakoa (110 ikaslek hain zuzen ere) eta esperotako emaitza kuantitatibo zein kualitatiboki positiboa izatea lortu da. Hobekuntzarako proposamenen atalak ere garrantzi handia izan du prozedura guzti honetan zehar. Esan daiteke aurreikusitako edo aurrez ezarritako erronkak zein asmoak, emaitzei erreparatuz, bete direla beraz.

- Orain, behin informazio hau jasota hurrengo pausoa txostenaren elaborazio eta osatze prozesua da, emaitza hau gizartearekin eta batez ere, gazte, ikasleekin eta administrazioarekin partekatzeari begira. Honen sozializazioa etorriko da orain beraz, hau kontrasterako ariketa gisa planteatuz eta iritzi jasotze horri bide berriak izateko aukera eskainiz edo emanez.
- Aurrera begirako zabalpen eta jarraipenari dagokionez, gazte zein ikasle talde desberdinekin hau bira baten bitartez partekatzeaz gain, instituzioekin harremanetan jarri eta agertutakoa elkarbanatzeko lana ere egitea egongo da datozen urratsen artean: ateratako ondorioen nondik norakoa azaldu eta praktikara eraman daitezkeen neurri zehatzen inguruan hitz egiteko eta baita gai honek ikasleen arduran betetzen duen tokia administrazioetako neurrietan izateko ere.
- Txartel bakarraren lanketari dagokionez, EGKren iritzi eta proposamen zein planteamenduak bertaratzea oso positiboki balioetsi izan da, ekarpena gazte ikuspegitik txertatzen den heinean. Gainera, datorren urteari begira ere plataforma honek eginkizunekin eta lan berriekin aurrera jarraitzea ikusten du eta gazte eremuan hau lantzeko aukerak daudela aurreikusten da.

3.4. Eskola Kontseilua



Aurten ere, EGK-k, Euskadiko Eskola Kontseiluan unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenean parte hartu du. Bertan, EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arau eta irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorreari ekarpenak egiten zaizkio beti ere gazteen iritzia kontuan izanda.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Eskola Kontseiluko bileretan parte hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eskola Kontseiluko eztabaida eta dokumentuei ekarpenak egitea gazteen ahotsa helaraziz.

Garapena

2019ko osoko bilkura:

2019ko azaroaren 14an ospatu zen Euskadiko Eskola Kontseiluaren osoko bilkura, non EGK-k parte hartu zuen. Honakoa izan zen bilera honetan aurrera eramandako gaitegi zerrenda:

- 2018ko ekainaren 28ko batzar-deiaren aktaren onespena.
- Lehendakariaren informazioa.
- Migraziorako Euskal Itun Soziala sinatzea.
- Kontseiluaren lan plana aztertzea.
- Denon artean, kontseiluaz hausnartzea eta honen funtzionamendua hobetzeko proposamenak egitea.
- Galde-eskaerak.

Ebaluazioa

- EGK bezala, hezkuntza lan arlotik gune honetan parte-hartzea eta gazteen hitza bertaratzea oso positiboki balioetsi izan da. Gainera, kontseiluko espaziotik ere oso baliagarri eta beharrezkotzat jo da ekarpen edo parte-hartze hau aurrera eramaten jarraitzea.
- Aurrerantzean, Euskadiko Eskola Kontseiluko deialdietan parte hartu eta jasotako dokumentuen ekarpenak burutzen jarraitzea balioetsi izan da, hezkuntza arloko ikasle eta eragileek dituzten behar eta kezkak plazaratzeko espazio gisa ulertu baita. Ekarpen

kopurua handitzea izango da beraz EGKren erronka kontseiluaren aurrera begirako ibilbidean.

3.5. Astialdi Foroen koordinazioa

Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko astialdiaren garapena bultzatzea du helburu. Elkarleen arteko koordinazio eta bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, taldeen arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta.

Astialdiari lotutako elkartegintza indartu da urte honetan zehar ere, baita balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki zabaltzeko eta sustatu ere. Lana bideratzeko, hiru Lurraldeetan banatzen da, bakoitzean foro bana dagoelarik. Denei eragiten dieten arloetarako ordea, guztiak biltzen dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi Foroko lantaldea koordinatzea eta sendotzea eta astialdiaren ikusgarritasuna eta aldarrikapena egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Esperientziak elkar trukitzea.
- Erakunde publikoekin bitartekaritza egitea.
- Astialdiaren garapenerako proiektuak eta eztabaidak koordinatzea eta garatzea.
- Astialdiko eragileen eta foroaren arteko sarea indartzea.
- **Astialdi Foroei** dagozkion kudeaketa-zereginak aurrera eramatea (deialdiak, aktak...).
- **Astialdi Foroetako** kudeaketaren ebaluazio jarraitua burutzea hauen hobekuntza eta eraginkortasunean lan egitea.

Garapena

Hezkuntza ez formalaren bitartez egiten den lan guztia hainbatetan azpimarratu da EGKtik. Eragileen arteko sinergiak bilatze aldera eta egunerokoan sortzen diren kezak eta proiektuak amankomunean jartzeko asmoz, lurralde bakoitzean **Astialdi Foroa** koordinatu da aurten ere hezkuntza lan arlotik.

Hainbatetan azpimarratu den bezala, astialdiko eskolek zein federazioek urtean zehar sekulako lana egiten dute. Bide horretan laguntzeko, gaur aurrera begira dauden hamaika erronka identifikatu dira. Hauetan lanean hasteko, lehendabizi elkarte edo taldeekin egin da harremana.

Era berean, 2019-2020ko ikasturteari begira lan-ildo nagusiak definitu dira, jada egiten den lana gizarteratzeko asmoz eta ezarritako helburuak lortzeko esfortzu bat eginez.

Honetaz gain, eta administrazio desberdinekin dagoen harremana zein informazio bidea gardentze aldera, hainbat bilera burutu dira astialdiko errealitatearen inguruan hitz egiteko.

Gipuzkoa:

Mementoan, 7 taldez osatua dago foroa eta beraz, espazio honek Gipuzkoako astialdi munduan lanean dabiltzan taldeen ordezkapen zabala izatea lortu da.

Hurrengo urterako finkatutako eta beharretatik abiatutako lan ildoak honakoak dira Gipuzkoan: begirale eta zuzendari ikastaroen kanpaina komunikatibo berriztua aurrera eramatea, eskolen azoka bat antolatzea, barne-formakuntza mintegiak egitea foroan bertan.

Hauek izan dira aurten parte hartu duten elkarteak: Larrunari eskola, Gipuzkoako Gurutze Gorria, Gipuzkoako Urtxintxa eskola, Hezkide eskola, Gipuzkoako Gaztetxoak, Itaka Escolapios (Tolosa), Gipuzkoako Aisiola Elkartea eta Aizkorri eskaut taldea. Hauetako batzuekin, lehendabiziko aldiz elkar banatu da foroaren planteamendua eta aukera.

Hauekin harremana abiarazi eta sendotzeko, lehendabizi elkarteen bakarkako erronda egin da urte hasieran. Bilera hauen helburua talde bakoitzaren mementoko egoera ezagutzea eta hauek dituzten beharrak zein aurrera begirako erronkak jakitea izan da.

Ostean, guztira lau bilera burutu dira Gipuzkoako Astialdi Foroarekin.

Hauetan, honako puntuak landu dira:

- Astialdia Gipuzkoan: Mementoko analisia (beharrak, erronkak, aukerak...).
- Aurrera begira espazio honetatik lantzeko gai posibleak: ideien jariora.

- **Astialdi Foroaren** planifikazioaren zehaztapenak ikasturte berrira begira: Funtzioak eta funtzionamendua (maiztasunak...)

Era berean, 2019-2020ko ikasturteari begira lan-ildo nagusiak definitu dira, jada egiten den lana gizarteratzeko asmoz eta ezarritako helburuak lortzeko esfortzu bat eginez.



Araba:

Araba mailan, elkarteekin harremana egitea izan da urte honetako eginkizun nagusia. Honako elkarteekin eraman da aurrera foroan lan egiteko planteamendua harreman bira baten bitartez: Arduradun Eskola, Arabako Eskaut Laikoa, Euskalerriko Eskautak Araba, Azterlariak Taldea, Arabako Gurutze Gorria eta Urkideak Astialdi Taldea. Azken honekin, sorrerako prozesutik izan da harremana, hau da, EGKtik bideratu da talde berri hau sortzeko harreman osoa eta beraz, zentzu horretan, hauen parte hartzea EGKn urte osoan zehar oso jarraikorra izan da, taldearen jaiotzatik elkarre izate prozesuan akonpainamendu lan oso bat burutu delako.

Foroaren baitan eta aurrera begirako eginkizunei buruz sakontzen, Arabako astialdi taldeen ikusgarritasuna handitzeko planteamendua egin beharra zehaztu da aurrera begira lanean jarraitzeko eta taldeen proiektzioa handitzea ezarri dio foroak bere buruari erronka gisa. Honez gain, begirale eta koordinatzaileentzako formakuntzak antolatzearen beharra ere ikusi izan da eta datorren urtera begira hau plangintza barruan ezarri da lanketa gisa (sexu-heziketa astialdian, sare sozialen erabilera arduratsua, aniztasun funtzionala eta astialdia...). Esan bezala, ideia eta planteamendu berriak garatzeko aukera eman du urte honetan foroak, taldeetako batzuk parte-hartzaile berriak izanik, foroaren beraren beharrak ere freskatu eta eguneratu direlako, haize berria emanez eginkizunen zerrendari. Memento honetan, foroa 6 taldek osatzen

dute eta aurrera begira zifra hau handitzea izango da erronka. Hauek dira momentuko parte-hartzaile jarraikorrak foroan: Arabako Eskaut Laikoak, Azterlariak, Urkideak, Arduradun Eskola eta Arabako Gurutze Gorria.

Bizkaia:

Bizkaiko **Astialdi Foroari** dagokionez, honek aurreko urtetik izan duen ibilbidea desberdina izan da beste foroekiko. Prozesu oso bat eraman da aurrera honen baitan eta horretarako bilerak ugariak izan dira urte osoan zehar.

Hasteko, urte hasieran, batzen hasi eta Bizkaiko Foru Aldundiari Aniztasun Funtzionalaren inguruko proposamen bat egin zitzaion, premietatik abiatuta eta astialdiko eskolen eskaerei jarraiki. Gainera, identifikatzen zen lanketa behar hau, eskolen aldetik hainbat bileren bitartez aurrera eramatea lortu zen, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlana eginez. Aniztasun funtzionalaren gaia dekretuen diru iturrietan sartzeari izan zen planteamendu honek lortu zuen eginkizuna, hain zuzen ere, dekretuan honako ebazpen hau aplikatzea.

Honetaz aparte, esan bezala, aurtan Bizkaiko Astialdi Foroa espazioarekiko hausnarketa baten murgildu da non bere buruaren funtzio eta funtzionamendua berrikustea erabaki duen. Zentzu honetan eta zehaztapen hauek burutzeko prozesuan, honako talde hauek hartu dute parte: Gaztetxoen koordinakundea, Kurkudi taldea, Kiribil Sarea, Bizkaiko Urtxintxa Eskola, Aisi-Hezi, Itaka-Eskolapios, Ede Fundazioa, Bosko Taldea, Euskalerriko Eskautak Bizkaia, eta Aisi-Hezi.

Memento honetan beraz, barne hausnarketa prozesuan aurkitzen da EGK tokiko foroarekiko. Foroak izango duen bidea edo honen etorkizuna izango denaren diseinua Batzorde iraunkorretik, hezkuntza lan-arlotik eta presidentziazatik kudeatzen ari direlarik. Hausnarketa honek, gainera, funtzionatzeko bide berriak zabaldu ditzake etorkizunera begira eta parte-hartzearen inguruan foroa berrizteko ideia nabarmendu nahi da.

Ebaluazioa

- Elkarrekin harremana eta hauekin kontaktua handitzeko lana medio, astialdi taldeen aktibazio handia eman da urte honetan foroan parte-hartzearekiko.

- Foroaren eginkizun eta beharra mahaigaineratu eta partekatu da taldeen eta EGKren artean, honakoa ezinbesteko lan eta premia bezala ikusiz.
- Memento honetan eta aurreko urteekin alderatuta, foroaren parte-hartzeak nabarmen egin du gora eta aktiboki lanean dauden elkarte, talde edo eskolak gehiago dira. Elkarte asko ikasturte honetara arte ez ziren haien artean ezagutzen, eta beraz, harremana zein sarea osatzeko aurrerapauso garrantzitsuak ematea lortu da 2019an.
- Ideia, asmo eta proposamen berriak mahai gainera ekartzea lortu da, hala nola, kalitatezko lan honek gizarteari egiten dion ekarpena zabaltzeko modu berriak sortzea esaterako.
- Taldeak egonkortzea garapen kualitatibo handia izan da eta horrekin batera maiztasun bat zehaztea lortu da bai Gipuzkoa eta baita Arabako foroetan, hilabetearen behin elkartzeko gutxi gorabehera (beharra sortzen den horietan batzuek gain) hain zuzen ere.
- Aurrera begira ere jardun dira foroak urte honetan gainera, datorren urteari begira jorratu beharreko ibilbidea zehazten eta definitzen. Hurrengo urterako finkatutako eta beharretatik abiatutako lan ildoak zehaztu dira hain zuzen ere, Gipuzkoan eta Araban.
- Guzti honen baitan, urte honetan ezarria gelditu den gauza garrantzitsuena elkarte eta eskolen arteko komunikazioa eta sarea bera izan da, ikuspegi orokorretik abiatuz guztien artean gai batzuen inguruko edukia eta lan honen ikusgarritasuna lantze aldera.
- Bizkaiko kasuan, foroaren barne hausnarketak parte-hartzerako bide edo modu berriak esploratzea ekarri du eta honen ibilbidearen baitako planteamenduak, eginkizun berriak ezartzeko aukerak ekarri ditu, foroa bera berriztekoak etorkizunari begira hain zuzen ere.

3.6. Boluntariotza Kanpaina 2019

Boluntariotzaren munduan egiten den lanari garrantzia emate aldera egin da kanpaina hau, **#Boluntaldia** izenpean eraman dena aurrera. Besteak beste boluntario gazteen aldetik egiten den lanaren aitortzea, balioeste eta zabalpen bat garatzeko asmoz eraman da aurrera kanpaina. Hezkuntza prozesu honetan oinarritutako esperientziak bildu eta argazki lehiaketa baten bitartez islatzea izan da urte honetako proposamenetako bat. Argazki bidalketa honetan,

ardatza esperientzia izanik, hezkuntza eredu honen adierazle diren balio erantsiak transmititzeko aukera izan da. Gainera, beste urte batez gazteen boluntariotzari buruzko topaketa ere ospatu da urte honetan, hau berriztutako helburuekin eraman delarik aurrera. Topaketa honetan, gazteei ahotsa emanez aurrera begirako erronkak identifikatu eta eskaera konkretuei forma eman zaie, hauek ostean proposamen konkretuetan gizarteratuz eta EGK horien bozgorailu izanez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek boluntariotzan duten papera balioestea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko eragile zein elkarte eta gazte boluntarioei protagonismoa eta ahotsa ematea.
- Hirugarren sektorean lanean aritzen diren elkarte eta eragileen aitorpena burutzea.
- Boluntariotzan ari diren pertsona gazteei modu zuzenean ahotsa ematea eta hauen bozgorailu lana egitea.
- Boluntario gazteen egoera zein den aztertzea.
- Gazte boluntarioen beharrak, nahiak edo ardurak zeintzuk diren partekatzea.
- Abenduaren 5a, Nazioarteko Boluntariotza eguna izanik, arlo honen baitako gazte diskurtsoa gizarteratzea.

Garapena

#Boluntaldia argazki lehiaketa:

Honen bitartez, gazteei euren esperientzia argazki bidez islatzeko eta ikusarazteko aukera eman zaie. Udan abiatu zen argazki bidalketa eta honen bitartez, gazte boluntarioek urtean zehar egiten duten lana balioan jarri da modu desberdin eta dinamiko batean. Izaera askotako elkarteetan dauden gazteek egin dituzte haien argazki-proposamenak eta lan horien bidez EGKtik aitortza eta proiektzioa eskaini nahi izan zaie gazte hauei. Guztira, 45 izan dira aurkeztutako lanak eta bi sari egon dira lehiaketa honen irabazleen artean banatzeko. Sari banaketa, abenduaren 2an topaketan eraman zen aurrera Boluntan.



#Boluntaldia gazteen boluntariotzari buruzko topaketa:

2019an aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamenean eta apirilean antolatu zen topaketan mahai-gainean hainbat aldarrikapen eta hobetze-proposamen jarri ziren gazte boluntarioen aldetik. Honi jarraiki eta gazteen esperientziak abiapuntu hartuta, aurretik esan bezala topaketa hauetan gazte boluntarioei eman zaie hitza. Honekin, egiten duten lanaren aitorpena eman nahi izan da lehendabizi eta gazte boluntarioen lanak aitorpena izan dezan aldarrikatu da.

Hauek izan dira landu eta eztabaidatzeko zutabe edo oinarri batzuk: boluntariotza modu egokian ematen den edo ez, gazteen egoera zein den lan honen baitan analizatzeko beharra existitzen dela, nola balioesten den, identifikatzen den eta aitortzen den lan hau eta finean, gazteen boluntariotza aurrera eramateko dauden baldintzak partekatzeko aukera izatea.

#Boluntaldia ekitaldian, lehenik partaide bakoitzak boluntario izateaz ulertzen duena azaldu zuen eta definizio edo ikuspegi horiek komunean jarri ziren abiapuntu gisa. Jarraian, etorkizunari begira datozen erronkak komentatu ziren eta gazte bezala edo indibidualetik haratago, kolektiboki eta kolektibo bezala boluntariotza nola bizi den ere islatu zen topaketan. Gainera, gaur egun indarrean edo martxan dagoen boluntariotza eredua ere auzitan jarri da eta berau honekin boluntario gazteak gustura dauden baloratu zen. Azkenik, proposamen zehatzetara salto eginez, talde dinamikan ondorengo atal hauekiko ekarpenak egin ziren, gaur egungo gazteen boluntariotzan identifikatu daitezkeenak:

- Aurrera begirako beharrak edo ardurak.
- Aurkitzen diren oztopo edo zailtasunak.

- Hobetzeko dauden proposamen konkretuak.

- Etorkizunean hartu beharreko erronkak.

Zentzu horretan, hilabeteetako hausnarketek utzi duten ibilbideak eta topaketan identifikatutako kontuek, [hainbat ondorio konpartitu](#) dituzte eta hauek webgunean aurki daitezke.



Ebaluazioa

- Gazte boluntarioekin harremanak eta sarea handitzea lortu da, zentzu honetan boluntariotzaren gaiarekin parte hartu duten gazteak asko izan dira kuantitatiboki, baina ekarpen kualitatiboa ere gaiaren dimentsioari dagokionez, handia izan da. Beraz, ekarpen aldetik ere aurrerapauso nabarmen bat egin da, batez ere gazteen boluntariotzaren inguruko diskurtsoaren osatzeari dagokionez.
- Gazte boluntarioek egiten duten lanari isla bat ematea lortu da.
- Gazte boluntarioak kolektiboki eta kolektibo gisa, esperientzia indibidualetik haratago hausnartzen jarri izana aurrerapauso handizat eta oso positiboki balioesten da.
- Errealitatearen argazki orokorrekin proposamen zehatzetarako pausoa eta lurreratze ariketa erreala egin dela balioetsi da.
- Gai honetan etorkizunari begira jartzeko aukera oso garrantzitsua izan da eta horretarako baliatu da. Proposamenak gazte boluntarioen egunerokoan nola aplikatu daitezkeen mahaigaineratu da gainera, hauen egoeran hobekuntzak lortzeki begira.

- Administrazio eta bestelako eragileekin dauden harremanak baliatu nahi dira aurrerantzean aldarrikapen eta neurri proposamen hauek aurkezteko edo gizarteratzeko.

3.7 Astialdiko Ikastaroen Kanpaina

Astialdiko ikastaroen eskaintzaren inguruko nondik norakoak gazteei helarazteko urtero bezala informazio kanpaina bat osatu da. Hau www.astialdiforooa.org webgunean argitaratu da gida interaktibo baten bitartez, bertan eskaintzen informazio espezifikoak jasotzeaz gain EAEko eskola bakoitzaren harremanetarako bideak eskaini dira klik baten bitartez aurkitu daitezkeenak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEko ikastaroen berri ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko ikastaroen eskaintza web atarian jasotzea.
- Elkartek eta astialdiko eskolak ezagutzera ematea.

Garapena

Formazio ikastaroen zabalpenaren kasuan, PDF euskarria baliatu izan da eskaintza zerrendak eskura eta argi izateari begira. EAE mailako taldeen erakusleihen izateko asmoz, PDF hauetan jasota egon dira antolatzaileak proposatutako eskaintza mota, hizkuntza, hartzaileek izan beharreko adina, astialdi taldearen kontaktu zuzena zein helbidea eta baita hauetan parte hartzeko epeen zehaztasunak ere. Informazio guztia agerian eta ahalik eta eskuragarrien ematea izan da lehentasuna. Zentzu honetan, harremanetarako bideak modu gardenean jaso eta zabaldu dira.

EAEko astialdi eskolek antolatzen dituzten begirale eta zuzendari ikastaroen zabalpena burutzeko, urtero bezala uztailan antolatzaileei hauen inguruko informazioa eskatu zaie, udako tartearen ondoren ikastaroen nondik norakoak partekatu eta jasotzeko utziz. Ondoren, irailean matrikulaziorako garaia hasiera baliatuz, astialdi-eskola eta federazioek antolatutako ikastaroak ezagutzera eman dira. [Proposamenen zerrenda](#) webgunean publikatuta aurki daiteke.



**Astialdiko begirale,
zuzendari edo dinamizatzaile
izan nahi duzu?**

Urteak daramatzate Euskadiko astialdi-eskolek formakuntzan lanean. Gure eskolak aspalditik ari dira begiraleak hezten, balore-hezkuntza sustatzen eta boluntariotzaren alde lan egiten.

**Ezagutu ezazu astialdi-ikastaroen eskaintza!
Hemen daude ikastaro berriak! Matrikula zaitez!**

Astialdi munduan EAEko taldeek egiten duten lana balioan jarri eta aukera zehatzak ezagutzera ematea izan da zabalpen guzti honen asmoa, EGKren baitan hezkuntza ez formala ardatzetako bat izanik, arlo honetan ematen diren aukerak ezagutzera emateak berebiziko garrantzia hartzen duelako.

Zabalpenek gainera, aurten ere hainbat gazteekiko zuzeneko aholkularitza edo aholkularitza pertsonala bideratu dute, eta horrekin batera Astialdi taldeen zabalpena edo proiektzioa eman da ere.

Ebaluazioa

- Formakuntza ikastaroei dagokienez, zenbait eskolek azken unera arte ez dituzte haien taldeak itxi eta beraz, honek ikastaroen gaineko xehetasunen zabalpena baldintzatu egin du, hauetako zenbaitek jasota gelditu ez direla eraginez. Datorren urtera begira, eskolekin batera zabalpen prozesua eta ibilbidea diseinatzen jarraitzea zein koordinatzea izango da asmoa eta horrekin gero eta ikastaro gehiagoren datuak jasotzea ahalbidetzea.
- Zabalpenerako hainbat gazteren aholkularitza egin da eta horrekin astialdian egiten den lanaren zabalpena bideratu da modu nabarmenago batean aurreko urtearekin alderatuz.
- Kasu honetan ere, eskaria eta eskaintzaren arteko informazio bidea dinamikoa eta pertsonala izatea lortu da eta honekin diseinatutako proposamenetara gazteak modu erraz batean heltzea edo bideratzea.

3.8 Udako Kanpaina

Udako Kanpaina astialdian boluntario gazteek antolatutako udako ekintzak ezagutzera ematea helburu duen kanpaina da. Bertan **Astaldi Foroetako** eragileez gain EAEko edozein astialdi taldeen ekintzen zabalpena burutzen da ahalik eta gida osatuena sortzeko.

Aurten ere udako eskaintza hau www.astialdiforooa.org webgunean jaso da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astaldi taldeek udan antolatzen dituzten ekintzak eta hauen eskaintzak jaso, antolatu eta gizarteratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarteak eta astialdiko eskolak ezagutzera ematea.

Garapena

Urtero bezala, udako ekintzen kasuan ere, EAEko Astialdi eskolek aurrera daramaten eskaintzaren zabalpena egin da. Zabalpen hau, EGK-ko sare sozialen bitartez eraman da aurrera: elkarteen helbide elektroniko sarea baliatuz eta mementoan aktiboki erabiltzen diren sare sozialen bitartez.

Udako ekintzen baitan, PDF euskarria baliatu izan da eskaintza zerrendak eskura eta argi izateari begira. Taldeen erakusleho izateko asmoz, PDF hauetan jasota egon dira antolatzaileek proposatutako eskaintza mota, hizkuntza, hartzaileek izan beharreko adina, astialdi taldearen kontaktu zuzena zein helbidea eta baita hauetan parte hartzeko epeen zehaztasunak ere. Informazio guztia agerian eta ahalik eta eskuragarrien ematea izan da, beraz, lehentasuna. Zentzu honetan, harremanetarako bideak modu gardenean jaso eta zabaldu dira.

Pasa den maiatzean 2019ko udari begira antolatutako ekintzen informazioa eskuratzeko galdetegi bat bidali zitzaion Astialdian aritzen diren EAEko taldeei. Geroztik, ekintza hauei ahalik eta oihartzun gehien emateko, [dokumentu batean](#) bildu ziren.

Hemen dago ikusgai 2019rako jaso den udako eskaintza guztia, xehetasunekin eta bereizitako ezaugarriekin biltzen duen zerrendan batuta eta herrialdeka ordenatuta:

- [Gipuzkoako ekintzak](#)
- [Arabako ekintzak](#)
- [Bizkaiko ekintzak](#)



Ebaluazioa

- Aurretik aipatutako baliabideak erabiliz, antolatzaileen eskaintza eta informazioa zabaltzea lortu da. Aldi berean, informazioa modu pertsonalagoan zabaltzeko bideak ere eskaini dira aholkularitzaren bitartez, informazio eske telefonoz eta baita emailaz ere galdetu izan duten pertsonen, behar zutena ezagutzeko zuzeneko kanalak eskainiz.
- Astialdi talde eta elkarte berriekin harremanak sortu dira eta honekin batera komunikazio kanal berriak, kanpaina honetan parte hartu izanaren bidez, EGKra hurbildu eta berau zer den ezagutzeko aukera eman duena, baita aurrera begirako proiektuetarako elkarlanerako aukerak handitu ere.
- 2019an aurrerapausoak eman dira eskaintza kopuruan, eta jasotako proposamenak aurreko urtekoekin alderatuta igo egin dira.
- Udako ekintzen kasuan, aurreko urtetik eskaini den plaza kopurua bikoiztu egin da, osotara 5.000 batuz EAEn.
- Zabalpenerako hainbat gazteren aholkularitza egin da eta horrekin astialdian egiten den lanaren zabalpena bideratu da modu nabarmenago batean aurreko urtearekin alderatuz.
- Eskaria eta eskaintzaren arteko informazio bidea dinamikoa eta pertsonala izatea lortu da eta honekin diseinatutako proposamenetara gazteak modu erraz batean heltzea edo bideratzea lortu da baita ere.

3.9. Astialdi Foroko webgunea (www.astialdiforooa.org)

Astialdi Foroko webgunea, astialdiko eragile, boluntario eta gazteen artean astialdiko gaien bilgunea eta tresna da. 2014ko irailetik martxan dago eta denbora tarte honetan zehar webgunearen kudeaketa eta hobekuntza lanak burutu izan dira ahalik eta informazio eguneratua ezagutzera emateko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdiaren arloko informazio eta proiektuen inguruko zabalpena indartzea eta gune erreferentea bilakatzea arloko gazte eta elkarten artean.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi elkarteak ezagutzera ematea.
- Astialdi Foroko eragileen lana jendarteratzea.
- Atari dinamiko eta erabilgarria izatea.

Garapena

Astialdiko erreferentziazko ekintzetan, udako ekintza eta astialdiko ikastaroen aholkularitza eta informazioa bideratzeko tresna baliagarria izan da honakoa. Urte batzuk daramatza Astialdi Foroko webguneak martxan eta emaitza onak jaso dira ibilbide honetan. Bestetik, gazteen zalantzak jasotzeko eta astialdiko edozein gairen gaineko informazioa hedatzeko baliabide erabilgarria izan da arloko eragileen artean, honek aholkularitza zuzena eta komunikazio kanal zuzenak eskaintzeko bideak eman dituelarik.

Zentzu honetan, aurten eman den aholkularitzarik handiena edo gehiena **Astialdi Foroko** webgunearen bidez deitu duten pertsonena izan da, besteak beste arlo honetan dabiltzan elkarten kontaktuak eskatzen edo hauen berri galdetzen.

Ebaluazioa

- Telefono aholkularitza zein zuzeneko harremana ahalbidetu izana oso positiboa izan da, Astialdi taldeen kontaktuak eskura izatea da gehien eskertu dena batez ere.
- Datorren urterako erronken artean edukien eta bisita kopuruak aurrera egiten jarraitzea izango da. Hurrengo urterako bisita kopuruak gaitzitzea izango da erronketako bat webgunean ahalik eta informazio gehien eguneratzearekin batera.

3.10. Atergune: Aterpetxe, landa eta kanpinen ataria

2016ko urte amaieran EAEko gazte eta gazte elkarten eskura dagoen aterpetxeen ataria sortu zen. Ordutik hona, atariaren hobekuntzarako lanak egitea izan da asmoa, bai bilatzaile bat txertatuz zein aterpetxeen kopurua handiagotuz, eta horrela, tresna hau erreferentziazko baliabide bilakatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

atergune.astialdiforaa.org atariaren bisita eta erabiltzaile kopuruaren jarraipena burutzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Aterguneren** kudeaketaz arduratzea.
- Espazio berriak txertatzea eta akatsak zuzentzea.

Garapena

Atariaren helburua gazteek zein astialdiko eragileek erabiltzeko dituzten espazioak atari bakarrean txertatzea da, eta baita ere bertako informazioa eguneratuta izatea.

Atergune bilatzailean dauden aterpetxe kopurua eta hauen bilaketak bere horretan mantendu dira aurreko urteetakoetatik abiatuz.

Ebaluazioa

Atariak aurretik zuen funtzioa mantendu du 2019an, aurrerantzean honakoa osatzen eta gorpuzten jarraitzeko asmoa dagoelarik, horiek ekintza zehatzetan egikarituz. Zentzu honetan, hurrengo urtera begira eguneratzeekin jarraitu eta ataria biribiltzeko moldaketak egin nahi dira.

Guzti horretarako, iragarpen ekintzak zehaztuko dira eta aldi berean espazioaren beraren erregistroa handitzen jarraitu nahi da.

3.11. Haziak Astialdira hezkidetzaz astialdian lantzeko gida

Proiektu hau berdintasun teknikariarekin elkarlanean egin da. Memoriako atal horretan, zehazki [6.9. puntuari](#) azaldu da sakonago.

3.12. Droga-mendekotasun Formakuntza



Gazte eta nerabeekin adikzioen prebentziorako tresnak landu dira aurten, astialdi munduko taldeek gai honekiko duten beharra eta premia abiapuntua izanik. Gaiaren baitan, prebentzioa lantzen duten hainbat elkarterekin egin da harremana urte honetan eta horretatik abiatuta jardunaldi batzuk ere antolatu dira. Ekitaldi horren bitartez, gai honi buruz dagoen informazioa

gizarteratu eta astialdiko taldeen eskura jarri nahi izan da, baita adikzioen prebentzioaren inguruan diharduten espazio eta entitateei ikusgarritasuna eman ere.

Ilido horretatik, oso garrantzitsua izan da begirale eta hezitzaileen beharrak identifikatzea lehendabizi, gero horri erantzuna edo bide emateko. Gazteak gai honekiko sentsibilizazio maila bat lortzea ere izan da urte honetan eman den eginkizunetako bat eta horrekin batera, praktika egokien inguruan informatzea oso presente egon da ibilbide guzti honetan.

Gainera, egunerokoari begira jarri eta prebentziorako dauden tresna eta materialak lehen eskutik ezagutu dituzte taldeek, aurrerago jarduteko bide eta aukerak aztertzeke asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gai honen inguruan dagoen informazioa sozializatzea eta taldeen eskura jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Prebentziorako dauden tresna desberdinak, programak eta materialak identifikatzea eta aurkeztea.
- Gazte eta nerabeekin jarduteko bideak eta dauden aukerak identifikatzea.
- Nerabe eta gazteekin lanean diharduten begirale eta hezitzaile gazteak sentsibilizatzea eta praktika egokien inguruan informatzea.
- Drogen prebentzioan lanean diharduten espazio eta entitateen ikusgarritasuna indartzea.

Garapena

Jardunaldiaren antolaketa:

Lan hau aurrera eramateko, lehendabiziko pausua elkarteekin bilerak egitea izan da. Talde hauekin izan dira bilerak: Asajer, Ortzadar, Etorkintza, Gizakia, eta Ai Laket.

Honi jarraiki, informazio bilketa bat burutu da eta Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin sortutako proiektua bat izanik, gai hau sozializatzeko eta berau elkarreetara iristeko bideak zeintzuk izan zitezkeen pentsatu zen. Orduan, irismen hau gauzatzeko topaketa

edo jardunaldi bat egitea pentsatu zen, non elkarte eta entitateekin izandako informazio bilketako bileretan agertutako premiak landuko ziren.

Egun osoko jardunaldi honetan astialdiko taldeekin elkarlanean aritzea izan da asmoa.

Jardunaldiaren edukia:

Lehenik, zenbait ponentzia eta hitzartzeren bitartez diagnosia egin da, baita egun dauden proiektuen eta tresnen aurkezpena ere geroago. Horretarako, Osasun Publikoko eta Adikzioetako Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila) osatutako mahai-ingurua prestatu da. Ostean, elkarteek lana aurkezteko, hauek izan dira proiektuen aurkezpenak egiteko parte hartu duten taldeak edo hizlariak:

- Etorkintza
- Fundación Gizakia
- Ortzadar
- Ai Laket

Gainera, gero taldeen errealitateetara jo da, talde dinamiken bitartez maila praktikoa nola aplikatu aztertzeke. Ariketa dinamikoen bidez goizean ateratako ideia eta jasotako baliabide sortetatik abiatuta, informazio eta material guzti hori praktikara nola eraman hausnartu eta partekatu da.

Erronka desberdinak identifikatzen saiatu da bizipenetatik abiatuz, hiru galdera nagusiri erantzunda: Nola garatu? Non garatu? Norekin garatu? Atal honetan, elkarteek aukera eta zailtasunetan zentratu da jardunaldia, lanketa hori nola egin partekatzeko: aurrera begira, baliagarriak izan daitezkeen urratsetan sakonduz zein etorkizuneko erronkak identifikatuz eta hauei erreparatuz.

Ebaluazioa

- Prebentziorako tresnak aurkeztea lortu da eta zentzu honetan, adikzioen gaia jorratzeko tresna eta bide berriak jarri dira mahai gainean eta elkarteek eskura.
- Gazte eta nerabeekin lanean ari diren eragileekin eta hauen errealitatearekin kontraste ariketa bat egin da eta hau errealitate desberdinak ezagutzeko oso baliagarria da EGKrentzat.

- Gai honekiko eragileen aldetik dauden erronkei eta errealitateei ahalik eta erantzun egokiena nola eman hausnartu da eta hausnarketa hori tresna konkretuekin nola bideratu komentatu da ere.

3.13. Administrazioekin koordinatu

Eguneroko gaiek eskatuta administrazioekin koordinazio lanak burutu dira: lan-saio eta bilerak, telefono deiak... Hezkuntza arloari dagokionez, Eusko Jaurlaritza eta EAEko aldundiak izan dira hartzaileak batez ere, baina baita Eskola Kontseilua ere adibidez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Administrazioekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratzea eta hau aurrera doala bermatzea.

Garapena

Urtero bezala, hezkuntzako lan-arlotik, administrazio desberdinekin egon da hartu-eman. Proiektu desberdinen jarraipenatarako eta oro har, elkarlanerako urratsak egiten jarraitu da beraz zentzu honetan. Gainera, hau guztia bideratzerako orduan etengabeko komunikazio bide edo kanal zuzenak baliatu izan dira: bilerak, telefono deiak eta abar.

Hezkuntza lan-arloa, aurten, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin zuzenean egon da proiektu desberdin batzuen gaineko harremanean batez ere, horretarako bilerak eginez.

Ebaluazioa

- Administrazio desberdinekin izandako hartu-eman bideek, proiektuek aurrera jarraitzea ahalbidetu eta hauen gaineko ikuspegi desberdinak partekatzeko aukera eman dute, baita hauei EGKtik gazteen iritzi eta ahotsak helarazi eta hauek partekatzeko tokia

izatea ere eskaini du. Hau horrela, iritzi eta behar horiek administrazioarengana eramaten jarraitzea izango da aurrera begirako ekinbidea ere, hauei garrantzia eman eta behar duten tokia zein espazioa aldarrikatuz administrazioen baitan.

3.14. Egunerokotasuna

Arlo bakoitzaren lan zehatzez gain, teknikari bakoitzak egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar du egunero: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, mezu elektronikoak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarritzko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

Garapena

Egunerokotasunean aurreikusitako proiektuak aurrera eramateaz gain beste hainbeste funtzio eta ekimen burutu behar dira. Hauek laburpena hurrengo lerroetan dago jasota:

- 2019ko plangintza
- 2019ko memoria
- Bulegoetako aholkularitza
- Lantalde teknikoaren koordinazioan lagundu: erreleboak, bajak...
- Barne formakuntza ikastaroak: komunikazio harreman eta estrategiak hobetzeko eta berdintasunaren gaineko oinarritzko kontzeptuak bereganatzeko
- Ezohiko koordinazio bilerak: bai instituzio, lantalde tekniko, Batzorde Iraunkorra edo bestelako eragileekin

Ebaluazioa

- EGK-ko talde guztiak egoera guztiei aurre egiteko lanak bete ditu eta urtero bezala gauzak aurrera atera.

4. Parte-hartzea

4.1. EGK Sendotzen

EGK Sendotzen bezalako proiektu baten beharra, 2017an identifikatu zen Batzorde Iraunkorrak zein Lantalde Teknikoak buruturiko hausnarketa partekatu baten ostean.

Batzorde Iraunkorra zein Lantalde Teknikoaren arabera, EGK-k kontseilu bezala indartzeko bere barruan dituen eragileekin harremanak sendotzea ezinbesteko du. Hori gutxi ez eta EGKtik at dauden gazte eragile desberdinekin elkarlana sustatzeko ere erabili nahi da **EGK Sendotzen**.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren barneko elkarten egungo errealitatea aztertzea eta berauekin harremanak sakontzea eta elkarlana sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren barneko lantalde desberdinak indartzea.
- EGKren barneko elkarteekin harreman eta kontaktua gaurkotzea.
- Elkarte berriak erakartzea EGKn sartu daitezen.
- EGKren sozializazioan sakontzea. EGKren barruan ez dauden gazte elkarte berrieekin harreman sareak sortzea eta elkarlanerako bideak ireki.

Garapena

Elkarteekin harremanak sortu edo sakontzeko aurrez aurreko bilerak egitea izan da betebeharr nagusietako bat. Ardura nagusia parte-hartze teknikariarena izan bada ere, prozesu osoan presidentzia zein beste teknikariek gero eta elkarte gehiagorekin bildu eta harremanetan sakontzen lagundu dute. Honek lana azkarrago eta eraginkortasun handiagoarekin burutzea ahalbidetu duelarik.

Batetik, EGKren barneko elkarteekin bildu eta berauen errealitateaz hitz egiteaz gain, harreman sareak gaurkotzeko burutu dira bilerak. Horretaz gain formula berbera erabilita, EGK-k inoiz harremanik izan ez duen eragileekin ere bilerak burutzeko erabili da **EGK Sendotzen** proiektua. Jarraian urte osoan zehar **EGK Sendotzenen** barruan buruturiko bilera eta harremanen informazioa zehazten da.

EGKren barnean dauden elkarteekin buruturiko bilerak:

- Martxoak 6: Euskarabentura.
- Martxoak 14: LAB
- Apirilak 10: Kristobal Deuna Arabako Eskaut Laikoa.
- Apirilak 10: Euskal Herriko Eskautak Araba.
- Apirilak 17: Gurutze Gorria Gazteak.
- Maiatzak 8: Urkide Eskola / Urkide Eskola-Ur kideak eskaut taldea.
- Maiatzak 14: ELA
- Maiatzak 17: Aratz Gia Elkartea.
- Ekainak 6: Arduradun Eskola.
- Ekainak 6: EHNE Gazteak.
- Ekaina 28: Ernai.
- Urriak 1: Urtxintxa eskola.
- Urriak 1: EGL.
- Urriak 4: Atzegi.
- Urriak 10: Euskal Herriko Eskautak Bizkaia.
- Urriak 14: Euskal Gorrak.
- Urriak 10: Larrunarri elkarte.
- Urriak 23: Gaztetxoak Gipuzkoa.
- Urriak 21: JOC Euskadi.
- Azaroak 8: Itaka Escolapios

- Azaroak 22: LSB-USO Gazteak
- Azaroak 29: Kale-Dor-Kayiko
- Urriak 10: Larrunarri elkarteak

EGK-koak ez diren elkarteekin buruturiko bilerak:

- Otsailak 7: Naizen elkarteak
- Martxoak 8: Sos racismo
- Apirilak 4: Emigrados Sin Fronteras
- Apirilak 9: Jatorkin Al-Nhada
- Apirilak 15: Eusko Ikaskuntza
- Apirilak 29: Mugarik Gabeko Ingeniaritza Euskal Herria
- Maiatzak 8: Urkide Eskola / Skaut taldea
- Maiatzak 13: Kaleratzeak Stop Donostiako eragilearekin
- Maiatzak 21: Batekin
- Maiatzak 28: Kaleratzeak Stop Gasteizko eragilearekin
- Maiatzak 30: Kuvu
- Ekainak 11: Ecuador etxea
- Ekainak 14: Alboan
- Ekainak 21: Unesco etxea
- Ekainak 24: EHUko Ikasle Kontseilua
- Uztailak 16: Geu elkarteak
- Irailak 25: Euskadiko GGKE Kordinakundea
- Urriak 9: Amuge elkarteak

Prozesuak oraindik aurrera jarraitzen du, agenda kontuak direla medio 2020. urte hasieran zehaztu dira EGK-ko elkarte batzuekin bilerak. Urte hasierarekin batera zehaztuak dauden gazte

eragile berri batzuekin naiz EGKren barnean dauden beste elkarte guztiekin bildu ostean, bilera errondari amaiera eman nahi zaio balorazio orokor bat eginez.

Ebaluazioa

- Garapenean aipatu moduan, asmoa 2020. urtean proiektuarekin jarraitzea da. Denboraren faktorea alde batera utzita, EGK-k gaur-gaurkoz, proiektuaren inguruan egiten duen irakurketa positiboa da. **EGK Sendotzenen** bidez, EGK-ko eragile askoren egungo errealitatea hobeto ezagutzea lortu da eta berauekin arteko harremanen sendotze bat ere gertatu da.
- Bilera guztiak egin ostean balorazio orokor bat egingo da. Elkarteen lehentasunak zehaztuz eta EGKren eskaintza fınduz, finean entitateekin harremana sendotu asmoz eta EGKren zabalpenean eta ikusgarritasunean sakonduz.
- Gazteriaren alde lanean diharduten espazio desberdinetako elkarrekin ere elkarlanerako bideak irekitzea lortu da. Amuge elkarrearekin emakume ijitoen errealitatea hobeto ezagutzea lortu da. Sindikatuarekin gazte bezala ditugun erronken aurrean jarduteko elkarlanerako bideak ireki dira. Bestetik Hezkuntza arloko eragile desberdinekin ere elkarlanerako bideak ireki dira, hezkuntza formalean zein ez formalean EAEko gazteriak dituen erronkak aztertuz.

4.2. Aholkularitza

4.2.1. GAZTE ERAGILEEI AHOLKULARITZA ETA PARTE-HARTZEAREN SUSTAPENA:

Aholkularitzan bi atal nagusi desberdindu daitezke: lehenik gazte eragileei aholkularitza eta parte-hartzearen sustapena; eta bigarrenik, EGKren kide izateko aholkularitza. Lehenengoari dagokionez, 2019an gazte zein gazte elkarte ezberdinei aholkularitza eskaini zaie. Ekimen eraginkorra izateaz gain, gazteei aholkularitza emateko gaitasunak zentzu praktikoa eta ulergarriagoa ematen dio EGK bezalako erakunde bati. Lan hau gauzatzeko lan-arlo guztiak inplikatu dira.

Gainera, parte-hartze lan-arlotik parte-hartzearen inguruko galderak eta berau sustatzeko asmotan zebiltzan zenbait elkartek laguntza eskatu ostean, hauekin bildu eta aholkularitza lana egin da.

EGKren kide izan nahi duten elkarteei emandako aholkularitzan, parte-hartze arloko funtzioetako bat gazteen elkarteei EGKn sartzeko aukera helaraztea da.

Elkarteentzat kide izateko bi modu daude: Eskubide osoko kide izatea edota kide sogilea izatea. Eskubide osoko kide diren hauek, Batzorde Iraunkorreko kide izan eta Batzar Orokorrean hitz egin eta bozkatzeko eskubidea dute. Sogileen kasuan, Batzarrera joan eta hitz egin dezakete baina ezin dute bozkatu ezta Iraunkorraren parte izan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Parte-hartzearen arloan edo beste gai baten inguruan gazte elkarte edo norbanako bakoitzak izan ditzakeen galdera edo eskaeren inguruan aholkularitza lana egitea eta ahalik eta eragile gehien EGKra hurbiltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte zein eragileek parte-hartze arloaren inguruan dituzten galdera zehatzen inguruan aholkatzea.
- Gazte zein eragileek antolatu nahi dituzten ekimen edo hitzaldietako parte-hartze dinamika edo hauen dinamizazioan laguntzea.
- Parte-hartzearen garrantzia gazteen artean sozializatzea.
- EGK arlo desberdinetako gazte elkarteetara zabaltzea.
- EGKren lana zabaltzea eta elkarten arteko harremanak indartzen laguntzea.

Garapena

EAE n hainbat gazte elkarte eta gazte eragileek EGK-ko lantaldearen aholkularitza jaso dute. Gai desberdinen gaineko informazioa eskuratu dute honi esker, besteak beste, astialdia, enplegua, berdintasuna, etxebizitza eta parte-hartzea.

Gazteek EGKra jotzen dute hainbat zalantzekin. Zalantza batzuk, betiko zerbitzuen gainekoak dira, hala nola, astialdiko ikastaro eta udako ekintzen gainekoak edo EGK-k buruturiko lan eskaintzen ingurukoak. Beste batzuk ordea, EGK-k lantzen dituen gai berriei dagokie. Zentzu honetan, azpimarratzekoa izan da adingabekoezin lan egiteko aurrerapen penalen ziurtagiria edo natura sexualeko delituen ziurtagiriaren inguruan informazioa eskatu dutenen kopurua.

Guztira EGK-k hiru bulegoetan 132 eragile zein norbanakori eskaini die aholkularitza zerbitzua teknikari desberdinen bidez. 2019. urtean, pasa den urtean baino 77 aholkularitza zerbitzu gehiago burutu dira. Azpimarratu beharra dago gainera zerbitzuen igoera hiru herrialde historikoetan eman dela. Esan daiteke hiru lurralde historikoetako gazte elkarten artean gero eta ezagunagoa dela EGK. Parte-hartzearen arloan laguntza eskatu duten elkarte edo norbanakoek batez ere parte-hartzea jardura bezala nola finkatu edo parte-hartze dinamika berrien bidez gazteak beraiein elkarteetara edo ekintzetara nola erakarri galdetzeko jarri dira EGKrekin harremanetan.

Eragileekin buruturiko aholkularitza nagusiak:

- Urkide eskolarekin maiatzetik urrira bitartean, eskolak dituen baloreetan oinarrituriko eskaut taldea sortzeko prozesuan bide lagun izatea. Entitatea sortzeko legedia aztertu, administrazioarekin egin beharreko kudeaketetan lagundu eta azkenik, taldea martxan jartzeko prozesu horretan monitore eta boluntario gazteen bilaketa eta aukeraketa prozesuan lagundu du EGK-k.
- Urrian, Amuge elkartearekin, beraiein eskaeraren ostean EGKn sartzeko aukeren inguruko aholkularitza eskaini. Bertan estatutuak, legedia eta bete beharreko ezaugarrien inguruan informatu.
- Euskarabentura espedizioarekin azarotik abendura bitartean, espedizioaren eta beronen

aseguruen inguruko zenbait berme finkatzeko eta legearen aurrean gauzak zehazteko profesional zein teknikari desberdinekin batera aukera desberdinak aztertu.

EGK-k eragile bezala parte hartu duen jardunaldiak parte-hartze arloan:

- Urte osoan zehar, EGK-k zenbait ekarpen egin ditu, Eusko Jaurlaritzak sustaturiko OGP Gobernu Irekia proiektuaren barneko talde motorrean egonik. Presidentzia eta parte-hartze arlotik, parte-hartzearen inguruko ekarpen desberdinak egin dira jardunaldi desberdinetan.
- Urte osoan zehar, Deustoko Unibertsitatearen Katedrak sustatutako #GazteGO proiektuan ere parte hartu du EGK-k. Proiektu hau martxan jarri den lehen hiria Gasteiz izan da. Prozesuaren hasieratik, EGK-k aktiboki parte hartu du talde motorrean, Gasteizko Udala, Vital Fundazioa eta Deustoko unibertsitatearekin batera, helburu nagusi batekin, prozesuan zein proiektuan gazte perspektiba txertatzea.
- Urte osoan zehar, Gasteizko gazte politikak lantzeko Gasteizko Udalak duen Gazte Elkargunean parte hartu du aktiboki EGK-k. Bertan Gasteizeko gazte politiken inguruko hainbat ekarpen eta hausnarketa burutu ditu EGK-k Gasteizko beste zenbait elkarte, gazte eragile, alderdi politikoetako ordezkari eta udal teknikariekin.
- Bilerak egun hauetan burutu ziren Landatxo Gizarte Etxean:
 - Martxoak 6
 - Irailak 13
 - Azaroak 19
- Urtarrilak 23 eta otsailak 8: Bilboko Bolunta espazioan eragile desberdinen artean boluntariotza sustatzeko topaketetan parte hartu zuen EGK-k. Gazteen artean boluntariotza sustatu eta hori egiteko arlo desberdinetan eman beharreko pausoez hausnartzeko.
- Otsailak 27 eta martxoak 20: Bilboko Udalak boluntariotza europarra nola sustatu aztertzeko topaketetan parte hartu zuen EGK-k. Mota honetako boluntariotza garatzeko bidean ekarpen zehatz batzuk eginez.
- Maiatzak 17: Gasteizko Udalak antolatuta, hiriko gazteek pairatzen duten prekaritatearen inguruko topaketan parte hartu zuen EGK-k. Bertan Gasteizko egoera aztertzeaz gain,

EGKren diskurtso eta perspektibatik prekaritateari aurre egiteko hainbat proposamen eta ekarpen egin ziren zenbait lantaldeetan.

- Uztailak 3: LSB-USO Gazteria-k antolatutako udako eskoletan parte hartu zuen EGK-k gonbidatu moduan. Bertan EGK-k Kontseiluan parte-hartzea sustatzeko dauden mekanismoen inguruko hitzaldi bat eman zuen.
- Urriak 17: EGK-k Irekia Plataforma interaktiboa berritzeko Lehendakartzako Gobernu Irekiko zuzendaritzak sustaturiko Irekia ERAIKI jardunaldian parte hartu zuen EGK-k. Arlo honetan Espainiar Estatuko praktika egoki batzuen inguruan hausnartu eta prozesuaren etorkizuneko pausoak finkatzeko ekarpenak egin ziren.
- Urriak 15: RASDren Arabako lagunen elkarteak Saharar herriak bizi duen egoeraren inguruko jardunaldi bat antolatu zuen, bertan Sahararen alde ekimen edo proiektu ezberdinak egiten dituzten Euskadiko elkarteek beraien proiektuak eta esperientzia azaltzeko aukera izan zuten. EGKtik pasa den urtean Saharako kanpamentuetan aurrera eramandako formakuntza proiektuaren inguruko azalpena eman zitzaizen topaketara bertaratu ziren gazteei.
- Azaroak 27: Gurutze Gorria Gazteak-ek antolatutako jardunaldietan parte hartu zuen EGK-k. Gazteek parte hartzeko dituzten joera eta moduen inguruan hausnartu zuten topaketan, eta zentzu horretan EGK-k parte hartzea sustatzeko dituen espazio zein aukeren gaineko informazioa helarazi zitzaizen bertaraturako gazteei.
- Irailatik abendura bitartean: Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenaren harira pasaden urtean martxan jarritako gazte dinamikari jarraiki, EGK-k, Eusko Ikaskuntza, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua eta Iparraldeko gazteekin batera **Gazte Agora** proiektua sortu du. Gazteek egun bizi duten egoera hobetzeko asmoz, beharrak identifikatu eta berauei erantzunak emateko espazioak sortuz. Hau guztia mugaz gaindiko lankidetzaren ardatz



izanik. Bide horretan proiektuaren lehen topaketa Donostian burutu da abenduaren 14an.

Ebaluazioa

- Pasaden urteko inertiari jarraiki, jasotako aholkularitza guztien ondoren esan daiteke EGKren lana ezaguna dela eta zenbait gaitan erreferente bihurtzen ari dela. Gizarteko eragile desberdin, teknikari, zein norbanakoek jo dute EGKrengana. Bestetik, EGKren lana gazteak ez direnengana ere gero eta gehiago iristen da, gero eta arlo gehiagotan EGKren presentzia garrantzia hartzen ari delarik.

4.2.1 EGK-REN KIDE IZATEKO AHOLKULARITZA

Parte-hartze teknikariaren funtzioetako bat gazteen elkarteei EGKn sartzeko aukera helaraztea da. Horretarako bi bide daude, elkarteak eskaera egitea edota EGK-k elkartearen garrantzia identifikatu eta gero, EGKn sartzeko eskaintza egitea.

Elkarteei begira kide izateko bi modu daude: Eskubide osoko kide izatea edota kide sogilea izatea. Eskubide osoko kidea den elkarteak, Batzorde Iraunkorreko kide izateko eskubidea dauka baita Batzar Orokorrean hitz egin eta bozkatzeko eskubidea. Sogilearen kasuan, Batzarrera joan eta hitz egin dezake baina ezin du bozkatu ezta Iraunkorraren parte izan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ahalik eta eragile gehien erakartzea EGKra eta horrekin EGK gero eta anitzagoa eta eraginkorragoa bihurtzea euskal gazteriaren erronkei erantzuteko tresna bezala.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK arlo desberdinetako gazte elkarteetara zabaltzea.
- EGKren lana zabaltzea eta elkarteen arteko harremanak indartzen laguntzea.

Garapena

EGKn aholkularitza jaso eta gero kide diren elkarten zerrenda [webgunean dago](#). 2019an EGKn sartzeko aholkularitza jaso duten elkarteak hurrengoak dira:

- Urkide Eskola-Ur kideak eskatu taldea.
- Amuge elkarte.
- Naizen elkarte.

Ebaluazioa

- Aholkularitza jaso duten elkarte guztiekin elkarlanerako bideak ireki dira, tartean horietako batzuek EGK-ko lan talde desberdinetan parte hartzeko asmoa azaldu dute. Urkide eskolaren kasuan bere eskaut taldeak EGKn sartzeko asmoa adierazi du.
- Orain erronka kudeaketa administratiboak ahal bezain azkarren egitea izango da, 2020ko martxoan ospatuko den Batzar Orokorrean kide berri baten sarrera onartu eta ospatu dadin.

4.3. Hitzartzen: Emakume politikariak hitza hartzen

Proiektu hau berdintasun teknikariarekin elkarlanean egin da. Memoriako atal horretan, zehazki [6.6. puntuan](#) azaldu da sakonago.

4.4. Gizarte Aldaketarako Herritartasuna

Alboan gobernu kanpoko erakundearekin elkarlanean EGK-k Deustuko Unibertsitateko Gizarte Aldaketarako Herritartasuna irakasgaian laguntzaile moduan parte hartu du. Deustuko Unibertsitatean irakasten den 'Gizarte aldaketarako herritartasuna' izeneko irakasgaiak gazteak herritar bezala heztea du helburu.

Deustuko Unibertsitateko Fakultate guztietako ikasleek aukeratu dezakete irakasgai hau bigarren lauhilekoan (otsaila-maiatza). Irakasgaian izen emandako gazte talde bat aholkatzea izan da EGKren lana.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko ikasle talde bat aholkatzea herritarren parte-hartzearen inguruko eragin plan txiki baten diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.
- Parte-hartzearen garrantzia ikasleei helaraztea.
- EGKren sozializazioan laguntzea.

Garapena

Irakasgaia gainditzeko eragin plan bat diseinatu eta burutu behar dute talde guztiek. Aurtengo taldeak intzidentzia plan hori egitea baino EGK-ko proiektu bat aukeratu eta berau aztertzeaz gain bertan parte hartzea erabaki du. Aukeratutako proiektua EGK-ko berdintasun arloak burutako **#BazterretikErdira** zineforumaren proiektua izan da.

Proiektuaren egituratzea eta prozesua:

- Otsailak 21: Ikasleak eta parte-hartze teknikaria EGKren Bilboko bulegoan bildu ziren elkar ezagutu eta lanerako agenda bat zehazteko. Biler horretan, taldeak **#BazterretikErdira** zineforuma aztertzea eta bertan parte hartzea erabaki zen.
- Martxoak 21: Ikasleek proiektuaren berri izateko parte-hartze eta berdintasun teknikariarekin bildu zen taldea, proiektua nola aztertu eta beraien ekarpena zein parte-hartzea nola egin erabakitzeko. Bertan erabaki zen, burutuko ziren zineforumaren lehen eta bigarren emanaldien egituraketan eta antolaketarekin berdintasun arloko teknikaria

laguntzea. Emanaldi hauetan igorriko ziren filmak ikusi eta berauen inguruko hausnarketarekin hasiaz.

- Apirilak 4: Parte-hartze eta berdintasun teknikariarekin bildu zen taldea, filmeen edukien inguruko hausnarketak elkarbanatu ostean. Berdintasun teknikariak zineforumean egin beharreko dinamika, galderen egituraketa eta beste hainbat betebeharrak zehaztu zituen ikasle taldearekin.
- Apirilak 30: Emanaldiaren eguna, Bilboko Kubrick espazioan, *Bar Bahar* pelikula proiektatu zen eta berdintasun teknikariari osteko eztabaida eta dinamikak bideratzen lagundu zion ikasle taldeak.
- Maiatza: Ikasle taldeak berdintasun teknikariarekin batera elkarlanean buruturiko proiektuaren inguruko laburpen txostena EGKra igorri zuen. Txostenari egindako ekarpenak ikasle taldearekin elkarbanatu ostean, lanaren ebaluazioa egin zen, azkenik Deustoko Unibertsitateko bidaltzeko.

Ebaluazioa

- EGK-k gazteen parte-hartzean eta hauen motibazioetan sakontzeko aukera berriak identifikatzea lortu du, hau ikasleekin elkarlanean lortu delarik. Esperientzia oso aberasgarria izan da. Bestalde, Deustoko Unibertsitateko gazteen artean EGK eta beronen lana ezagutarazteko aukera ere baliatu da.

4.5. Eragin #Plazandre

Proiektu hau berdintasun arloarekin elkarlanean egin da. Memoriako atal horretan, zehazki [6.7. puntuan](#) azaldu da sakonago.

4.6. Droga-mendekotasuna topaketa

Proiektu hau hezkuntza arloarekin egin da. Memoriako atal horretan, zehazki [3.12. puntuan](#) azaldu da sakonago.

4.7. #BilboZaintzen galdetegia

EGK-k Bilboko Udalarekin batera, Bilboko gazteen aisialdi ereduaren inguruan hausnartu nahi izan du **#BilboZaintzen** galdetegiaren bidez.

Aisialdi eredu jasangarriago bat eraikitzeko bidean gazteen iritzia jasotzea ezinbestekoa dela ulertuta burutu du EGK-k proiektu hau Bilboko Udalarekin elkarlanean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bilboko aisialdi ereduaren, batez ere gauekoa, gazteen iritzia bildu eta praktika desagokiak gutxiagotzeko proposamenak identifikatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko gazteriaren bozgorailua izatea.
- Administrazioa eta gazteriaren arteko zubi lana egitea.
- Bilboko gazteriaren aisialdi ohitura eta praktiken inguruan hausnartzea.

Garapena

2018. urtean Bilboko Udaletik zein EGKtik gazteen aisialdiaren inguruan, batez ere gauekoa, hausnartzen jarraitzeko beharra identifikatu zen. Egoeraz hausnartu eta soluzio posibleak identifikatzeko asmoarekin sortu du EGK-k **#BilboZaintzen** galdetegia.

Esan bezala galdetegia azaroaren 20an egin zen publiko eta urtarilaren 25 bitartean Bilboko edo Bilbon bere aisialdiaz disfrutatzen duen gazte orok izan zuen galdetegia betetzeko aukera.

Guztira 140 gaztek bete zuten galdetegia, %47,9 gizonak, %51,4 emakumeak eta %0,4 genero ez bitarrarekin identifikatzen direnak.

Galdetegiaren bidez, Bilbon bere aisialdiaz disfrutatzen duten gazteek gaueko aisialdiarekin loturiko arazo nagusiak identifikatzea lortu zen eta baita berauek konpontzeko iradokitako hainbat ekarpen biltzea ere. Arazo zein ekarpenen inguruko datuekin, emaitzen txosten bat egin zuen EGK-k eta datu hauek Bilboko Udalera helarazi ziren. Gazteen iritzi zein ekarpenak bilduta Bilboko Udalak datuak aztertzeari ekin zion, gaueko aisia hobekuntzak ezartzeko bidean neurri zehatzak planteatu eta gazteekin elkarlanean aukera desberdinak eraikitzeko.

Ebaluazioa

- EGK-k oso positiboki balioesten du, Bilboko Udalak gazteriarekin zerikusia duten gai eta proiektuetan EGK parte aktibo gisa aritzeko bidea zabaltzea.
- EGK-k gaueko aisia azertu eta hobekuntzak txertatzeko positiboki balioesten du gazteen iritzian kontuan hartu izana.
- Bestalde, oso positiboki balioesten du EGK-k, oraingoz, gazteen aldetik izaten ari den parte-hartzea. Parte-hartze hau gainera datuetan islatu den moduan oso parekidea da.

4.8. Euskadiko Gazteak Lankidetzan



EGK-k Euskadiko gazteen parte-hartzea sustatzeaz gain, Euskadiko gazteriaren artean elkartasun balioak sustatzen dihardu bere sorreratik. **Euskadiko Gazteak Lankidetzan**

‘Euskadiko Gazteak Lankidetzan’ (EGL) programaren egikaritzean eta sustapenean parte hartu du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGL-ren deialdian parte hartu duten gazteen hautaketa egitea eta horiei txirotasun egoeran aurkitzen diren herrialdeetan lankidetzara lana burutu ahal izateko behar duten informazioa ematea. Kooperazio proiektuak burutu ostean, esperientziaren ebaluazioan parte hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesgarriak izan daitezkeenekin harremanak hastea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.

Garapena

1993an sortu zenetik, Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen **Euskadiko Gazteak Lankidetzan** programak 2.000 euskal gaztetik gora bidali ditu munduko zenbait tokitara borondatezko lankidetzara lanak egitera. Aurten ere EGK-k EGLko Hautaketa Batzordean parte hartu du. 2018an EGK egon zen aukeraketa epaimahaian.



Hautaketa prozesua:

-Otsailaren 28an bildu zen EGLren Hautaketa Batzordea Eusko Jaurlaritzak Lakuan duen egoitzan. Bertan hasierako 600 hautagaietatik 250 inguru aukeratu ziren.

-Martxoaren 15, 16 eta 17an Hautaketa Batzordea Barriako aterpetxean bildu zen. Asteburu osoan zehar gazteekin egin beharreko parte-hartze dinamika desberdinak antolatzen lagundu zuen EGK-ko parte-hartze teknikariak, hautagaien jakintza eta gaitasunetan sakontze aldera.

-Martxoaren 30 eta 31ean bildu zen Hautaketa Batzordea berriz ere Barriako aterpetxean. Hautatutako gazteei informazioa helarazi zitzaion. Proiektuaren inguruan sakontzeko zenbait hizlari ere bertaratu ziren. Berriz ere parte-hartze dinamika desberdinak egiten lagundu zuen parte-hartze teknikariak. Barriara gerturatutakoetatik 100 gazte inguru aukeratu zituen hautaketa batzordeak. Asteburuaren amaieran aukeratutako gazteek arduradun guztiekin hitz egiteko aukera izan zuten, eta ostean zehazki zein proiektutan parte hartuko zuten jakinarazi zitzaion.

Ebaluazioa

- Urriaren 26 eta 27an egin ziren aurtengo **Euskadiko Gazteak Lankidetzan** programaren ebaluazioa jardunaldiak Barriako aterpetxean. Batetik gazteek bizitako esperientziaren inguruan hausnartzeko dinamika eta hizketaldiak dinamizatzeko aukera izan zuen EGK-ko parte-hartze teknikariak.
- Bestetik, Hautaketa Batzordeko arduradunekin, programa eta urte osoko prozesua bera osotasunean ebaluatzeko astia ere egon zen, eta bertan EGK-k gazte eragile bezala bere ekarpenak egin zituen. Esan beharra dago baita ere, EGK-k oso positiboki balioesten duela Hautaketa Batzordeko zenbait arduradunek parte-hartze teknikariak hurrengo urtean ere proiektu honetan parte hartzeko egindako gonbita.

4.9. Open Government Partnership (OGP) Euskadi

Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta hiru hiriburuetakoko udalek proiektu berri baten parte izatea erabaki zuten. OGPrako aurkeztu eta hautatuak izan ziren. Proiektu hau aurrera eramateko foro ezberdinak sortu behar zituzten eta horietako bat Foro Erregularra izan zen. Foro horretan hiru administrazio mailetakoko ordezkariak zeuden eta baita gizarte zibilak aukeratutako ordezkariak ere. Azken hauen papera, gizartearen interesak zein beharrak defendatzea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eragin politikoa izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen iritzia erabaki guneeetara hurbiltzea.
- Gazteen ikuspuntua txertatzea.
- Egungo parte-hartzearen inguruan gazteek duten ikuspegia txertatzea.

Garapena

2018. urtean OGP-aren Foro Erregularrean (EGK-k bertan parte hartzen du) eta beronek sustatuko zenbait espaziotan zehaztutako konpromiso desberdinak betetzeko plana garatu zen. OGP-ak, berau administrazio zein udaletan martxan jartzeko bidean zenbait ekinbide burutu ditu.

Parte-hartze arlotik OGP-ak antolatutako bileretan egindakoaren informazioa:

Irailak 11: Bilbon buruturiko bileran, Lehendakariak Gobernu Irekiko Zuzendariak, orain arte OGP-ak egindako ibilbidea laburbildu ostean, foro desberdinetan hartutako erabakietatik egikaritutako ekintza plana aurkeztu zuen. Udal zein Foru Aldundi desberdinetako teknikari zein politikariak zeuden eta bertan parte hartu zuen EGK-k. Zuzendariak plana 2020. urtean martxan jartzeko asmoa zegoela azaldu ostean, bertaratuen ekarpen desberdinak bildu ziren, EGK-k bere gazte perspektibatik bere ekarpenak burutu zituen.

OGPren web.orrrialdean egin daiteke jarraipena.

Ebaluazioa

- EGKtik, prozesu honetan parte hartzeko aukera izatea positibotzat hartzen da. Era honetara, bermatzen da administrazio maila ezberdinetan gazteen ikuspegia kontuan izatea.
- Plana martxan jartzen den heinean ikusiko da EGKren ekarpenek bertan izan duten balioa.
- Prozesua eta egituratutako planak herritarrekin zein administrazioekin harremana hobetzeko eta gardentasunean sakontzeko balio izan duen ere aztertu beharko da.

4.10. Arabako Gazteriaren Kontseilua

Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean Arabako Gazteriaren Kontseilua martxan jartzeko lan egin du EGK-k. Bertan parte hartu du EGK-k Lurralde Historikoko zenbait eragile eta profesionalekin batera. Denen artean Arabako Foru Aldundiak proposatutako gazteria politiken kontrastea egin nahi da bertan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Arabako Foru Aldundiaren politika publikoak aztertzea, lantzea eta doikuntzak proposatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Administrazioarekiko gertutasuna sustatzea.
- Arabako gazteriaren ahotsa Foru Aldundiaren politiketan txertatzea.
- Profil anitzeko pertsona gazteek osatutako kontseilu baten aldeko lana egitea.

Garapena

Martxoaren 14an burutu zuen bere lehengo bilera, izen berriarekin Arabako Gazteriaren Kontseiluak. Bertan bildu ziren zenbait instituzioetako arduradun politiko, teknikari zein gazte elkarteetako zenbait ordezkari. Tartean bertan ziren Arabako Foru Aldundiko Gazteria, Euskara eta Kirol Diputatua den, Igone Martinez De Luna eta Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbigano, Arabako Gazteriaren Foru Erakundeko Zuzendaria. EGK ere bertan izan zen gazte eragile moduan.

Bileran 4 gai nagusi jorratu ziren:

- Arabako Gazteria Kontseiluaren eraketa.
- Kontseiluko kideen aurkezpena.
- Funtzionamendu araudia berrikustea eta berreztea.
- Ekintza Planaren aurkezpena.

Lehenik Arabako Gazteria Kontseilua osatuko duten partaideak zehaztu ziren. Bertan politikari, teknikari eta gizarte mugimenduko pertsona desberdinen parte hartzea bermatu zelarik. Bertan EGK-k Gazteria Kontseilu bezala hartuko du parte. Beste zenbait gazte eragilek ere parte hartuko dute, tartean Arabako Eskaut Laikoa, Euskalerriko Eskautak Araba, Gurutze Gorria eta Itaka Fundazioak. Ostean Kontseiluaren funtzionamendu legea berrikusi zen ekarpenik balego.

Gauzak horrela, azkenik Kontseilua martxan jartzeko bi talde nagusi egitea zehaztu zen. Talde batek Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroaren gainean lanean hasteko ardura hartu zuen. Bigarren taldeak Arabako gazteen premien identifikazioa burutzeko ardura hartu zuen. EGK-k bigarren talde horretan eragiteko ardura hartu zuen.

Ebaluazioa

- EGK-k orain arte Arabako Foru Aldundiarekin aurrera eramandako elkarlana oso positiboki balioesten du. Hau horrela EGK-tik Arabako Gazteria Kontseilua martxan jarri den honetan bertan gazte perspektibatik ekarpenak egiteko asmoa adierazi nahi da.

4.11. Material eta gelen lagapena

EGKren material eta gelen lagapen zerbitzua eskaintzen zaie gazte talde eta parte-hartzeko ekimen ezberdinei. Zerbitzua hobetzeko prozedura estandarizatua 2014an abiatu zen eta ordutik EGK-ko parte-hartze teknikariak koordinatzen du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren elkarteei eta beste eragileei gelak eta materialak maileguan eskaintzea, gazte elkartegintzarekin eta eremu parte-hartzaileekin harremanak sortuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko materialak eta gelak lagatzea.
- Indarrean dagoen prozedura estandarizatua jarraitzea eta berritzea.
- Egindako lagapenei jarraipena egitea eta zerbitzua bultzatzea.
- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarrekiko konfiantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz.

Garapena

Zerbitzuaren onuradunak EGKren parte diren elkarteak zein ez direnak izan dira. Materialak edo gelak maileguan hartzeko gazte eragileek edota gazteek webgunean dagoen formularioa ([ikusi webgunean](#)) bete behar dute. Behin hori eginda, EGK-ko parte-hartze teknikaria harremanetan jartzen da eskatzailearekin lagapena zehazteko. Webgune berrian formularioaz gain, materialen katalogoa, gela edota materialak eskatzeko jarraibideak eta fidantzen zerrenda eskuragarri daude.

2018an bezala, aurten ere maileguan ematen diren materialak eta gelak jarraipen orri batean apuntatu dira eta parte-hartze teknikaria da guzti honen koordinazioa eramaten duena.

Prozedura estandarizatu honi esker zerbitzuaren kalitatea hobetzea lortu da. Honekin batera, beharrezko aldaketak eta hobekuntzak egin dira. Asmoa berrikuntzak txertatzen jarraitzea da.

EGK Sendotzen proiektuak elkarteekin harremanak sakontzea ekarri du, honek zerbitzua elkarte gehiagotara zabaltzea ahalbidetu duelarik. Bide horretan zerbitzuaren erabileraren handiagotze bat gertatu da, baita Gipuzkoan ere, horren adibide aurten emandako zerbitzu guztiak, azpian zerbitzuen zerrenda:

2019an elkarte hauen eskaera erantzun du EGK-k:

- 04/01/2019 Sare Herritarrari Donostiako bulegoa utzi zaio.
- 25/01/2019 Euskal Interkulturari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 08/02/2019 Euskal Gorrak elkarteari Donostiako bulegoa utzi zaio.
- 20/02/2019 Euskal Interkultura elkarteari Donostiako bulegoa utzi zaio.
- 06/03/2019 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 06/03/2019 AEGEE-Bilbao elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 10/04/2019 Euskarabentura elkarteari Donostiako bulegoa utzi zaio.
- 10/04/2019 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko Bulegoa utzi zaio.
- 11/04/2019 SOS Arrazakeria elkarteari proiektorea utzi zaio.
- 02/05/2019 Euskal Interkultura elkarteari Gasteizko bulegoa utzi zaio.
- 03/05/2019 Euskal Interkultura elkarteari proiektorea utzi zaio.
- 13/05/2019 Euskal Interkultura elkarteari Donostiako bulegoa utzi zaio.
- 24/05/2019 AFS Interkultura elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 05/06/2019 Federación Mujeres Jóvenes elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 06/06/2019 Zabalduko Ditugu elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 11/06/2019 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 24/06/2019 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 02/09/2019 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.

- 12/09/2019 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 02/10/2019 Euskarabentura elkarteari Bilboko gela utzi zaio.
- 09/10/2019 ElkarTEA elkarteari proiektorea utzi zaio.
- 02/11/2019 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 06/11/2019 ESN Bilbo elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 07/11/2019 Euskarabentura elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.
- 13/11/2019 Fridays for the Future Gasteiz proiektorea utzi zaio.
- 13/11/2019 Euskal Interkultura elkarteari Donostiako bulegoa utzi zaio.
- 04/12/ ESN Bilbo elkarteari Bilboko bulegoa utzi zaio.

Honetaz gain elkarteei materialen lagapen zerbitzua eskaintzeko EGK-k zuen katalogo fisikoa ere berritu da, material berriak txertatuz eta katalogoaren formatua erakargarriagoa eginez.



Azkenik berritasun moduan, Euskadiko hiru gazte ekintzailek euskal txirrindularitzaren inguruko #MareaNaranja izeneko proiektua gauzatzeko EGK-k Gipuzkoan duen bulegoa erabili dute. Bertan burutu direlarik liburua zein proiektua errealitate bihurtzeko zenbait bilera eta elkarrizketa. Proiektuan zehar erabiliak izan diren zenbait material ere lagapen zerbitzuaren bidez kudeatu dira.

Ebaluazioa

- 2015ean martxan jarritako prozedurari esker zerbitzu honen kudeaketa ona izan da, bai EGKrentzat, bai eskatzaileentzat ere. Zentzu honetan, lagapen guztietan fidantzak jaso eta itzuli dira. Lan hau Idazkaritzarekin elkarlanean egin da.
- 2018. urtean jarritako helburuak bete dira, lagapen zerbitzuen kopurua nabarmen igo da, saiakera berezia egin den Arabako Lurralde Historikoan ere. Igoera hau positiboki balioesten du EGK-k. Hemendik aurrera helburuak hurrengoak izango dira: prozedura mantentzea eta eguneratzea, mailegu zerbitzua ezagutzera ematen jarraitzea eta lagapenak eragile gehiagorengana heltzea. Bide horretan katalogoaren berritzeak eragina izatea espero da.

4.12. Egunerokoa

Teknikari bakoitzaren lan-arlotik kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanen artean, bilerak, aholkularitza, egoitzako kudeaketa lanak, urteko proiektuen justifikazioa eta plangintzak burutu dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta ebaluazioak egitea.
- Hedabideetan agertzea, hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartzea.

Garapena

Egoitzako kudeaketa lanak:

Bulegoa eta materiala zaindu eta txukun mantendu, telefonoa artatu, bulegoko mantenuaz arduratu informatika, argiketaria, su-itzalgailuaren mantenua... etab.

Teknikari aldaketak:

2019 urte amaieran parte-hartze arloko teknikariaren ordutegi murrizketaren ondorioz, denbora zehatz baterako teknikari berri bat gehitu da lantaldera eta ondorioz, errelebo lanak aurrera eraman behar izan dira.

Ebaluazioa

- Parte-hartzea oinarrian EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliagarriak diren balorazioak egiten jarraituko da.

5. Bakea eta bizikidetza

5.1. Bake lantaldea

Bake lantaldearen helburu nagusia, gazteen artean bizikidetza eta giza eskubideetan oinarritutako gizarte bat eraikitzeko egun dauden erronkak eta proposamenak identifikatu eta horien gaineko gogoeta sustatzea da. 2015ean sortutako lantaldeari jarraipena emateko, 2019an talde honetara gazte gehiago gehitzeko deialdia zabaldu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

Gazteentzat gai hauei buruz hitz egiteko espazio erosoak sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gai berriei buruz hitz egiteko aukerak sortzea.

Garapena

EGK-k Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin 2018-2020 urteetarako sinatutako lankidetza-hitzarmenak dioenez, honen helburu nagusia gazteak bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko kulturaren parte hartzeko eta hori zabaltzeko estrategia garatzea da. Indarkeriaren amaiera ordenatuarekin eta



bizikidetzaren normalizazioari lotutako gaiak lantzen jarraitzeaz gain, datozen urteetan giza eskubideen agenda berriari lotutako gaiak ere jorratu nahi dira: migrazioak, errefuxiatuen egoera, berdintasun ezaren edo diskriminazioaren forma berriak, esaterako.

Gai guztiak lantzeko interesa duen lantalde finko bat sortzea erronka bat izan arren, maiatzean ospatutako saioan agenda berriarekiko interesa agertu zuten bereziki. Interes eta jakin-mina azaldu zuten eta baita gai hauei buruz hitz egiteko espazioen beharra aldarrikatu ere.

Migraziorako Euskal Itun Sozialari atxikipena:

Azaroan bildutakoan Migraziorako Euskal Itun Soziala jorratu zen, baita bidaiderik gabeko adingabe eta gazte atzerritarren egoera ere.

Ebaluazioa

Gazte berriak gogotsu aritu dira lantaldeko bileretan jorratutako gaiak lantzen. Positiboki balioesten da egun, bizikidetza eta giza eskubideekin lotuta, gizartean dauden erronkak identifikatzen aritu izana lantaldea. Lanean jarraitzeko prestutasuna aurkeztu du eta saioetan burutzen diren dinamika eta ekintzekin emaitza konkrituak jasotzea eskatu du lantaldeak.

5.2. Etikasi Programa

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin batera koordinatuta garatzen doa proiektu hau. Honen helburua giza eskubideei buruz eta etikari buruz ikastea da. Horretarako, bidaia hezigarriak antolatu dira, Europar indarkeria luze jasan duten lekuak bisitatzeko. Bisitak Batxilergoko, Lanbide Heziketako Erdi edo Goi Mailako Heziketa Zikloko edo Unibertsitateko lehen mailako ikasleen taldeei eskaini zaizkie. Bisitan parte hartzeko alde zuretik lan bat egin behar izan zuten. Bisita ostean ere, beste lanketa bat egin da Euskadin gertatutakoaren eta Europako leku horretan gertatutakoaren gaineko gogoeta kritiko bat egiteko eta ondorioak ateratzeko. Hiru urteetan zehar garatzeko programa honetan, aurten esperientzia pilotua burutu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eusko Jaurlaritzako Bizikidetza, Giza Eskubide eta Lankidetzak Idazkaritza Nagusiarekin batera, **Etikasi programari** lotutako esperientzia pilotua aurrera eramatea, 2018ko diseinuan oinarrituta.

HELBURU ZEHATZAK:

- Proiekturako antolakuntza, formakuntza prestatu eta ebaluazioa egitea.
- Proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren materialak prestatzea.
- Hurrengo urteetan egin nahi diren deialdiak moldatzea aurtengo esperientziaren arabera.

Garapena

Etikasi proiektuko esperientzia pilotua aurrera eramana da. 2019ko proiekturako deialdia egin zen urteko lehen lau hilabeteetan eta bidaia hezigarriak garatu dira ekainak 17tik 20ra, Auschwitzera eta uztailak 1etik 5era, Belfastera.

Deialdia urtarrilak 31 ireki zen eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako eskola desberdinekin bilerak egin ziren proiektuaren zabalpena ziurtatzeko. Bestalde, Deustuko Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasle Kontseilu eta irakasle desberdinen bitartez zabalpena egin zen bertako ikasleen artean. Parte-hartzaileen aukeraketa egin ostean, maiatza eta ekainean eman zitzaizen ikasleei bidaien aurretiko formakuntza. Honekin bidaietara joan aurretik dagoeneko hausnarketak egiten hastea zen helburua, bidaiak ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukera izan zezaten.



Ekainak 17tik 20ra egin zen Zumaiena Ikastetxeko ikasleekin Auschwitzera bidaia eta bertan Auschwitz I Main Camp era Auschwitz II Birkenau ezagutzeko aukera izan zuten. Bisita hauetan gida bati esker bertan

jazotakoaren historia eta hori pairatu zutenen istorio desberdinak ezagutzeko aukera izan zuten.

Gainera, Block 27 Shoah eta Sonderkommandoei buruzko tailerrak egiteko aukera ere izan zuten, Holokaustoarekin juduen egoera nola aldatu den ezagutzeko eta Sonderkommando deituriko lantalde berezien istorioa gertutik ezagutzeko. Bigarren lantegi honetan, Sonderkommandokoak nor ziren, zer lan egin behar zuten eta horri buruzko testigantzak ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek. Bestalde, Krakoviako auzo judua eta ghettoa ezagutzeko bisita ere egin zen, hiriaren itxura modernoaren azpian ezkutatzen diren istorio eta gertaerak hobeto ezagutzeko.

Uztaileko 1etik 5era Belfasteko taldearen txanda izan zen. Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleek Ipar Irlandako gatazkari buruz ikasteko aukera izan zuten, museo desberdinak eta topaketa bat eginez. Besteak beste, gatazkaren bi aldeetako presoak egondako Crumlin Road kartzela bisitatu zen.

Bakearen Harresia ere ezagutu zuten, honen bisita eta azalpenak preso ohiek eman zituztelarik. Igande Odoltsuagatik ezaguna egin zen Derry herrira ere joan ziren, bertako historia gertutik ezagutzeko aukera izanez. Historia eta iragana ezagutzeaz gain, oraina lantzeko aukera ere izan zuten. Horretarako, bertako gazteekin lan egiten duen



Hollywood Family Trust elkartearekin topaketa egin zuten gazteek, Ipar Irlandako euren adineko gazteekin hitz egiteko aukera izan zuten, besteak beste, gatazkari buruz, hezkuntza sistemei buruz etab.

Bidaia itzuli ostean itxiera saio bana egin da talde bakoitzarekin, proiektuarekin ikasitakoa aztertzeko balio izan duten saioak. **Etikasiko** formakuntza eta bidaiei bitartez ikasleen pentsatzeko edo errealitatea ikusteko era aldatu den landu da. Auschwitzera joan zen taldearekin galderen bitartez neurtu da proiektuaren eragina, Belfasten egondako taldearekin berriz, Adi-Adian modulua landu da.

Prozesu guztiaren jarraipena egiteko, Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin hainbat koordinazio bilera burutu dira eta bertako pertsona batek bidaletan parte hartu du proiektuaren nondik norakoa gertutik ezagutzeko.

Ebaluazioa

2019an zehar garatutako proiektu pilotuaren emaitza oso positiboa izan da EGKrentzat. Parte-hartzaileen ebaluazioak oso positiboak izan dira, esperientzian parte hartzeko aukera emateagatik eskertu dute bi taldeetako gazteek. Euren erantzuna aberasgarria izan da, bai ikasi dutenagatik eta baita beraiek erakutsitakoagatik ere.

Emaitza positibo honen aurrean hurrengo urteetarako proiektuari jarraipena emateko diseinuarekin jarraituko da. Hobekuntzak zehazten jarraitu behar da 2020ko deialdirako.

5.3. Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak

Bizikidetzaren eta berdintasuna ardatz dituen gizarte batentzat, erlijioan oinarritutako bazterketa edo arbuioak egoteak ardatz horiek kolokan jartzen ditu. Honen aurrean gazteekin egin behar den lanketa sakona da, bakearen kultura daukan gizarte baten aldeko apustua eginez. Horretarako, Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmenean bizikidetzaren sustatzeko eta bermatzeko egin beharreko pauso bat gehiago da ***Islamofobia: Feminismoak, erronkak eta ikuspegiak*** proiektua.

Berdintasun lan-arloarekin batera burututako proiektu honetan, Islamofobiaren gaia marko orokortzat hartuta, EAEko gazteekin gai konkretuak jorratu dira. Bertan, gazte ikuspegitik aztertuz, emakume musulmanek sufritu ditzaketen islamofobia kasuei buruz hausnartu da esaldi, galdera, ikus-entzunezko materialak edota bestelako materialak erabiliz. Testigantzak entzun ondoren, etorkizunerako erronkak eta hauei aurre egiteko proposamenei buruz solastatu da gazteekin. Metodologia parte-hartzaileak erabiliz, gazteekin hausnarketa landu da, betiere islamofobiak dauzkan erronkei aurre egiteko proposamen eta ideiak garatzen saiatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ikuspegi eraikitzaile batekin, erlijio musulmaneko emakumeek, emakume eta musulmanak izateagatik dauzkaten erronkak identifikatu eta gazteekin islamofobiari buruzko trukea sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteekin islamofobiari buruzko trukea sortzea.

Garapena



Islamofobiaren gaiak gizartean iritzi oso desberdinak sustatzen ditu, eta horregatik, eragile desberdinekin batu dira EGK-ko bake eta bizikidetzeta eta berdintasun teknikaria, hala nola; Alboan, Donostiako Emakumeen Etxea eta SOS Arrazakeria.

Eragile hauekin elkartu ostean eta beraien iritzi eta gomendioak aztertu ondoren, EGK-k gaia nola jorratu hausnartzeko ordua izan zen. Islamofobia genero ikuspegitik aztertzea orokor gelditu zitekeenez gai konkretuago batera lurreratu nahi izan da proiektua.

Islamofobiari buruz dauden ikuspuntu ugari aztertu dira, bizikidetzarentzat honek ekar ditzaken erronkak landuz. Ikuspegi desberdinak landuaz pluraltasun honek gizartean (eta baita gazteen artean) dauden ikuspuntu ugariak ahalik eta gehien kontuan hartzea ahalbidetu du. Zentzu honetan, gazteen artean dauden hausnarketak bildu nahi izan dira. Irailaren 26an egin zen topaketa Donostiako Emakumeen Etxean.

Ikuspuntu desberdinak ezagutzeko hiru emakume gazte gonbidatu ziren euren testigantzak partekatzeko. Bi emakume musulmanak ziren -Ikram Bouzalmat eta Chaimae Nakariren- eta hirugarrena -Enara Arrieta- islamofobia akademikoki aztertu duen emakume ez musulmana. Ikram Bouzalmat eta Chaimae Nakariren testigantzak bakoitzaren bizipenetan oinarrituta egon ziren, beraiek bizitakoaren arabera hitz egin zuten feminismoari buruz, islamofobiari buruz daukaten ikuspegiari buruz eta baita etorkizunera begira egongo diren erronkei buruz (eta hauei nola erantzun litekeen).

Enara Arrietak berriz bere masterrean landu zuen Islamofobiaren gaia, eta gaiaren azalpen teorikoa laburki aurkeztu ostean bere ikerketetan emakume musulmanen testigantzek zer esan zuten aurkeztu zuen.



Hiru hizlari hauen solasaldia entzun ostean Islamofobiari eta feminismoari buruz ikuspuntu oso desberdinak daudela plazaratu zen, eta aniztasun hau ezagutzeko aukera eman zitzairen topaketara gerturatutako gazteei. Estereotipoei aurre egitearen beharra atera zen, bizikidetza lortzeko kultura eta erlijio desberdina duten pertsonengana gerturatu eta interesa erakustearen garrantzia azpimarratu zen. Gainera, islamofobiak emakume musulmanekiko zapalkuntza bikoitza eragiten duela jorratu zen (emakume eta musulman izateagatik). Erronka honen aurrean pauso asko eman behar dira oraindik, baina honelako topaketen garrantzia ere mahaigaineratu zen.

Topaketan jorratutakoarekin txosten bat argitaratuko da. Islamofobiari buruzko atal teoriko baten ostean hiru hizlarien testigantzak jasoko dira, baita topaketara gerturatutakoen desira eta ekarpenak ere.

Ebaluazioa

- Islamofobiaren ikuspuntu eta errelato desberdinak entzutearen garrantzia mahaigaineratu zen.
- Berdintasuna eta bizikidetza bermatzeko gai hauek lantzeko garrantzia azpimarratu zen.

5.4. Migratzaileei buruzko aurreiritziei planto!

Euskal gizartean orokorrean migratzaileekiko aurreiritziak daudela baieztatu daiteke Zurrumurruen Aurkako Sareak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal ugarik egindako lana aztertu ostean, eta honek bizikidetza baketsua lortzeko bidea oztopatu besterik ez du egiten. Beti egon dira migrazio fluxuak eta horien ondorioz pertsona batzuk ez dira dagoeneko lehen belaunaldiko migratzaileak. Argi dago EAE pasaleku dela migratzaile askorentzat, baina ez dira gutxi hemen gelditzea erabakitzen dutenak.

Hori kontuan izanda, migratzaileei buruz sortu diren aurreiritziak deseraikitzeke lana egin behar da. Baina etorkizunera begira hauen azterketa egitea ere oso garrantzitsua da hausnarketa kritikoak sortuz. Honetarako gazteekin gaiari buruzko hausnarketa eta lanketa bat egin nahi da dagoeneko gurean diren, pasako diren eta etorkizunean gelditzeko iritsiko diren pertsonen eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartuz.

Honetarako, testuinguru teorikoa nolakoa den aztertzea garrantzitsua da, parte-hartzaileek oinarri berdina izateko. Bestalde, gaur egun gizartean dauden faktore eta egoera konketuak lantzea ere oso garrantzitsua da, egoerari aurpegia jartzen laguntzen dutelarik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Migratzaileekiko aurreiritzi xenofobo eta arrazistei aurre egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Aurreiritzi horiek deseraikitzeke lanketa egitea.
- Azken aldian gizartean egon den iritzi aldaketa nabariari buruzko (edota gailendu diren iritzi berrien zabalkundeari buruzko) hausnarketa egitea.
- Faktorekako analisia egin eta erronkak identifikatzea.

Garapena

EGK-k egindako lehen pausoa aurre diagnosi egitea izan zen, EAEko egoera eta konkretuki Gasteizkoa aztertzeko. Hori egiterakoan ikusi zen gizarteko eragile desberdinek aurreiritzi eta estereotipoen gaia jorratu izan dutela azken urteetan, baina ez da zuzenean gazteen ikuspuntua lantzen zuenik antolatu. Horrela, gaia jorratzeko beharra zegoela baieztatu zen eta dagoeneko arloan lanean dabiltzan eragile eta elkarte desberdinekin harremanetan jarri zen EGK.

Besteak beste Emigrados Sin Fronteras, SOS Arrazakeria, CEAR Euskadi, Alboan, Gasteizko eta Donostiako udaleko bizikidetza eta aniztasun teknikariek eta Zurrumurruek Aurrakako Sareekin izan da harremana. Eragile hauekin aurreiritziei buruzko alor teorikoa jorratu da eta baita EAE edota Gasteiz mailan egin diren ekintza desberdinak.



Harreman hauen ostean topaketan jorratu beharreko oinarritzko gaiak zeintzuk ziren erabaki zen, honela parte-hartzaileek oinarriak argi izateko. Ondorengoa jorratu zen: Zer da aurreiritzia? Nor da migratzailea? Zein aukera daude aurreiritzi hauei aurre egiteko? Beste hitz batzuetan, izenburuko hiru atalak aztertu ziren: migratzaile kontzeptua, aurreiritzi kontzeptua eta planto egiteko aukera.

2019ko ekainak 6, arratsaldeko 17:00etan egin zen ekitaldia eta esan bezala, parte-hartzaileei aurreiritzia zer den, nor den migratzailea eta planto egiteko modu desberdinak aurkeztu zitzaizkien. Ostean, gazteen iritzi eta hausnarketak jasotzeko dinamika bat garatu zen parte-hartzaileekin. Horretarako, gizartean entzuten diren esaldi edo baieztapenak apuntatuta zeuden kartoi mehe desberdinetan eta gai horiei buruz hausnartzea eskatu zitzaizen gerturatu zirenei. Sortzen ziren hausnarketak bertan apuntatzen ziren, gaiaren inguruan jorratzeke dauden ideiak, gazteen iritziak edota aurreiritzi horiei aurre nola egin aztertzen zituzten proposamenak idatziz.

Ekintzaren zati nagusia dinamika parte-hartzailea izan zen eta hor ateratako ideiei eta planteamenduei aurre egiteko itxiera positibo bat bilatu zen. Horretarako, bakoitzari planto

egiteko pertsonalki konpromiso bat hartzea eskatu zitzaien, aurreiritzi hauen aurrean aktiboki zerbait egiteko.

Jasotako ekarpenekin eta hausnarketekin txosten bat egin da jorratutako ideiak batu eta aditzera eman daitezen.

Ebaluazioa

- Proiektutik ateratako ondorioak oso mamitsuak izatea aberasgarri izan da EGKrentzat. Gainera, parte-hartzaileek adierazi zuten gaia dagoeneko jorratua izan den arren, gazteen ikuspuntutik konkretuki jorratzeak garrantzia duela. Zentzu horretan, horrelako espazioak eta aukerak sortzea asko balioetsi zuten. Euskal Autonomia Erkidegoan orokorrean gaia lantzearen garrantziaz aritu ziren eta baita, bereziki, herri mailan egitearen garrantziaz.
- Ereduak izatearen eta hezkuntzan gaia lantzearen garrantzia azpimarratu zen, gaur egun dagoeneko dauden erronkei ahalik eta erantzun egokiena ematen jarraitzeko.

5.5. Gazteon Aukera dokumentalaren difusioa

2016an sortutako dokumentalaren zabalpenarekin jarraitu da, gazteok gatazkaren inguruan dauzkagun hausnarketak ezagutarazteko eta EGK-k 2014-2016 urteetan zehar bake-hitzarmenaren baitan burututako proiektu desberdinak gizarteratzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteon aukera dokumentala gizarteari zabaltzea, burututako proiektuak helarazteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana ezagutaraztea.
- Ikus-entzunezko gazte-memoria bat sortzea.

- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

2018ko azaroan Bartzelonan ospatu zen Hezkuntza Moraleko Nazioarteko Kongresuan parte hartzeak EGKren lana eragile desberdinengana helarazteko aukera eman zuen. Bertan egindako ekarpen eta solasaldiez gain ordura arte EGK-k egindako proiektuei oihartzuna emateko bozgorailua izan zen kongresua.

Aurten, 2018an egindako elkarlan horietako bati esker Bartzelonako Unibertsitateko etikako irakasleen artean zabaltzea lortu da eta baita Senderi antolakundeak eta Aprenentatze Serbei-k ere zabaltzea. Balioen hezkuntzan oinarritzen da azken hauen lana eta dokumentala gazteen ikuspegia ezagutarazteko erreminta bezala erabiltzea da helburua.

Zabalpenarekin jarraitzeko, **#HistoriaOsatzen** Ikasketa Komunitateko lehen saioan **Gazteon aukera** dokumentala proiektatu ostean, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatu Zentroarekin hitz egin zen beraien webgunean ere dokumentala jartzeko. Honela, unibertsitateak duen zabalpen sarea aprobetxatzeko aukera egongo da EGKren lana publiko zabalago batengana gerturatzeko aukera hobetuz.

Ebaluazioa

Zabalpenarekin EGKren lana are gehiago zabaltzea lortu da 2019an zehar. Lehen kasuan, batez ere erabiltzaile katalanek erabiltzen dituzten erreminta hauetan EGK-k egindako lana zabaltzea oso interesgarria da, beste erkidegoetan kontseilua eta egindako proiektuak ezagutarazteko. Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatu Zentroaren bidez baita ere, lana ezagutarazten jarraitzea lortu da.

5.6. Bake eta Bizikidetzarako mahai inguruak

Aurreko urteetan egindako lan eta proiektu desberdinetan behin eta berriz agertutako iritzi edo hausnarketa izan da gazteek bake eta bizikidetzarekin erlazionatutako gaiak jorratzeko espazioak falta direla.

Beste gai batzuek lehentasun gehiago dutela onartzen den arren, bakea eta bizikidetzaz lantzeko espazioak sortu eta irekitzen direnean parte hartzeko interesa ageri da. Horri erantzuna emateko mahai inguru eta topaketa desberdinetan parte hartu da urtean zehar.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteok memoriari buruz dakitena jakinaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k gazteekin memoriari buruz egindako lanketak zabaltzea.
- Memoria bezalako gaiez, adibidez, hitz egiteko espazioak eratzea.

Garapena

Gazteria, memoria eta transmisioa:

EGK-k urteetan zehar egindako lanak mahai gaineratu zuen bake eta bizikidetzari buruzko gaiak jorratzeko espazio gehiago sortu behar direla. Eskaera horri erantzunez Baketiken eskutik hiru mahai ingurutan parte hartu da Lasarte-Orian, Elgoibarren eta Urnietan.

Hiru mahai inguruetak formatua berdina izan zen. Iker Uson gizarte hezitzaile eta irakaslearekin batera gazteriari, memoriari eta transmisioari buruzko solasaldia egin zen. Ondorengo galderen inguruan egin ziren hausnarketak: Nola bizi dute gatazka, gatazka bizi izan ez zutenek? Nork eta nola kontatu behar die gertatu zena?

Gazteek dakitenari eta ez dakitenari buruz hitz egin zen, EGK-k orain arte egindako proiektu desberdinei esker ateratako informazioa azalduz. Oso garrantzitsua izan zen, adibidez, **Gazteon aukera** dokumentalean edota **Bakehizketak**-en ateratako informazioa.

Solasaldiaren osteko galderetan errepikatu zen ideia izan zen isiluneen garrantzia, gazteekin memoriari eta bakeari buruz hitz egiteko mugak deseraikitzen jarraitzearen beharra edota bakeari eta bizikidetzari buruz libreki hitz egiteko espazioen beharra egoten jarraitzen duela.

Gazte palestinarrekin mahai ingurua:

Paz con Dignidad elkartearekin batera hiru gazte palestinarrekin mahai ingurua antolatu zen Donostian. Bertan, Euskadiko gazteek Palestinatik etorritakoekin hitz egin eta beraien testigantzak entzuteko aukera izan zuten. Zuzenean testigantzak entzuteak duen balioa oso garrantzitsua da, eta Palestinan egiten duten lana entzun ondoren beraiekin solasaldia izateko tarte aberasgarria izan zen gerturatutako gazteentzat.



Topaketak gazte palestinarren errealitatearen beste ikuspuntu bat ezagutzeko aukera eman zuen. Hiru gazteek Badil Resource Center for Palestinian Residency and Refugee Rights erakundetik etorriak ziren eta hirurak dabilta giza eskubideen alde lan egiten duen erakundean. Badileko langilea zen palestinarretako bat, eta elkarteak egiten duen lana azaldu zuen. Ostean, beste bi palestinarrek gazte izanda Palestinan bizitzea nolakoa den azaldu zuten bere testigantzen bidez. Honek, beraien bizipen pertsonalak kontatzeaz gain erakundeen lana aurkezteko eta ezagutzera emateko espazioa eman zien.

Ebaluazioa

- Bakea eta bizikidetzaren gaiak lantzen jarraitzeko espazio gehiago behar direla izan da urteetan zehar EKG-k jaso duen eskaeretako bat. Mahai inguru hauen bidez gazteekin gai hauei buruz hitz egiteko espazio intimoak sortzen jarraitu nahi da.
- Espazio hauen erabilgarritasuna azpimarratu dute parte-hartzaileek, eta hurrengo urteetara begira gazteen ekarpenak jasotzen eta hausnarketak sustatzen jarraitu nahi da, mahai inguru desberdinen bidez gazteen ahotsak entzuteko. Gainera, EKG-k aurreko urteetan egindako proiektuen zabalpenean jarraitzea positiboa da, egindako esfortzuaren fruituak zabaltzen jarraitzen dute eta.

5.7. Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroarekin lankidetzak

Deustuko Unibertsitateak bertako ikertzaile desberdinekin Etika Aplikatuko Zentro bat dauka eta bertan egiten diren ikerketetan gazteen ezagutzak eta ikuspuntuak kontuan hartu nahi dituzte. Horretarako, 2018an EKGrekin kontaktuan jarri zen 2019ra begira batera lan egitea proposatuz. Elkarlanean ikerketak, hausnarketak edota bestelako ekintzak egitea planteatu da. Elkarlanean proiektu nagusia 2019ko urrian martxan jarri den Ikasketa Komunitatea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Zentroak egiten dituen lanetan parte hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmena sinatzea etorkizunera begira lankidetzak zabaltzeko.
- Gazteekin EKG-k egindako lana aurkeztea eta azaltzea.
- Ikasketa Komunitate bat sortzea eta martxan jartzea 2019ko urria eta 2020ko ekaina artean.

- Gazteekin azken hamarkadetan Euskadin jazotako indarkeria eta honen historiari buruz aztertzea eta jardutea. Aldi berean, gertakari horien hezkuntza historiko horrek gure gizartearen bakearen eraikuntzan ekarriko duena aztertzeke ere balioko du.
- Ikasketa Komunitateko lehen fasea (gazteekin egingo dena) diseinatzea eta antolatzea Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroarekin batera.

Garapena

2019ko hasieran elkarlaneko proiektua zehazteko bilera egin zen Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroarekin, nondik norakoak zehaztu eta proiektuari forma emateko. **Ikasketa Komunitate** bat antolatzeko proiektua aurkeztu zen, azken hamarkadetan Euskadin izandako indarkeriari eta horren historiari buruz jarduteko. **Historiaren irakaskuntza eta bakearen eraikuntza Euskadin**, gertatutakoari buruz, izandako ondorioei buruz, gazteek dakitenari eta jakin nahiko luketenaren inguruan hitz egiteko proiektua da. **Ikasketa Komunitate** honek ondorengo galderaren inguruko hausnarketa sustatu eta landu nahi du parte-hartzaileekin: Nola garatu dezake historiaren erakusketak gazteengan iragan biolentoarekiko ulerpen kritikoa, horrek biktimen memoria duin bihurtu eta aldi berean indarkeria deslegitimatzen duelarik?

Historiaren irakaskuntza eta bakearen eraikuntza Euskadin
Enseñanza de la historia y construcción de la paz en Euskadi

**Zer da Euskadin izandako
indarkeriari buruz jakin nahi duzuna
eta galdetzeraz ausartzen ez zarena?**

¿Qué quieres saber sobre
la violencia vivida en Euskadi
y no te atreves a preguntar?

Info:
E-mail: bakea@egk.eus
WhatsApp: 688 737 097



Proiektu honek belaunaldien arteko elkarrizketa eta Euskadin bizitako iragan biolentoari buruz erakusten den historia nola irakatsi nahi denari buruz hausnartu nahi du. Horretarako fase desberdinak izango ditu 2019-2020 ikasturtean hasi eta hurrengoetan luzatuz. Lehen urtean

gazteekin egingo da lanketa, behetik gora egin nahi delako lanketa. Ondorengo urteetan fase desberdinak garatuko dira elkarrizketa desberdinekin, gazteek ezarritakoa abiapuntutzat hartuz betiere. Elkarrizketa prozesuaz gain esplorazio eta diseinu pedagogikoa ere izango du bigarren faseak irakasleekin, hezitzaile ez formalekin, zientzialariek, norbere izenean eta elkarte bezala datozen biktimekin, eta baita gai hauekin erlazionatutako gizarteko eragileen ordezkariekin ere.

Ikasketa Komunitateak antolatutako saioen baitan, besteak beste, Alejandra Londoño aditu kolonbiarrak emandako konferentzia antolatu zen. Bakearen argitzearen, Bizikidetzaren eta Errepikapenik ezaren Kolonbiako kidea da Alejandra. Hain zuzen ere, esperientzia kolonbiarretik ikasitakoa partekatu zuen bertaratutako gazteekin, baliagarriak izandako puntuak azalduz eta kontuan izateko akatsak ere aurkeztuz.

Bestalde, Deustuko Etika Aplikatuko Zentroarekin izandako elkarlanak Deustuko Unibertsitatearekin berarekin hitzarmena sinatzeko aukera eman du. Honek elkarlaneko proiektuak egiteko aukerez gain Unibertsitateko instalazioak erabiltzeko erraztasunak ere emango dizkio EGKri.

Ebaluazioa

- Ikasketa Komunitateko partaideek gaiarekiko interesa dagoela erakutsi dute, gazteei ahotsa ematearen garrantzia azpimarratu eta eskertu dute. Proiektuak jarraipena izango du 2020ko ekainera arte, hilabeteen behin batuz gazteekin.
- Parte hartzea oso mamitsua izan da hasieran, eta 2020an zehar aurrera eramango diren gainerako saio eta dinamikak diseinatzen eta antolatzen jarraitu behar da hurrengo hilabeteetan.
- Parte-hartzaileen ekarpen eta hausnarketak oso interesgarriak izan dira hasieratik, eta gazte taldearekin berarekin jarraituko da ahalik eta informazio eta hausnarketa aberatsenak lortzeko.

5.8. Egunerokoa

Teknikari bakoitzaren lan-arlotik kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanen artean bilerak, aholkularitza, EGKren egoitzetako kudeaketa lanak, orain arte garatutako proiektuen justifikazioa eta plangintzak burutu dira besteak beste.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eguneroko lanaren normaltasuna bermatzeko behar diren lanak burutzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilerak, bulegoa kudeatzea, memoriak, gestio orokorrak eta aholkularitza modu eraginkor batean egitea.

Garapena

Egindako lanen artean jarraipen bilerak egin dira bai EGK-ko talde teknikoarekin, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko ordezkariarekin eta hala eskatu izan duten elkarteekin besteak beste.

EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliagarriak diren balorazioak ematea ere egunerokoaren parte izan da, baita eman diren barne formakuntza saioetan parte hartzea ere. 2019an egin ditugun formakuntzak publikoan hitz egiteko teknikei buruzkoa eta berdintasunari buruzkoak izan dira.

Egunerokoan sartu dira baita ere egoitzako kudeaketa lanak, besteak beste gela eta materialen lagapenak egitea, telefonoa erantzutea, ezustekoei aurre egitea eta abar. Telefono dei eta email asko gazte gaien gaineko aholkularitza emateko izan dira, bake eta bizikidetzeta lan-arloaren kasu gehienak Etikasiri buruzko zalantzak izanik.

Egunerokotasunaren barne izan da baita ere aurten EGK-k egin dituen Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamenak. Horretarako Bilbo Rocken topaketa antolatu zen, gazteen ekarpenak jasotzeko.

Ebaluazioa

2019ko egunerokoan zehar EGKren funtzionamendu egokia bermatu da. Jarraipen bilerak egin dira proiektu eta eragile desberdinekin, eta egoitzako kudeaketa lanekin aurrera jarraitu da.

Helburuak bete dira, gazte gaien gainean aholkularitza eta informazioa erraztu delarik, baita ziurtagirien kudeaketa, prestatzen diren ekimenen gaineko izen ematearen kudeaketa eta zalantzak argitzea, etab. Aholkularitza hauen barruan azpimarragarria izan da **Etikasi Programaren** baita emandako informazioa, kuantitatiboki asko handitu baitu emandako informazioa.

6. Berdintasuna

6.1. Gaur8



Gaur8 izeneko taldea 2016an sortu zen berdintasun lan-arloko diskurtsoak garatu eta proiektuetan eragin ahal izateko helburuarekin. Hala, urteotan, hainbat modutan funtzionatu du lantaldeak.

2019an **Gaur8** proiektuari jarraipena eman zaio, aurten ere berdintasunetik sortzen diren topaketa eta hausnarketetan iritzi eta zalantzak partekatzeko. Zentzu horretan, **#BazterretikErdira zineforuma** proiektuaren euskarria izan da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren berdintasun arloko diskurtsoa eratu eta eguneratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Iraunkortasuna duten proiektuak sortzea.
- Berdintasun lan-arloko erronka berriak identifikatzea eta proposamen berriak egitea.

Garapena

Gaur8 lantaldeak orain arte funtzionatu izan duen modua aldatzeko apustua egin da 2019an. 2018an deialdiak interesa zuten eragile eta norbanakoeekin egiten ziren eta bertatik landu nahi

zen berdintasuneko diskurtsoa. Azken ebaluazio saioan, ordea, ikusi zen gazteen informazio eta beharrak lortzeko era eraginkorragoa izan zitekeela beste formatu bateko proiektu bat egitea. Hala sortu zen zineforum formatuko proiektuaren ideia, ondoren azalduko dena.

Hori dela-eta, aurten, EGK-ko berdintasun arloko diskurtsoa eratu eta eguneratzeko, bilerak eta deialdiak egin beharrean, eragile eta norbanako ezberdinekin harremanetan jarri eta euren lanketak biltzen saiatu da, pixkanaka-pixkanaka sarea handitzeko bidean.

Ebaluazioa

Lehenik eta behin, aurten eman zaion formatu berri honen bidez (deialdiak egitetik, saretze eta banakako lanketak egitera) ikusi da aukera handiago dagoela beste eragileen eta norbanakoen interesak biltzeko eta horiek EGK-ko diskurtsoan txertatzeko. Beraz, aldaketa positibotzat balioesten da.

Bestalde, identifikatu da Gipuzkoan eta Araban, eragile feministekin eta LGTBI+ kolektiboarekin EGK-k duen sarea indartu nahi duela. Hori dela-eta, 2020an erronka bezala ezarri da espazio horietan sartzek jorratzea.

6.2. #BazterretikErdira zineforuma



Gaur8 lantaldean ateratako ondorioetarik abiatuz, EGKren berdintasun arloko diskurtsoa garatzeko proiektu berrizaile bat egin da. Modu honetan, **Gaur8** lantaldeak beste formatu bateko proiektuak garatu ditu jende gehiago biltzeko eta ordezkaritza handiagoa lortzeko.

Hala, 2019an, Bilbon zineforum bat burutu da, guztira lau saio izan dituena. Metodologia honen bidez, filmak erreproduzitu dira eta ondoren solasaldia egin da hainbat gairi buruz hausnartu eta ondorioak atera ahal izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko berdintasuneko diskurtsoa lantzea eta datozen urteetan aurrera eman daitezkeen proiektuen ideiak biltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zineforum metodologiaren bidez aniztasuna lantzea.
- Pertsona gazteen hausnarketak indartzea.
- Berdintasun eta LGTBI+ gaien inguruan interesa duten gazteen sarea eratzea.

Garapena

Zentzu honetan, emanaldiak urte osoan zehar banatu dira. Honakoak izan dira proiektatu diren filmak eta datak: 2019ko apirilaren 30ean, Bar bahar; 2019ko maiatzaren 28an, Yes, we fuck!; 2019ko irailaren 17an, Carmen y Lola; eta, 2019ko azaroren 26an, Girl.

Lekuari dagokionez, lehen bi zineforumak Kubrick espazioan burutu ziren. Dena dela, ondorengo bi proiektzioak Hika Ateneon egin ziren bigarren espazio hau egokiagoa zela uste zelako.



Proiektzio guztien ondoren, eztabaidak eratu dira. Horretarako, aurretik, filmeko gai garrantzitsuak hartu eta eztabaidarako abiapuntu izan daitezkeen galdera posibleak bildu dira dokumentu batean. Horiek saiora bertara eraman dira eta eztabaidan parte hartu dutenek aukera izan dute galdera horiek ikusi eta erantzuteko. Guztietan, eztabaidek, ordubeteko iraupena izan dute gutxienez.

Komunikazio baliabideei dagokionez, bi iturri nagusi erabili dira: lehenik eta behin, filma erreproduzitu den espazioaren sare sozialak erabili dira filmaren zabalpena egiteko (izan ere, bi espazioek jarraitzaile asko dituzte euren espazioetan); bigarrenik, Bilboko kultur agendan (bai digitalean, bai paperean) argitaratu da proiektzioaren informazioa.

Ebaluazioa

- Proiektuaren ebaluazioa oso positiboa izan da, lehenik eta behin, proiektuaren helburu nagusia bete delako: “EGK-ko berdintasuneko diskurtsoa lantzea eta datozen urteetan aurrera eman daitezkeen proiektuen ideiak biltzea”. Zentzu honetan, saio bakoitzean ateratako hausnarketen edukia oso positiboa izan da. Batez ere, filmetatik ateratako ideia ezberdinak arakatuz zirrikitu berriak josi direlako. Esate baterako, gazteok genero identitatea herrietan eta hirietan bizitzeko ditugun modu ezberdinak, edota, ‘askatasuna’ kontzeptua nola bizi duten.
- EGK-k mementora arte hurbildu ez diren gazte askori espazio berria eskaini dio eta horren emaitza oso positiboa izan da.
- Etorritako pertsonen saretzea emateaz gain, proiektu honen bidez, beste eragile batzuekin harremanetan jarri da. Hasiera batean, Zineforumak Azkuna Zentroan egitea pentsatu zenez, bertako langile teknikoekin harremanetan jarri da eta interesa adierazi zuten elkarlanean zerbait egiteko. Bestalde, Hika Ateneoko espazioko pertsona teknikoak oso interesatuta agertu dira proiektuaren aurrean, izan ere, beraiek ere badute zineforum bat Ongi Etorri Errefuxiatuekin batera. Hala, etorkizuneko ildo posible berriak sortu dira.

6.3. Gune Anitza



Gune Anitza Berdintasuna eta Aniztasunarekiko aldeketasuna erakusten duen zigilua da, eta hau EGKren Berdintasun arloko proiektu iraunkorretako bat da.

2019an, aurreko urtean egindako balorazioaren ildotik, espazio berrien bilaketa eta harremantzea eman da, urte hasieran batez ere. Bestalde, ondoren azalduko den moduan, **Gune Anitza** ezagutzera emateko bideo bat eta kanpaina bat egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasuna eta Aniztasunarekiko aldeketasuna erakustea eta hauekiko gazteek dituzten proposamenak gune ezberdinetan txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Gune Anitz** gehiago lortzea.
- Atxikitako espazioen ebaluazio bat egitea.
- Hobekuntza proposamenak eguneratuak mantentzea.

Garapena

2019an hainbat espazio atxiki dira **Gune Anitza** zigilura. Lehenik eta behin, 2019ko otsailaren 7an, Aldarte atxiki zen; eta, 2019ko martxoaren 25ean, Kalaka. Bi espazio hauek, harremana dute

EGKrekin, eta hain zuzen beraiekin egindako esku-hartzeetan sortu da **Gune Anitza** zigilura atxikitzeko ideia.

Espazio denekin egin ohi den bezala, hauekin ere, datuak bildu, erregistratu eta sarean difusioa egin da.

Bi horiez gain, zigilura atxiki daitezkeen espazioen identifikazioa eman da. Zentzu horretan, EAE-ko espazio ezberdinei **Gune Anitzaren** informazioa bidali zaie. Hortik atera da Bergarako Udalarekin eta Elgoibarko Udalarekin egindako harremana.

Bergarako Udalak, ekainaren 24-28 astean Harrotasun astea programatu zuen eta horren baitan, **Gune Anitza** banatzeko ekitaldi bat antolatu zen. Ekitaldi hau 2019ko ekainaren 27an izan zen eta Bergarako 26 espazio atxiki ziren **Gune Anitza** zigilura. Egunean bertan zigiluaren aurkezpena egin zen eta espazioetako ordezkariak manifestua sinatu zuten, ondoren argazki bat atera zutelarik.



Prozesu hau ordea, ez da hala nolakoa izan. 2019ko maiatzaren 27an interesa zuten espazioak EGK-k antolatu eta dinamizatutako saio batean parte hartu zuten, euren espazioetan aniztasuna nola lantzen den ulertzeko eta erasoei nola erantzuten zaien hausnartzeko.

Horrez gain, plangintzan zehaztu bezala, **Gune Anitza** ezagutarazteko bideoa garatu da. Honen grabaketa 2019ko urrian egin da eta bi bideo mota sortu dira: alde batetik, espazio ezberdinek aniztasuna nola ulertzen duten azaltzen duen 10 minutuko bideo bat; eta bestetik, sare sozialetan hedatzeko balioko duen minutu eta erdiko bideo laburra. Honetan 8 espaziok parte hartu dute: Marienea- Basauriko Emakumeen Etxea, Urtxintxa, Pikara Magazine, Aldarte,

Errespetuz, Bergarako udala (honen baitan antolatu zen ekitaldira hurbildu ziren espazioak), TaPuntu eta UPV/EHU.

Ebaluazioa

Proiektu honi egindako ebaluazioa oso positiboa izan da. Batez ere, espazio ezberdinen saretzea eta gaiaren lanketa egin delako.

Bergaran egindako ekitaldiak hainbat ekarpen ekarri dizkio proiektu honen helburuei. Alde batetik, zigiluaren zabalpena ekarri du herrian. Hori oso positibotzat jotzen da, izan ere EGK-k Bergaran ez du lanketarik egin gaur arte eta interesgarritzat jotzen du hiriguneetatik at sortzen diren harreman eta aliantza berriak. Bestalde, ekitaldia egiteaz gain, lanketa saioa egin izanak lan ildo berri bat abiarazi zuen herriko espazio ezberdinetan.

Ekitaldira Goiena telebista etorri zen eta [albiste](#) bat argitaratu zuten. Hau positiboki balioesten da, izan ere, proiektua Debagoienako mankomunitatera hedatzeko aukera ematen du.

Bideoari dagokionez, aipatu beharra dago hau egin izanak hainbat ekarpen egin dizkiola EGKri. Alde batetik, proiektua hasi zenetik hona atxikitako espazioekin harremana berreskuratu eta estutu da. Bestetik, honen difusioak, espazio berrietara iristeko aukera emango du.

6.4. Berdintasun Protokoloak



EGK-k Berdintasunaren aurkako Indarkeria mota ororen aurrean duen diskurtsoa garatu eta bere eragina hobetzeko, 2016an salaketa publikorako **Berdintasun Protokoloak** diseinatu zituen eraso matxista eta LGTBI+ fobikoen aurrean esku-hartzeko. Protokoloen onarpena Batzar Orokorraren bidez egin zen.

2019an, azken urteetan bezala, protokoloen erabilera egiten jarraitu du EGK-k. Horretarako, eman diren ustezko erasoak identifikatu, informazioa eskuratu eta salaketa publikoak egin ditu. Gainera, egiten dituen prentsa oharretako datuen eguneratzea egin du urte honetan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eraso matxista eta LGTBI+ fobikoen aurrean **Berdintasun Protokoloak** aktibatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Berdintasun Protokoloak** eguneratzea.
- **Berdintasun Protokoloen** eragina mantentzea.
- EGK-k Berdintasunarekiko duen konpromisoa berrestea.

Garapena

EGK-ko protokoloa gazterian ematen den eraso matxista edo LGTBI+ fobikoaren aurrean aktibatzen da. Horretarako, sarean eta hedabideetan salaketa juridiko zein publikoak aurkitzen direnean, horiei buruzko informazioa bilatzeko jarduna egiten da. Honek gauza argi bat adierazten du, jasotako informazioa ez dela erabat osoa, batez ere bi faktore nagusigatik: eraso denak ez dira salatzen eta sareetan jasotzen den informazioak askotan datuak falta ditu aktibatu ahal izateko.

2019an protokoloa 56 aldiz aktibatu izan da, guztiak indarkeria matxistarengatik aktibatuak. Baina, nahiz eta horiek aktibazio kopuruak izan, esan beharra dago 56 protokolo aktibazio horietan emakume gazteek jasandako 81 eraso izan direla. Izan ere, EGK-ko protokoloa ez da kasu bakar batekin aktibatzen, baizik eta multzoka aktibatzen da.

Eskuratutako informazioagatik, emandako erasoetatik gutxienez 35 emakume (%43,20) eta 79 (%97,53) gizon gazteak izan direla. Hala ere, erasoak jasan duen emakumeen adina edo erasoak egin duenaren adina jakin bezain laster egiten denez aktibazioa, ehuneko horiek ez dira guztizko zifrak. Aktibatutako kasu guztietatik 34 (%41,97) bikotekide edo bikotekide ohien artean eman da.

Eraso LGTBI+ fobikoei dagokionez berriz, urte honetan behin aktibatu da, pertsona politiko bati eraso homofoboak egiteagatik emandako salaketaren harira. Aktibazio gutxi egitearen arrazoia informazio falta izan da, izan ere, hainbat kasu jarraitu ditugun arren, ezin izan da protokoloa aktibatu.

Hala ere, maiatzaren 17a LGTBI+ fobiaren aurkako eguna izanik, manifestua atera zen Aldarterekin batera eta protokoloan ezarriak dauden eskaerak oroitzeko aprobetxatu zen.

Ebaluazioa

- Esan behar da helburua bete dela, hau da, “Eraso matxista eta LGTBI+ fobikoen aurrean **Berdintasun Protokoloak** aktibatzea”. Gainera, urtetik urtera hau aktibatzerako orduan agertzen diren zailtasunak errazago kudeatzen direla identifikatu da.
- Ikusi da, jende gehiagok ezagutzen duela protokoloa, hori dela-eta, informazioa errazago lortu ahal izan da.

6.5. Festak: Gure espazioa birpentsatzen

Berdintasun Protokoloen onarpenera eman zenetik, EGK-k askotan aktibatu ditu protokoloak.



Hala ere, udarako jaien gainean ematen den aktibazio kopurua oso esanguratsua dela identifikatu zen 2018an.

EAEko testuinguruan herri-festek eta hauen inguruan sortzen diren talde antolamenduek indar handia izan dute urte luzeetan zehar. Festa eta gozamenerako tarteak izaten den arren, jarrera matxista eta LGBTBI+ fobikoak ere ematen dira. Gainera, ekintza kolektiboak diren neurrian, gizartean eman diren eta ematen diren aldaketak islatzen dituzte.

Hori dela-eta, 2019an eremu hau ikertzea garrantzitsutzat jo da ematen diren desberdintasun eta gatazkak identifikatzeko. Hala, festak eta EAEko gazteak barnebilduko dituen aurre diagnosi bat egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Jaietan ematen diren erasoen aurrean udalen (berdintasun- eta kultura-sailak) eta herri eragileen (jai-batzordeak, mugimendu feminista eta herritarrak) artean dauden harremanak aztertzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Mugimendu feministek jai ereduaren aurrean egindako lana aztertzea.
- Jaietan ematen diren erasoen aurrean dagoen erantzun instituzionala zein den ikustea.
- Hartzen diren neurri politikoaren azterketa egitea.
- Etorkizunean maila instituzionalean sortu daitezkeen politika publikoei buruz hausnartzea.

Garapena

Proiektu honetan *BerdinHezi: hezkidetzarako lehen urratsak* proiektuan egin zen bezala, eztabaida taldeen dinamika baliatu da gaiaren gaineko azterketa egiteko eta informazioa jasotzeko. Horretarako, hainbat galderaz osatutako eskema bat garatu da. Bertan, gazteek eztabaidatu eta beraien iritzia eman dute moderatzaile baten laguntzaz.

Eztabaida talde horiek herrietan egitea erabaki da. Alde batetik, EGK-ko proiektu asko hirietan aurrera eramaten direlako eta garrantzitsua ikusten delako hiriguneetatik kanpo bizi diren gazteen iritzi eta ezagutzak entzutea; bestetik, herrietako berdintasun sailekin harremanak egin direlako eta elkarlan berriak egiteko aukera ona delako.

Harremana egin eta proiektua azaldu zaien herriak honakoak dira: Basauri, Ondarroa, Tolosa, Amurrio, Laudio, Eibar, Ermua eta Elgoibar. Izan ere, eztabaida taldeak non egingo diren erabakitzeko hainbat irizpide kontuan izan dira: EAEko lurralde ezberdinetan egitea, udalerriak emakumeen etxeak izatea, festen inguruko lanketak eginda izatea aurrez...

Orain arte, Basaurin, Tolosan eta Elgoibarren gauzatu dira eztabaida taldeak. Basaurin 2019ko uztailaren 16an, Tolosan 2019ko urriaren 16an eta Elgoibarren 2019ko azaroaren 17an. Hauetan, ordu eta erdiko saioak egin dira eta grabatu egin dira informazioa jaso eta sailkatzeko. Beste herrietan, oraindik zehazteke daude datak, baina egitea aurreikusten da.

Ebaluazioa

- Esan beharra dago, helburua zentzu batean bete dela: Jaietan ematen diren erasoan aurrean udalen (berdintasun- eta kultura-sailak) eta herri eragilean (jai-batzordeak, mugimendu feminista eta herritarrak) artean dauden harremanak aztertzea. Hala ere, orain arte egin den azterketa eremu txiki bati dagokiona izan da. Hau hainbat arrazoiengatik eman da. Hasteko, denboralizazio aldetik plangintzan zehaztutakoa baino motelago joan da proiektua. Hau, hainbat faktorengatik eman da: alde batetik, hauteskunde garaia izatea (bai hauteskunde politikoak eta baita hauteskunde sindikalak ere bai) eta bestetik, ikusi delako festa garaia ekainetik-irailera izanik udalek nahiago izan dutela eztabaida taldeak atzeratu. Bestetik, ikusi da herri askotan proiektuarekiko interesa izan arren, prozesu burokratikoak direla-eta, eztabaida taldeak egitea uste baino zailagoa dela.
- Identifikatu da herri askotan ematen ari dela euren jaietako analisia begirada feministatik egiteko mahai-inguru eta batzar irekiak. Zentzu honetan, ikusi da, herri mugimenduek gai hau lantzearen beharra identifikatzen dutela. Hori dela-eta, indar hau ere baliatu nahi izan da proiektua balioan jartzeko eta etorkizunean honekin jarraitzeko.

6.6. Hitzartzen: Emakume politikariak hitza hitzartzen



Azken urteetan mugimendu feministaren aldarrikapenak agenda politikoan sartu dira eta berdintasun politikak instituzioetan sartu dira (berdintasun teknikarien profesionalizazioa, berdintasun planen sorrera, eraso matxista eta LGBTBI+ fobikoen protokolizazioa...). Honek, politika publikoetan eragina izan du. Hala ere, emakume gazteen prekarizazioa nabarmena da oraindik. Zergatik? Zein da arazoa? Politika publikoetan behar besteko eragina izan du?

Zalantza horiek eta beste batzuk argitzeko, 2019an emakume politikariekin mahai inguru bat gauzatu da berdintasun politikek agenda politikoan zer nolako indarra eta eragina duten jakiteko.

Proiektu hau parte-hartze lan-arloarekin batera koordinatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasun politikek agenda politikoan duten garrantzia eta eragina aztertzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun neurrien analisi orokorra gauzatzea.
- Dauden oztopo eta zailtasunak zeintzuk diren ikustea.
- Berdintasun politikak hobetzeko izan daitezkeen tresnak identifikatzea.
- Gazteen artean berdintasun politikei buruzko eztabaida sortzea.

Proiektu hau, 2019ko azaroaren 13an egin zen Donostiako UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean (HEFA).

Datari dagokionez, mahai ingurua hauteskunderen ostean egitea erabaki zen, politikariek etortzeko aukera izan zezaten. Lekuari dagokionez, irisgarritasuna eta espazioaren egokitasuna kontuan izan dira. Horrez gain, garrantzitsua dela kontsideratu da unibertsitatean egitea gazteriarengana hurbiltzeko eta espazio honetan ere hausnarketa sortzeko.

Politikariei dagokionez, Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoetako emakumeak gonbidatu ziren: Maitane Ipiñazar Miranda, Oihana Etxebarrieta Legrand, Eukene Arana Varas, Natalia Rojo Solana eta Juana de Bengoetxea Estrade. Irati Sarasua Arabaolaza izan zen mahai ingurua moderatu zuena.



Topaketa bi zatitan banatu zen, alde batetik, politikariei hiru galdera luzatu zitzaizen eta hauek, bi minutu izan zituzten erantzuteko. Honakoak izan ziren galderak:

- Politika eredua maskulinoa dela irakurri izan da, eta Flandeseko Gobernuak Berdintasunerako Politiken zuzendaria izandako, Martha Frankenek esan zuen bezala, politika ez da zerbait arrazionala; areago, zerbait emozionala da. Zuen egitura

politikoetan zelan bizi duzue errealitate hau? Feminitatea nola bizi da? Honek badu loturarik emakume gazteak politikagintzara hurbiltzeko zailtasunekin?

- Berdintasun politikak instituzioetan sartu dira: Berdintasun teknikarien profesionalizazioa, berdintasun planak, kuotak, BeldurBarik programa... Emakume gazteok pairatzen dugun soldata arrakala, gazterian ematen den etengabeko indarkeria matxista, emakume migratzaile eta arrazializatuak jasaten duten arrazakeria... Hau da, pobreziak emakume aurpegia duela esaten da. Nahikoak dira gaur egun indarrean dauden berdintasun politikak?
- Orain dela bi aste Salda Badago EHko V. jardunaldi feministak izan genituen, eta hauetara bertaratu zirenek oraindik egiteko daudela esan zuten, esaterako dekolonizazioaren inguruko bidea aipatu zuten. Zuen ustez, zein da politika publikoetan berdintasunaren erronka etorkizunera begira?

Ondoren, publikoko jendeak aukera izan zuen galderak luzatzeko. Topaketara hurbiltzeko aukera izan ez zutenentzat streaming zerbitzua jarri zen. Zentzu honetan, jendeak zuzenean jarraitzeko aukera izan zuen eta #Hitzartzen traola erabiliz, galderak botatzeko aukera izan zuten.

Ebaluazioa

Lehenik eta behin, eta helburuei erreparatuz, esan beharra dago helburua bete dela erabat. Topaketa oso mamitsua izan zen eta politikariek egindako hitzartzeak gaiarekiko panoramika bat izateko balio izan zuen.

Publikoari dagokionez, esan beharra dago alde batetik jende gutxi etorri zela, baina bestetik hausnarketa interesgarriak plazaratu zirela. Streaming zerbitzuaren gainean egindako balorazioa positiboa izan da. Izan ere, etorri ezin zutenei topaketa zuzenean jarraitzeko aukera eman zien, eta hau jarraitu zutenak asko izan ziren. Horrez gain, gaur egun bertan esandakoa [sarean](#) aurkitu daiteke. Horrek, gaiarekiko interesa duen edozein gazteri ikusteko aukera ematen diolarik.

6.7. Eragin #Plazandre



EGKn eta beste hainbat espaziotan egiten diren hitzaldi, topaketa eta dinamiketan parte-hartzea orokorrean maskulinoa zela ikusita, Euskadiko emakume gazteek espazio publikoan duten parte-hartzea nolako den aztertu nahi izan zen 2018an. Horretarako #Plazandre ekitaldia garatu zen urriaren 31n UPV/EHUko Bizkaia Aretoan.

Topaketa horretan bildutako hausnarketa eta ideiak pilatuz ondorio-txosten bat egin zen, *Eragin #Plazandre*. Parte-hartzeari, espazio publikoetan hitz egiteari eta ahalduztzeari buruz hitz egiten du txosten honek. 2019an honen aurkezpena eta lanketa egin dira.

Aurkezpena EGK-ko elkarteei zuzenduta egon zen, izan ere, txostenaren testuinguraketa eta ondorioen azalpena izateaz gain, Euskadiko emakume gazteen errealitatea eta EGK-ko elkarteetako emakumeen errealitatea alderatu ziren. Antzekotasunak bilatu eta EGK barruan ere parte-hartze modu berriak sortzeko.

Proiektu hau parte-hartze lan-arloarekin batera koordinatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

#Plazandren ateratako ondorioak EGK-ko elkarteekin partekatzea eta EGK-ko elkarten artean ematen den parte hartzeari buruz hausnartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- *Eragin #Plazandre* txostena aurkeztea.
- Bertan ateratako ondorioak zeintzuk diren azaltzea eta horiek EGK-ko errealitatearekin alderatzea.
- Etorkizuneko ildo berriak jorratzea.

Garapena

Urte hasierako plangintzan zehaztu bezala, **Eragin #Plazandre** maiatzaren erdialdean egitea aurreikusi zen, bertatik atera nahi diren ondorio eta hausnarketak denbora tarte luzearekin lantzeko. Hala ere, hainbat elkarterekin bildu ondoren, ekitaldia atzeratzea erabaki zen. Izan ere, ezarritako dataren bueltan, hauteskunde politikoak, hauteskunde sindikalak eta azterketa garaia izateak zailtasunak jarri zituen elkarteetako kideak etorri ahal izateko. Zentzu horretan, **Eragin #Plazandre** ekitaldia urriaren 8an egin zen.

Bitarte horretan, berdintasun lan-arloa EGK-ko hainbat elkarterekin bildu da proiektua aurkezteko eta beraien parte-hartzea nolako den aztertzeko. Honakoak izan dira bildutako taldeak: Euskarabentura, CCOO Sindikatu Gazteak, Kale Dor Kayiko, LSB-USO, EGI eta Alboan besteak beste.

Topaketak bi atal izan zituen. Lehenik eta behin, etorri ziren elkarteek euren parte-hartzea nolako den (espazio ezberdinetan) azalduko zuten eta zein behar dituzten identifikatu zituzten. Horretarako, topaketa baino lehen egindako harremanetan, gako eta galdera batzuk luzatu zitzaizkien hauek landu eta plazaratzeko.

Bestetik, Mugarik Gabeko elkarteak etorri zen topaketara; euren laguntzaren bidez dinamizatu zen saioa eta dinamika parte-hartzaile ezberdinekin josi zen topaketa. Izan ere, urte asko daramatzate parte-hartze feministak lantzen espazio ezberdinetan.

Ebaluazioa

- Proiektu honi dagokionez, egindako ebaluazioa erabat positiboa izan da. Lehenik, bildutako taldeek (bai ekitaldira bertaratu zirenak baita etorri ez arren bildu zirenak) adierazi zutelako oso baliagarria izan zitzaizela tresnak sortzea. Zentzu horretan, identifikatu da elkarte batzuk lanketa handia eginga dutela eta beste batzuk ez. Hala, elkar elikatzeko funtsezkotzat ikusi da proiektu hau.
- Egia da, aldi berean, proiektu hau epe luzeko proiektu bat bezala ikusi dela. Alde batetik, parte-hartze feminista gaiaren barnean lantzeko zirrikitu asko daudelako eta lana bera luzea delako; bestetik, elkarte batetik bestera erritmoa, kontzientzia eta errealitatea aldatu egiten delako.

6.8. Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak

Proiektu hau bakea eta bizikidetzat teknikariarekin elkarlanean egin da. Memoriako atal horretan, zehazki [5.3. puntuan](#), azaldu da sakonago.

6.9. Haziak Astialdira hezkidetzat astialdian loratzeko lanketa

2018an, Emakunderekin dagoen hitzarmenaren baitan, hezkidetzat lantzeko proiektu bat burutu zen EGKn. Aurretiaz hezkidetzat landu gabe zegoenez, EAEko gazteek hezkuntza formalean ematen den hezkidetzari buruzko iritzia eta ezagutzak biltzen dituen dokumentu bat eratu eta aurkeztu zen: *BerdinHezi: hezkidetzarako lehen urratsak*.

2019an, hezkidetzat astialdi-hezkuntzan nola ematen den landu da. Alor honetan egon daitezkeen indargune eta hutsuneak identifikatu eta aurreko urtean egin zen bezala diskurtso bat eratze helburua izan da. Astialdi munduan hezkidetzarekiko agerikoak diren edo egon daitezkeen faktoreak batu, indargune eta hutsuneak identifikatu eta hauen inguruko lanketa da finean proiektu honekin lortu nahi izan dena...

Proiektu hau hezkuntza lan-arloarekin batera koordinatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkidetzak astialdi-hezkuntzan duen paperaren inguruan sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- *BerdinHezi*: hezkidetzarako lehen urratsak txostena Astialdi Foroari aurkeztea.
- Hezkidetzak astialdi-hezkuntzan gaur egun daukan errealitatea identifikatzea.
- Ateratako ondorio edo erradiografiatik, hezkidetzak lantzeko praktikak zeintzuk lirateke hausnartzea eta partekatzea.
- Egindako hausnarketatik, astialdi-hezitzailearentzat baliagarria izango den materiala bideratzea eta sortzea.

Garapena

Lanketa hau burutzeko, Bizkaia, Gipuzkoa zein Arabako astialdi elkarteekin harremanetan jarri da lehendabizi eta hauei proiektuaren asmoa azaldu zaie, beraiek analisi honetan parte hartzeko proposamena luzatuz.

Honakoak izan dira harremana sortutako taldeak: Geu elkarte, Euskarabentura, Euskalerriko Eskautak Araba, Azterlariak taldea, Gazte beti Alaiak, Auskalo Aisialdi Taldea, Gaztetxoak, Gurutze Gorria Gipuzkoa, Gurutze Gorria Bizkaia, Aisiola, Urtxintxan Gipuzkoa, Urtxintxa Araba, Itaka Eskolapios, Goizalde Eskaut Taldea eta Argizai Eskaut taldea.

Hauekin egindako harremanean gaia lantzeko beharrezana agerikoa dela jaso da. Izan ere, guztiak lantzen dute edota landu nahi dute hezkidetzak hezkuntza ez formalean nola ematen den. Hala ere, bakoitzaren errealitatea eta egunerokoa desberdina izanik eta taldeen denborak zein erritmoa errespetatze aldera, ez du denborarik eman guztiekin elkartzeko urte amaierarako.



Lortu nahi den informazioa biltzeko eta jasotzeko asmoz, lan saio bat prestatu da eta hauek izan dira analisisa lantzeko bildu diren hiru lerro nagusiak:

- Zein ezagutza daukaten hezkidetzari buruz.
- Zein esperientzia izan duten edo zein lanketa egin izan duten gai honen inguruan.
- Zein proposamen daukaten edo egiten duten etorkizunera begira lanketa honetan eta zein neurri proposatuko lituzketen.

Saio hauek, orotara 2 ordutako iraupena izan dute gutxi gorabehera, lantegi parte-hartzaile eta dinamiko forman eman direlarik (edo egin direlarik) eta aurrera begira formatu zein dinamika berberarekin jarraitzea aurreikusten da.

Honez gain, 2018ko ekainaren 14an, Alboan elkartearekin bildu zen EGKrekin izan zezakeen harremanari buruz hitz egiteko. Izan ere, Alboanek hezkidetzari buruzko diagnosi lana egin du eta baliagarria ikusten zuten **Haziak Astialdira** proiektuan egindako lana partekatzea. Zentzu honetan, eta gai berberaren baitan elkarlanerako aukerak ireki dira, lanketa hauek eta baita sortzen goazen ezagutzak ere alde bietarako aberasgarri eta erabilgarriak izan daitezten.

Ebaluazioa

- Proposamenak, oso harrera ona izan du hezkuntza ez formalaren munduan murgilduta dabiltzan eta EGKrekin jada saretuta dauden taldeen artean. Gainera, gai honi behar duen tarte emateko prest agertu diren hauek, parte hartzeko beraien konpromisoa

erakutsi dute, baita astialdian eman daitekeen hezkidetzarekiko ardura eta erantzukizuna ere.

- Gainera, taldeetan gai honen inguruan existitzen diren errealitate desberdinak ikusi ahal izan dira lan-saioetan, hauek anitzak izanik prozesua aberastu dute eta zentzu horretan baita ondorioak ere. Taldeetako batzuek, gai hau lantzeko aukera falta nabarmendu izan dute eta hau egiteko beharrezko tarte bezala identifikatu saio hau. Beste batzuek aldiz, hezkidetzaren gaia teorian landuta bai baina praktikara eramateko zailtasunak adierazi eta erakutsi dituzte eta beraz kasu horretan horretara moldatu da saioa: tresna errealak eraikitzeko aukera posibleen elkar trukatzera. Errealitate desberdinak kontuan hartuz, aurretik aipatutako gakoak atera dira talde eta lan-saio bakoitzean.
- Esan beharra dago, aurrera begira ere beste talde berri batzuekin egiteko beharra identifikatu izan dela, jada egin direnetan bezala klabe eta analisirako informazio bilketa egiteko baliagarria izatearen helburuarekin. Datorren urtera begira beraz, astialdian lanean dabiltzan elkarte gehiagorekin analisi hau egiten jarraitzearen beharra azpimarratu da, egunerokoan kokatzen den behar bat izanik.

6.10. I. Berdintasun Plana

Berdintasunarekiko konpromisoa modu eraginkorrean hartu nahi duen orok, beharrezkoa du konpromiso hori neurri ezberdinen bidez burutzea. Hala, 2017an EGKren **I. Berdintasunerako Plana** onartu zen eta ordutik abian izan da; EGKren testuinguru zehatzera egokituriko neurri eta ekintza ezberdinen bidez.

2019an, beste urteetan bezalaxe, **I. Berdintasun Planari** jarraipena eman nahi zaio, ezarriak dauden irizpideak jarraituz eta EGKren funtzionamenduan berdintasuna funtsezko elementu bilakatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren barne nahiz kanpo lanean berdintasuna zeharkako balore gisa errotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun Planean zehaztuak dauden neurriak inplementatzea.
- Ezartzen diren neurrien jarraipena eta balorazioa egitea.

Garapena

2019an ere, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna EGKren zeharkako balore eta gainerako ekintzen definizio lerro gisa kokatu nahi izan da. Horretarako, zeharkako lanketa, neurri zehatzen ezarpena eta jarraipena eta ebaluazioak egin dira.

Aurreko urteetan egindako lanketa eta tresna ezberdinen bidez, lehenengo ardatza, emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako Gobernantzararena, modu konstante eta diskurtsiboan egin da: ikerketa eta argitalpenetan, parte-hartzean... genero ikuspegia izatea.

Egitura eta soldata politikoaren ardatza, laneratze eta baxen ardatza eta langilearen formakuntzaren ardatza, planean zehaztu bezala, 2020rako lanketa izango dira. Hala ere, hainbat ideia garatu dira ardatz horiek lantze aldera.

Bestalde, EGKren kontziliazio egoera zein den aztertzea izan da erronka nagusi bat, eta hori aurrera eramateko galdetegi bat sortu da. Galdetegi horretan, EGK-ko langileei zuzenduriko hainbat galdera planteatu dira, hobekuntza posibleak identifikatu eta ekintzak sortzeko. Orain lanketa hori garatzen dago, 2020an neurriak hartzeko.

Ebaluazioa

Planean ezarrita dauden marko orokorrak betetzea positiboki ebaluatu da. Hau da, berdintasun arloko parte-hartze sareak baloreen ezartzea, ahaldunderako espazioak eta proiektuak bultzatzea, emakume gazteen artean dauden parte-hartze eredu berriak sustatzea etab.

Berdintasun lan-arloak, ordea, proiektu asko izan ditu 2019 urtean zehar. Hori horrela izanik, Planean ezarritako neurri zehatzak 2020an garatzea aurreikusi da.

6.11. Egunerokoa

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbesteko dute kontuan izatea urtean zehar beharrezkoak izango diren barne nahiz kanpo koordinaziorako bilerak, baita ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukerak ere. Hori dela-eta, berdintasun lan-arloak barne nahiz kanpo bilera anitzak kudeatu eta prestatu ditu.

Gainera, berdintasun lan-arloaren kasuan, gaiak berak dakarren zeharkakotasuna eta **I. Berdintasun Plana** dela-eta, barne neurriak ezarri dira EGKra begira eta lantaldeari begira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Beste lan-arloetako berdintasun ikuspegiko ekarpenak egitea.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta I. Berdintasun Planaren ebaluazioak egitea.
- Hedabideetan agertzea, hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileretan parte hartzea.

Garapena

Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamena

Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamenerako EGK-k ekarpenak egin zituen maiatzean. Horretarako, apirilaren 6an topaketa bat burutu zen gazteekin batera. Berdintasunetik aurreproiektu-proposamena genero begiradatik eta LGTBI+ kolektiboen beharrak identifikatuz aztertu zen.

Lanketa hau egiteko, Emakunderekin harremanetan jarri zen lehenik, hauen ekarpenak zeintzuk ziren ikusi eta EGK-k ere bere proposamenetan baliagarriak izan zitezkeenak hartzeko. EGK-k

ere, aldi berean, bidali zizkion bere proposamenak bueltan. Bestetik, berdintasun eta LGTBI+ kolektiboetako eragileekin harremanetan jarri zen eta hauek, helbide elektroniko bidez euren proposamenak bidali zituzten. Azkenik, berdintasunetik ekarpen guztiak biltzen dituen txosten bat egin zen.

Jardunaldiak: Eskola abian. Berdintasuna eta inklusioa

EGK-k hezkidetza lantzeko hartu duen konpromisoa dela-eta, hezkuntzako teknikariarekin batera 2019ko martxoaren 6 eta 7an hezkidetzako jardunaldi batzuetara joan zen. Bertan EGK-ko proiektuei dagokion informazioa biltzeko aprobetxatu zen, baita besteek eginiko lanketak ikusteko ere.

Aholkularitza

2019an EGK-ko eta honetatik kanpoko hainbat elkartek, protokoloaren eta berdintasuneko hainbat konturen informazio eskaera egin dute. Euren protokoloak landu eta ekarpenak egiteko eta lanketa posibleetan esku-hartzeko.

Hau egitea garrantzitsua dela ikusi da. Izan ere, elkarlana egiteko aukerak zabaltzen dituelako.

Sare sozialak

Feminismoa eta LGTBI+ mugimendua indarrean dagoen honetan, beharrezkotzat ikusten da horien aldarrikapen eta eskaerak zeintzuk diren ikustea. Gainera, batzuetan ez da horiengana iristea asmatzen. Hori dela-eta, sare sozialak tresna egokiak direla uste da, alde batetik, beraien lanketak egiteko informazioa jasotzeko eta bestetik, guk ere euren informazioa zabaldu eta saretzeko. Hala, egunerokotasunaren zati bat da sare sozialak errepasatzea eta informazioa eta ideia berriak biltzea.

Data esanguratsuak

Berdintasunean garrantzizkoak diren bi data daude: martxoak 8a eta azaroaren 25a. 2019ko martxoaren 8an EGK emakume langileak greba feministarekin bat egin zuten. Honen harira webgune eta sare sozialetan EGK-k grebaren diskurtsoarekin zuen lotura eta irakurketa adierazi zituen. Bestalde, 2019ko azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunean bideo bat grabatu zen, indarkeriak dituen 11 aurpegiak azalduz. Hau sare sozialetan partekatu zelarik.

Ebaluazioa

- Egunerokotasunak pisu handia hartzen du proiektutik proiekturako tartetean, eta hori zaintzea oso funtsezkoa da. Izan ere, EGK-k duen dinamika kontuan izanik, egunero sortzen dira aurreikusita ez zeunden gauzak. Gainera, askotan denbora galtzeak iruditu arren, etorkizuneko fruituak ematen dituen jarduna da egunerokotasuna. Hala, egindako ebaluazioa positiboa da.

7. Komunikazioa

7.1. Diseinatzaile gazteen lan-poltsa



Diseinatzaile gazteen lan-poltsa Bolsa de trabajo de personas jóvenes diseñadoras

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egunerokoan egiten duen lana ezagutarazteko ikus-entzunezko baliabideak oso interesgarriak dira. Alde batetik, lan-arloetatik diseinatutako helburuak lortzeko antolatutako proiektu eta ekimenen berri emateko iruditegia sortzeko; eta, bestetik, hauen bidez lortutako txosten, ondorio eta emaitzak gizarteratzeko. Are gehiago informazioa kontsumitzeko ohiturak aldatu direnean. Hori dela-eta, eta azken urteetako lanari jarraipena emateko, 2019an diseinatzaile gazteen lan-poltsa berritu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k 2019an zehar izango dituen diseinu lanak egiteko diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzea eta diseinatzaile gazteei aukerak ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k bere eguneroko lana zabaltzeko beharrezkoak diren euskarrien diseinuak garatzea. Euskarri hauek kartelak, eskuorriak, liburuxkak, txostenak... izango dira.
- EGKren lana zabaltzeko eta laburtzeko bideoak egitea.
- 2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu zen Datuen Babeserako legea betetzeko azken neurriak abian jartzea.

Garapena

Orain arteko diseinatzaileekin harremana:

2016an lehen deialdia egin ostean, urtez urte lan-poltsa berritzen joan da EGK. Lehen pausua aurreko urteetatik lan-poltsan zeuden diseinatzaileekin harremanetan jartzea izan da. Horretarako, mezu elektronikoko bidez diseinatzaile bakoitzari lan-poltsan jarraitu nahi zuen galdetu zaio. Batzuen egoera aldatu zenez –autonomo bezala ez jarraitzea, lanean aritzea, kanpora joatea, etab.–, deialdia egin aurretik zazpi diseinatzaile zeuden lan-poltsan. Azkenik, pausuak eman dira hauek guztiekin Datuen Babeserako legea betetzeko: baimena haien datuak betetzeko, emandako datuak nola kudeatuko dituzten, etab.

Lan-poltsa berritzeko deialdia:

Lantalde Teknikoak urtean zehar izango diren beharrak identifikatu ostean, urtarrilaren 22an lan-poltsa berritzeko deialdia egin zen. Hau webgunean eskegi zen, EGK-ko elkarte eta administrazioei emailez jakinarazi eta sareetan zabaldu. Bigarren albiste bat ere egin zen. Diseinatzaile gazteek CV eta porfolioa otsailaren 22a arte bidaltzeko aukera zuten. Azkenean, guztia, 25 hautagai izan dira.

2019rako lan-poltsa:

Aukeraketa egin ostean, diseinatzaile gazteen lan-poltsan 13 izan dira. Urtean zehar lan-arloetako teknikariak harremanetan jarri dira haiekin sortutako beharrak asetzeko. Era berean, batzuen egoera aldatu egin da eta, hori dela-eta, diseinatzaile gazteen lan-poltsatik at geratu dira.

Ebaluazioa

2019an zehar hainbat diseinatzaileekin harremana izan ostean EGKtik argi ikusi da egindako materialek duten kalitatea dela-eta diseinatzaile gazteen lan-poltsa ekimen oso baliagarria dela. Proiektu bakoitzak dituen helburuak lortzeko oso lagungarriak dira sortzen dituzten produktuak.

Horregatik, 2020ari begira berau mantentzea aurreikusten da eta, identifikatutako beharren arabera edo une honetan lan-poltsa osatzen duten gazteen egoeraren arabera, deialdi berri bat egitea.

7.2. Sare sozialak kudeatu



XXI. mendean komunikazioan sekulako eragina izan dute sare sozialek eta EGK ez da bereiz geratu. Oso baliagarriak izan dira bai egindakoaren berri emateko, zein helburu komunak dituzten eragile eta elkarteekin harremana egin eta aurrera eramaten dituzten proiektuen berri izateko. Lehenerako sare sozialak ia egunero eguneratu izan dira eta bigarrenerako gainerako lan-arloekin harremanetan sare bat jostea izan da asmoa.

Sare sozial bakoitzak bere prozedura propioa du: Facebook-en mezuak programatuak utzi dira zabalpeneko mezuek ahalik eta eragin gehien izateko eta aste-bukaeretan ere argitalpenak egiteko; Twitterren erdi bideko lana egin da, batzuetan hariak egin direlako eta Instagramen beti unean uneko argitalpenak egin dira.

Aurreko urteetako estrategian sakondu da sare sozialetako mezua EGKren publikora ahalik eta gehien gerturatzeko: batetik, ikus-entzunezkoei garrantzia handiagoa eman zaie; eta, bestetik, antolatutako ekitaldietan unean uneko jarraipena egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren presentzia indartzea, elkarrizketa sortzea (erabiltzaileekin eta gaiei buruz), jardueren informazio gaurkotua argitaratzea eta funtzioekin lotutako edukiak elkarbanatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k antolatutako ekitaldien eta hauetan lortutako ondorioen zabalpena egitea.
- Trafikoa www.egk.eus webgunera edo izen-emate formularioetara bideratzea.
- Antolatutako ekitaldiei buruz gazteen feedback-a lortzeko mezuak traola ezberdinetan biltzea: **#GukEzetz**, **#Etikasi**, **#Boluntaldia**, **#MilakaElkarbizitza**, **#Plazandre**, **#HistoriaOsatzen**, **#Hitzartzen**, etab.
- Bestelako eragileek antolatutako eta gazteentzako interesgarriak izan daitezkeen egitasmo eta proiektuen berri ematea.

Garapena

Sare sozialen garrantzia buruan izanda eta eguneroko komunikazioa gertuagokoa eta erakargarriagoa izateko, EGKren profil ezberdinetan mezuek beste kutsu bat izan dute. Arinagoak eta zuzenagoak izatea izan da asmoa, ikus-entzunezkoen presentzia gehiagorekin. Noski, sare bakoitzak berezko dituen ezaugarrien arabera ezberdintasunak egon dira.

Twitter:

[Sare sozial honetan](#) mezuak efimeroagoak direla esaten bada ere, elkarrizketa eta erantzunak jasotzea gehien errazten duena da. Gainera haren bitartez mezuak denboran manten daitezke. EGKtik maiz erabili dira, bai proiekturen bati jarraipena emateko zein ekitaldien unean uneko jarraipena egiteko. Adibide modura **#MilakaElkarbizitza** Hiruburua edo **#Hitzartzen** mahai-ingurua: lehenik zabalpenerako hari bat egin zen: eta, ostean, hari horretako lehen txioa birtxiokatuz unean uneko jarraipena. Horrela aste batzuk lehenago egindako mezuak baliatu dira.

Facebook:

Azken urteetan beheraka egin du eta, horregatik, aurten bestelako estrategia erabili da [Facebook](#) sarean. Gainera, EGK-k orrialdea duenez, publiko berrietara heltzeko erabiltzaileen “Atsegin dut” akzioa lortu behar da, edo jada atsegin duten erabiltzaileek euren profiletan zabaltzea. Hori dela-eta mezuak aurreko urteetakoetatik zerbait aldendu dira. Batetik, emotikonoekin jokatu da lekua, ordua, eguna edo bestelako hitzak aurrezteko eta esaldiak arintzeko. Bestetik, irudiak edo pertsonak azaltzen diren argazkiak erabili dira atentzioa emateko.

Erabiltzaileak bere horman dituen mezu guztietatik ezberdintzea izan da asmoa.



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua Egk

🗣️ EGK-ko Hezkuntza Foroan parte hartzeko aukera zabalik daukazu! Zure esperientziak ezagutzera emateko eta beste gazteekin batera bizipenak partekatzeko edo ikasle problematika eta proposamenak lantzeko tresnak garatzeko! 🖋️💡📝

👉 Informazio gehiago

📧 hezkuntza@egk.eus


☎️ 944436143 (Irati)

🗣️ ¡Puedes participar en Hezkuntza Foroa de EGK! Si quieres dar a conocer tu experiencia y compartir tus vivencias con otras personas jóvenes, en este foro, se ofrecen herramientas para llevar a cabo reivindicaciones y propuestas sobre la problemática de las personas estudiantes 🖋️💡📝

👉 Si quieres más

hezkuntza@egk.eus

☎️ 944436143 (Irati)



Instagram:

[Instagram](#) gorantz doan sarea da eta horregatik 2019an esfortzu berezia egin da eduki gehiago sortzeko. Alde batetik, egunean gutxienez argitalpen bat egin da horman ahalik eta informazio zehatzena emateko. Mugikorretik erabiltzen den sarea izanda ez da oso ohikoa mezu luzeak irakurtzea. Gainera, bertan estekak jartzea ez da posible, soilik story-etan eta erabiltzaile batzuentzat. Hori dela-eta, mezu laburren aldeko apustua izan da, irudiaren bitartez atentzioa emateko. Era berean, irudiak geolokalizatu dira eta traolen bitartez ahalik eta informazio gehien eman da. Izan ere, oso ohikoa da erabiltzaileek bilaketa zehatzak gordetzea faborito modura edo traola bereziak —#Iger eta antzekoak— jarraitzea.

Azkenik, story-etan geolokalizazioa ere erabili da bilaketa horietan azaltzeko eta, kasuan-kasuan, elkarlanean aritutako eragileak ere aipatu dira haiek zabalpenean lagun zezaten. Hauek, gainera, EGKren profilean nabarmentzeko aukeran pilatu dira edozein erabiltzailek nahi duenean ikusi ahal izan ditzan.

YouTube:

EGK-k dituen baliabideengatik egunerokoan gutxien erabiltzen den sare soziala da [YouTube](#). Hala ere, aurreko urteetan egin bezala, antolatutako ekitaldi gehienek laburpen bideo bat izan dute. Zehazki, hauek dira egindako bideoak:

- 2019ko 21. Korrikan EGKren kilometroaren laburpena <https://youtu.be/-1p6vzqyM>
- **Etikasi** programa
 - Programaren aurkezpena <https://youtu.be/WM4Fc-Vn40A>
 - Bidaiei aurreko azalpena <https://bit.ly/2YyMSVA>
 - Zumaiei irakurleek iritziak <https://youtu.be/ElnQlcBjDml>
 - Zumaiei irakurleek iritziak <https://youtu.be/VKG16kdTXOo>
- Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) gonbidatuta eskainitako udako ikastaroa <https://bit.ly/2KYiy3Q>
- GazteLagun programaren analisia <https://youtu.be/-WTFXEuOu8>
- *Islamofobia: Feminismoak, erronkak eta ikuspegiak* ekitaldiaren laburpen bideoa <https://bit.ly/2Xx7xJX>
- ‘Eta gazteen emantzipazioa’ Hiruburua

- Zabalpenean laguntzeko bideoa <https://youtu.be/EzSQM-6xjcc>
- **#MilakaElkarbizitza**
 - Zabalpenean laguntzeko bideoa <https://youtu.be/fV2eeJ4Bf-w>
 - Ekitaldia laburtzeko bideoa <https://youtu.be/jaPukOpO4XU>
- **Eragin #Plazandre**
 - Ekitaldia laburtzeko bideoa <https://bit.ly/2r9BYtP>
 - Ondorioak aurkezteko bideo laburra <https://bit.ly/35ej1om>
 - Ondorioak aurkezteko bideo luzea <https://youtu.be/suY1mmakyGg>
- **#Hitzartzen**
 - Streaming-eko esteka <https://youtu.be/gEaglf8vOgl>
 - Ekitaldia laburtzeko bideoa <https://bit.ly/2D2TLFK>

Hauetaz gain aipamen berezia merezi dute EGK-k bere ibilbidean zehar sortutako diskurtsoa gizarteratzeko egindako bideoek. Hauek oso baliagarriak izan dira sareetan zabaltzeko, aurkezpenetan proiektatzeko edo hainbat eragilerekin harremanetan jartzerakoan jarduna azaltzeko.

- Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa <https://youtu.be/UVsBSGyhT-Y>
- Indarkeria LGTBI+ jebikoaren aurkako protokoloa <https://youtu.be/KXoGjMUPsnO>
- Lan istripuak salatzeke protokoloa <https://youtu.be/wlBlok4epw>

Linkedin:

Aurreko urteetan bezala, egunerokoan ez da esfortzu berezirik egin LinkedIn sarean, orokorrean webgunearen posizionamendua hobetzea izan da asmo nagusia. Lan deialdiak izan diren kasuetan esfortzu berezia egin da hauen zabalpenerako, gazteak bertan bilatu ohi baitituzte aukerak.

G+:

Google-k bere sare soziala ixteko apustua egin zuen.

Ebaluazioa

Gazte, gazte-elkarte eta administrazioen artean zubi-lana egiterakoan ahalik eta harreman gehien izan behar dira. Soilik honela lortuko delako iritzi eta proposamen ahalik eta anitzenak izatea. Bide horretan sare sozialak oso baliagarriak izan dira.

Twitter:

2019an sare sozial egonkorrena izan da Twitter. Mezu laburrak eta unean uneko jarraipenak egiteak bultzada nabarmena eman dio. Urtea 3.095 jarraitzaileekin hasi zuen EGK-k eta soilik abuztuan ez da kopurua hazi. Gainera, ekitaldi potenteak egon diren heinean egindako unean uneko jarraipenari esker gorakada argia eman da. Nabarmenezkoa azaroa **#MilakaElkarbizitza** Hiruburuarekin, garraio gastuen azterketarekin edo **#Hitzartzen** mahai-inguruarekin.

Hilabetea	Inpresioak	Profilera bisitak	Jarraitzaile berriak
Urtarrila	41.300	934	+3
Otsaila	44.900	877	+7
Martxoa	48.400	1.396	+16
Apirila	39.000	881	+6
Maiatza	40.900	729	+8
Ekaina	30.100	808	+4 (3.142)
Uztaila	31.200	755	+4
Abuztua	33.400	196	-1
Iraila	46.900	443	20
Urria	39.400	398	3
Azaroa	50.300	483	30
Abendua (10a arte)	7.653	52	2
Guztira	453.453	7.952	102 (3.197)
<i>2018an</i>	<i>564.800</i>	<i>13 119</i>	<i>+126 (3095)</i>

Taula honek adierazten du urtero-urtero EGK-k jarraitzaile gehiago lortu dituela —hiru urte atzera begiratuz gero 2.701 zituela ikus daiteke— eta, nahiz eta argi dagoen emaitza ona dela esateko irizpide bakarra ezin dela izan, seinale on bat bada.

Horretaz gain, Twitter sareak hainbat datu boladaka pilatzeko aukera ematen du. Jarraian dagoen taulan hiru hilabeteka bildu dira bidalitako txioek lortu duten eragina neurtzeko hainbat:

	Urtarrila/martxoa	Apirila/ekaina	Uztaila/iraila	Urria/abendua	Guztira
Inpresio kopurua	134.500 (egunean 1.500)	110.900 (egunean 1.200)	110.000 (egunean 1.200)	99.600 (egunean 1.400)	365.360
Interakzio-tasa	%0,9	%0,9	%0,8	%0,9	%0,88
Esteketan klikak	233 (egunean 3)	254 (egunean 4)	232 (egunean 3)	239 (egunean 3)	958
Birtxioak	192	131	116	94	533
Atsegin dut	419	325	270	218	1.232
Erantzunak	197	100	92	151	540

Datu hauek azken urteetan sare sozialean izandako jarrera aldaketa berresteko arrazoiak ematen dituzte. Proiektuka mezu gehienak traola batean pilatuz eragin handiagoa izan da, informazioa aurkitzea erraztu da eta marka indartu da. Bestetik, irratan edo telebistan izandako elkarrizketei edo ekitaldiei egindako unean uneko jarraipenak birtxioak, erantzunak edo atsegin erreakzioak areagotu ditu. Era honetara, erabiltzaileek txio bat ikusiz gero, ekitaldiko gainerako mezuetara errazago hel daitezke. Eta, gainera, beste edozein unetan proiektu horren jarraipena berrerabil daiteke eta honen oihartzuna areagotu.

Facebook:

Aurreko atalean esan den bezala Facebook sare sozialean trafikoa beheraka egin du eta EGKren orrialdeko kasuan ez da ezberdin izan. 2019 urtea 4.032 jarraitzaileekin hasi zuen eta, orduetik, lortutako inpaktuak nabarmenki jaitsi dira. Beheko taulan bildu da jarraitzaile kopurua:

Hilabetea	Jarraitzaile berriak
Urtarrila	-8 (4024)
Otsaila	+1 (4025)
Martxoa	+4 (4.029)
Apirila	+1 (4.030)
Maiatza	+4 (4.034)
Ekaina	+1 (4.035)
Uztaila	+5 (4.040)
Abuztua	-5 (4.035)
Iraila	+10 (4.045)
Urria	+19 (4.064)
Azaroa	+7 (4.071)
Abendua (10a arte)	+14 (4.085)
Guztira	+61
2018an	4032 (+50)

2018an ia 4.000 jarraitzaileen langa pasa zen. 2019an jende gehiagorengana iristea gehiago kostatu da. Azken urteetan eman den komunikatzeko modu berrietara moldatzeko saiakera egin da ekitaldi bakoitzaren amaieran laburpen bideo bat igota. Gainera, zuzenean Facebook-era igotzeko apustua egin da, eduki organikoa gehiago sustatzen duelako sare sozialak. Ildo horretan, ekitaldien hasierako hitzaurrearekin zuzenekoak ere egin dira.

Begi-bistakoa da sare sozialak erabiltzaileak galdu dituela, bai jendeak profilak borratu dituelako bai eta mantentzen dutenek erabilera gutxiago egiten dutelako. Bide horretan, EGK-k ere jarraitzaileak galdu ditu eta trafikoa jaitsi da. Hori dela-eta mezuak birpentsatu dira eta proiektu konkretuak sustatzeko publizitatea egin da. Honela bide berriak ireki dira eta 2020ari begira kontuan izango dira.

Instagram:

Esan den bezala, azken urteetan gorakada konstanteena izan duen sare soziala. Horretarako bi izan dira arrazoi nagusiak: batetik, EGK-k zuen abiapuntu erraza —2016ko martxoan 70 jarraitzaile besterik ez zituen—; eta, bestetik, gazteen artean izan duen goraka. Beheko taulan bildu da azken urteotako bilakaera.

Urtea (abendua)	Jarraitzaile kopurua	Jarraitzaile berriak
2019	1.033	+253
2018	780	+374
2017	406	+223
2016	183	

Bestelako estatistikak lortzerako orduan, Instagram sarea da zailtasun gehien jartzen dituen. Hala ere, argitalpenak begiratu gero, begi-bistakoa da gero eta emaitza hobekiak ematen ari dela sare soziala. Batetik, aipatu den bezala, jarraitzaile kopurua goraka doalako nabarmenki. Bestetik, aurrekoarekin estuki lotuta, atsegite eta interakzio kopuruak ere goraka egin dutelako, batez ere, story-ak publikatu direnean. Hirugarrenik, orain arte ez bezala, ekitaldi edo jardunaldietara gerturatu diren parte-hartzaileak Instagramen EGK zitatzeko hasi direlako eta hauetako traolak erabiltzen hasi direlako.

7.3. EGK ezagutarazteko bideoak

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua 1986an sortu zen eta, orduetik, diskurtso zabal eta anitza osatu du. Era berean, erabiltzaileek informazioa kontsumitzeko modua aldatu dutenez, aro berrira moldatu behar izan du hau komunikatzeko modua. Hori dela-eta, azken urteetan esfortzu berezia egin da urtean zehar garatutakoa bestelako euskarrien bidez komunikatzeko. Esaterako, ekitaldi gehienek laburpen bideo bat izan dute amaieran, maiz parte-hartzaileen iritziak bilduz.

Horretaz gain, EGKren diskurtsoa markatu duten txosten, egitasmo edo bestelako lan nagusiak gizarteratu, zabaltu eta azaldu nahi izan dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k bere ibilbidean sortutako diskurtsoak, proiektuak, lanak eta egitasmoak zabaltzea eta gizarteratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren marka indartzea eta ezagutzera ematea.
- Sare sozialetan ikus-entzunezko materialarekin hornitzeko bideo ateporalak izatea.

Garapena


Ekitaldi ia guztien ostean bertan egindakoa laburtzeko bideo bat egin da. Hau sareetan zabaltzeko da bi funtzioekin: batetik, ekitaldian egindakoa beste modu batera azaltzea; eta, bestetik, ekitaldiari itxiera ematea. Gainera, zenbait kasutan, parte-hartzaileen laguntza ere izan da.

Bestetik, diseinatzaile gazteen lan poltsan dauden diseinatzaileekin harremana egin da EGKren bideo korporatibo berria osatzeko.

Ebaluazioa

- Ekitaldi ororen ostean egindako laburpenak oso baliagarriak suertatu dira. Batetik, bertaratu ezin izan direnek hurrengo egunetan zer egin den jakin ahal izateko; eta, bestetik, denbora pasatuta berriro erabili ahal izan direlako. Eragile berri batekin harremanak egitean edo ekitaldia azaldu behar izan denean bideoa erakutsita informazioa beste modu batera aurkeztu ahal izan da.
- EGK-k bere burua aurkezteko egun duen bideoa berritzeko prozesua abian da, beraz oraindik ezin da ebaluaziorik egin.

7.4. Lan-arloka sarea osatu



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) helburua gazteen eta administrazioen artean zubi-lana egitea da. Horretarako, ahalik eta gazte eta gazte-elkarte gehienekin du harremana, bai plataformako kide direnekin zein ez direnekin ere. 2019an zehar aurreko urteetan egindako zerrenda eguneratu eta sakondu da, proiektuan ezarritako helburuak lortzeko bidean sinergiak topatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren lan-arlo bakoitzeko harreman-sarea indartzea eta sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arlo bakoitzak egiten dituen lantalde, bilera edo ekimenetan parte-hartzaile kopurua igotzea.
- Elkarlanean eragile gehiagorekin aritzea.
- EGK ezagutaraztea.
- EGKren marka sendotzea.

Garapena

Aurre diagnosi:

EGKtik antolatutako proiektu orori begira helburu berdinak dituzten eragileen zerrenda egin da. Batetik, haiekin elkarlana bilatzeko eta aukera balego euren esperientzia jardunaldi edo topaketetan azaltzeko. Gainera, honela, zabalpenerako bigarren eragile bat ere badago. Bestetik, gazteei bideratutako antzeko egitaraua antolatzen duten espazio edo agenden zerrenda egin da, haien zerbitzuen bitartez zabaltzeko ere. Azkenik, hiri edo lurraldeko eragileen zerrenda ere egin da informazioa haiei bidali eta antolatutako proiektura gonbidatzeko.

Mapeoa:

Behin zerrenda osatu ostean haiekin kontaktuan jartzeko modua bilatu da. Elkartegintza asko aldatu da azken urteetan eta eragile orok bere datuak ez ditu eguneratuak Interneteko webguneetan. Hori dela-eta, mapeo bat egin da bestelako baliabideen bitartez (sare sozialak, beste eragileekin harremana) haien kontaktua lortzeko.


Harremanetan jarri:

Azkenik, behin kontaktua izanda eragilearekin harremana egin da EGK zer den azaltzeko, antolatutako proiektuaren berri emateko eta, aipatu den bezala, zabalpenerako laguntza eskatuz eta bertara gonbidatuz.

Ebaluazioa

- EGKren publikoa 18 eta 30 urte bitarteko gazteak dira, hau da, une oro aldatzen ari den kolektiboa. Behar berriak identifikatzen dira, eragileak desagertzen eta sortzen doaz eta administrazioek maiz bideratzen dituzte programa edo egitasmoak. Hori dela-eta, beharrezkoa da harremanak ahalik eta eguneratuenak eta sendoenak izatea.
- Beraz, hurrengo urteetan egindakoa oinarri izanda osatzen eta berritzen joango da komunikazio teknikaria, Lantalde Teknikoaren, Batzorde Iraunkorraren eta lan-arloetako lantaldeen laguntzarekin.

7.5. Piztu! buletin digitala



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatutako ekimen eta proiektuen berri emateko ezarritako kanala da **Piztu! buletin digitala**. Honen bitartez 2-3 astean behin harpidetuek aurrera eramandako ekimenen berri jasotzen dute. Puntu hau oso garrantzitsua da, izan ere hartzaileen interesak mezua helarazterakoan asmatzea errazten duelako.

Bidalitako edukiak honakoak dira:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jarduerak.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintza, proiektu edo egitasmoak agenda atalean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK), berau osatzen duten elkarten, gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikusaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k zein osatzen duten elkarteek egiten duten lana harpidetuei jakinaraztea eta gizarteratzea.

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea haien ekimenak ezagutarazteko.
- Euskadiko administrazioek gazteei bideratutako proiektu eta egitasmoak gazteei helaraztea hauentzako interesekoak badira.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Euskara sustatzea (edukiaren %60 gutxienez euskaraz).

Garapena

2019an zehar, aurreko urteetan bezala, 2-3 astean osatu eta bidali da **Piztu! buletin digitala**. Orokorrean asteazkenetan lehen orduan egin da, nahiz eta zabalpen puntual batzuen arabera ostegunean ere egin den. Era berean, opor garaietan etenaldiak egin dira kontatzeko albisteak gutxitu direlako eta hartzaileek ere atsedena har zezaten. Ezin da ahaztu erabiltzaile orok edozein unetan bertan behera utz dezakeela harpidetza.

Harremana izan den elkarte eta eragileei aukera eskaini zaie euren proiektuen berri emateko eta beste hainbatek eskaria egin dute. Hori dela-eta, 2019an zehar **Piztu! buletin digitalak** duen agenda atala inoiz baino osatuagoa joan da.

Era berean, 2018an Datuen Babeserako legea betetzeko egindako aldaketen ondorioz harpidetza mordoa galdu zirenez, 2019an zehar esfortzu berezia egin da antolatutako ekitaldi orotan eta EGK bezala bertaratutako ekitaldietan ere harpidetzeko aukera eskaintzeko.

Hemen jarraian 2019an bidalitako **Piztu! buletin digitalak**:

- **Piztu! 32 buletina** <https://labur.eus/piztu32>
- **Piztu! 33 buletina** <https://labur.eus/Piztu33buletina>
- **Piztu! 34 buletina** <https://labur.eus/piztu34>
- **Piztu! 35 buletina** <https://labur.eus/piztu35>
- **Piztu! 36 buletina** <https://labur.eus/piztu36>
- **Piztu! 37 buletina** <https://labur.eus/piztu37>

- Piztu! 38 buletina <https://labur.eus/piztu38>
- Piztu! 39 buletina <https://labur.eus/piztu39>
- Piztu! 40 buletina <https://labur.eus/piztu40>
- Piztu! 41 buletina <https://labur.eus/piztu41>
- Piztu! 42 buletina <https://labur.eus/piztu42>
- Piztu! 43 buletina <https://labur.eus/piztu43>
- Piztu! 44 buletina <https://labur.eus/piztu45>
- Piztu! 45 buletina <https://labur.eus/piztu46>
- Piztu! 46 buletina <https://labur.eus/piztu47>
- Piztu! 47 buletina <https://labur.eus/piztu48>
- Piztu! 48 buletina <https://labur.eus/piztu49>
- Piztu! 49 buletina <https://labur.eus/Piztu50>

Ebaluazioa

- Eragile eta administrazioek euren ekitaldiak zabaltzeko eskariak nabarmendu du **Piztu! buletin digitalak** helburua bete duela.
- Apenas eman da harpideturen bat baxan, beraz hurrengo urteei begira **Piztu! buletin digitalaren** bidalketa kopurua mantenduko da.
- Bidalitako **Piztu! buletin digitalak** ia %50eko irekiera izan dute; antzeko buletinetan zifra %25 eta %30aren artean izatea emaitza oso positibotzat hartzen da.

2020an zehar ekitaldietan eta bertaratutako topaketetan indarra jarriko da harpidetu kopurua handitzeko.

7.6. Gizarte Aldaketarako Herritartasuna

Deustuko Unibertsitateak hautazko modura 'Gizarte aldaketarako herritartasuna' ikasgaia eskaintzen du Donostiako campusean. Deustuko Unibertsitateko Fakultate guztietako ikasleek aukeratu dezakete irakasgai hau bigarren lauhilekoan (otsaila-maiatza).

Honen bitartez gazteak herritar bezala hezteko da helburua eta, besteak beste, gizartean eraldaketa sortzeko eragin-plan bat sortu behar dute. Lau elkarte, tartean EGK, irakasgaiaren izen eman duten gazte-taldeak aholkulari izan dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko ikasle-talde bat aholkatzea herritarren parte-hartzearen gaineko eragin plan txiki baten diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Deustuko Unibertsitateko ikasleen parte-hartzea sustatzea.
- Gizarte eraldaketa lortzeko parte-hartzearen garrantzia ikasleei ikusaraztea.
- Deustuko Unibertsitatearekin harremana sendotzea.
- EGKren sozializazioan laguntzea eta EGK gazteen artean ezagutaraztea.

Garapena

Aurreko urteetako esperientzia aberasgarritzat jota, 2019an Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko ikasleek pausu bat haratago joatea erabaki zuten elkarteen inplikazioa handitu eta proiektuan sakontasun gehiago lortzeko.

EGKren aurkezpena Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean:

EGK-k egiten duenaren aurkezpena egin zuen 'Gizarte aldaketarako herritartasuna' ikasgaiko Donostiako campuseko ikasleen aurrean otsailaren 13an. Besteak beste, egun dauden lan-arloak eta hauek egindako lana, lantaldeen funtzionamendua, administrazioekin izandako lana eta

azken urteetan mahai gainean jarritako aldarrikapen eta proposamenak azaldu ziren, hauek eragin-plan bat modura azalduz ikasle-taldeak inspiratzeko asmoz.

Ikasle-taldearekin bilerak:

Aurkezpeneren ostean martxoaren 20an ikasle-taldea EGKrekin harremanetan jarri zen eta lehen bilera martxoaren 27rako zehaztu zen. Bertan ikasleek euren asmoak eta zalantzak azaldu zituzten. Gaia zehaztu ostean, teknologiaren munduan emakumeen presentzia, elkarlanean lan lerro bat zehaztu zen: hurrengo pausuak noiz eman, zein iturritatik atera informazioa, esperientziak biltzeko elkarrizketak egin, etab. Deustuko Unibertsitateko ingeniartza irakasleekin hitz egingo zutela adostu zen, diagnostikoa osoagoa izateko eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan dibulgazio modura emango ziren hitzaldiei begira lehen eskuko informazioa lortzeko. Era berean, Gazteen Euskal Behatokiarekin harremanetan jartzea aholkatu zitzairen.

Hurrengo asteetan eta batez ere apirilean emailaz izan zen harremana. Aste Santuko oporrak tarteko, biltzeko data bat zehaztea zaila izan zen eta, hori dela-eta, ikasle-taldeak aurrerapausoak emailaz bidali zituen eta EGK-k feedback-a eman.

Opor ostean maiatzaren 8an zehaztu zen jarraipen-bilera. Elkarrizketak egitearen garrantzia azpimarratu zuten, lehen eskuko informazio horrek asko lagundu baitzien hitzaldiak ematerako orduan. Era berean, hitzaldiekin lortutako eraginak asko harritu zien Deustuko ikasleei. Ikastetxetako ikasleek zuzenean idatzi zieten informazio gehiago eskatuz eta irakasleak oso eskertuak azaldu ziren.

Behin proiektua amaituta ebaluazio bilera egin zen ikasle-taldearekin maiatzaren 21ean. Hau, era berean, hurrengo egunean klasekideen aurrean zuten aurkezpenerako baliatu zen.

Ebaluazioa

- Deustuko Unibertsitatearekin harremana sendotzeko baliagarria izan da.
- Donostiako campuseko ikasleengana gerturatzeko aukera ona izan da, bai proiektuan laguntzeko eta baita bestelako gaietan aholkularitza egiteko. Besteak beste Osoigo plataforma, EGKren lantaldeen informazioa edo lan baldintzen zalantzak argitzeko.

- Ikasle-taldearen planak emaitza nabarmenak izan zituen, hitzaldiak emandako ikastetxetako bateko hainbat neskek hurrengo asteetan ikasketa teknologikoen informazioa eskatu baitzuten.

7.7. Komunikabideekin harremana



Urteko plangintzan islatutako proiektuen zein hauetan sortutako ondorioen berri ematerako orduan hedabideen laguntza oso baliagarria da, baita EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapenerako ere. Era berean, gazteekin zerikusia duten gaietan iritzia eskatzea ohikoa da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko gazteen interesekoak diren edo izan daitezkeen gaiak hedabideen eta, beraz, gizartearen agenda mediatikoan eta sozialean txertatzea.

HELBURU ZEHATZA:

- EGKren jarduera eta iritzia hedabideetan azaltzea.
- Ekimen eta iritzia hedabideen bitartez gizarteratzea.

Garapena

Egunerokoan, bai proiektu konkretuen zabalpenean zein bestelako kontuekin, hainbat hedabide EGKrekin harremanetan jarri dira gazteen iritzia eta diskurtsoa ezagutzeko. Hauei erantzuteko, honakoak egin dira:

- Pentsaurrekoak eta prentsa-oharrak.
- EGKren ekitaldien berri eman hedabideen agendan argitaratzeko.
- Hedabideek eskatutako elkarrizketak kudeatu.
- Kazetarien eskaerak eta proposamenak kudeatu.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak zerrendatu.

Harreman hauetatik, batzuetan, elkarlana suertatu da: batetik, EGK-ko presidenteak hilean behin *Gazteberri Aldizkarian* iritzi-artikulua idatzi du; eta, bestetik, hilean behin *Radio Euskadiko* Ganbara saioaren tertulia sozialean izan da.

Ebaluazioa

Aurreko urteetan bezala, EGK-k komunikabideetan izan dituen agerpen guztien jarraipena egin da. 2019an zehar komunikabideetan izandako agerpen guztiak ikusi nahi izanez gero, esteka honetan bilduta daude:

[Agerraldien zerrenda](#)

7.8. www.egk.eus webgunea kudeatu



EGK-ko kanal nagusia webgunea da (www.egk.eus). Egunerokoan sortzen diren albisteen berri ematen da, garatzen diren txostenak igo eta antolatutako ekitaldien argazki-galeriak publikatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k egiten duen lanaren berri ematea.
- EGK osatzen duten elkarten berri ematea.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldien berri ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren azken albisteen berri ematea eta argitalpenak Interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-ko elkarten eta elkarte ez direnen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren egitasmoen berri ematea, webguneko agendan
- Elkarten zerrenda gaurkotu bat mantentzea.

Garapena

Helburu hauek bete ahal izateko, hau da egunerokotasunean egiten den lana:

- Webgunea (www.egk.eus) edukiz hornitzea: EGK-k antolatutako edo bat egiten duen ekintzak albisteen atalean zabaldu eta EGK-k nahiz bestelako eragileek antolatutako ekintzen berri agenda bidez eman.
- Webgunearen mantentze egokia bermatzea: egindako iruzkinak erantzun eta bideratu, kontaktu formulario bidez heldutako eskaerak kudeatu, spam iruzkinen ezabaketa, etab.

Ebaluazioa


Webgunea EGKren komunikazio zentrala da. Bertan proiektu edo egitasmoen informazio guztia eskegitzen da: ekitaldiko xehetasunak, manifestuak, PDFak, txostenak... Gero hauek, gainera, beste komunikatzeko baliabideen bidez zabaltzea ahalbidetzen du. 2019ko datuek erakutsi dute gero eta gehiago erabiltzen dela eta, orokorrean, erabiltzaile-kopuruak ere goraka egin duela.

2019	Saioak	Erabiltzaileak	Bisitatuko orriak
Urtarrila	3149	2565	6960
Otsaila	4054	3120	8582
Martxoa	3047	2494	5779
Apirila	2.869	2.282	5.392
Maiatza	3.205	2.499	6.200
Ekaina	7281	6.488	10.206
Uztaila	2.339	1.830	4.528
Abuztua	1075	874	2.203
Iraila	3039	2.384	5.612
Urria	2.861	2.226	5.555
Azaroa	2.753	2.156	5.150

Abendua (10 arte)	545	454	1.009
Guztira	36.217	29.372	67.176
<i>2018an</i>	<i>31.525</i>	<i>23.076</i>	<i>61.860</i>


Datu hauek, 2018koekin alderatuz, argi erakusten dute www.egk.eus webgunea EGK-ko komunikazio euskarri nagusi bezala finkatu dela. Izan ere, aurreko urteko emaitzak hobetzea lortu da. Garrantzitsua izan da honetarako egindako esfortzua: bilera, mintegi edo antzekoetan webgunearen berri eman da, sareetan izandako estrategian beti webgunea zabaldu da, SEO aldetik eman den hobekuntza, etab.

Horretaz gain, urtean zehar bi piko nabarmen egon dira, biak **Etikasi** programarekin lotuak. Informazio guztia EGKren webgunean zabaldu da eta, horri esker, bisita kopurua nabarmenki igo da. Lehena urtarrilean eman zen proiektuaren aurkezpena egin ostean; eta, bigarrena, ekainean bidaia hezitzaileen aurretik azken xehetasunak kontatzeko egindako agerraldiaren ostean.




Urte osoko datuak hartuta, hilabeteko batez besteko bisita kopurua 3.018koa da, erabiltzaileena 2.447koa eta bisitatutako orrialde kopuruarena 5.598koa. Goiko irudian urtarileko datuak hartu dira alderaketa zuzenagoa egiteko eta, ikus daitekeen bezala, datu horiek hobetu dira. Hurrenez hurren 4.746, 3.665 eta 10.111 izan dira-eta.

Eta are nabarmenagoak izan ziren ekainekoak.




Uda boladan webgunearen trafikoa asko moteltzen da aurrez aurkeztutako taulan ikus daitekeen bezala. Hala ere, ekaineko datuak oso onak izan ziren. Hil horretako 14an egin zen agerraldia Donostian eta hurrengo egunetan sekulako gorakada izan zen webguneko bisitetan. Hilabete batean batez beste lortutako zifrak erraz bikoiztu ziren (7.433 bisita, 6.551 erabiltzaile eta 10.618 orrialde bisitatu). Pikoia argiago ikus daiteke hurrengo irudian.



Horretaz gain, hemen webguneko beste datu interesgarri batzuk:

Adina


Aurreko urteetan bezala, erabiltzaileen gehiengoa gaztea da. EGKren webgunera sartzen den ia hirutik bat 25 eta 34 urte bitartekoa da, zehazki %32a. Beheko grafikoan ikus daiteke zehatzago:



Generoa

Google Analytics erremintak ez du ahalbidetzen hirugarren generoa aukera bezala ateratzea estatistiketan, horregatik daude soilik emakumezko ala gizonezko aukerak. 2019an erabiltzaileen gehiengoa emakumea da: %67,46-%32,54. Aurreko urteetako joera zertxobait gehiago areagotu da, baina apenas hamarreko batzuk.

	Saioak (%)	Saioak
Emakumezkoak	67,46	11.369
Gizonezkoak	32,54	5.485



Bisiten jatorri demografikoa

Bisitarien jatorria edo webgunera nondik sartzen diren jakitea ere interesgarria da. Hona hemen webgunera bisita gehien egiten dituzten hiri eta herrien zerrenda:

1. Bilbao 7.427 (%23,30).
2. Donostia 4.196 (%13,17).
3. Gasteiz 3.292 (%10,33).
4. Zehaztu gabea 3.227 (%10,13).
5. Madril 2.972 (%9,33).
6. Bartzelona 1.000 (%3,14).
7. Zaragoza 768 (%2,41).
8. Valentzia 765 (%2,40).
9. Leioa 759 (%2,38).
10. Areeta 733 (%2,30).

7.9. Bilbo YouTuber aukeraketa



Bilbao Gazte plataformaren helburua hirian gazteentzako antolatzen diren ekitaldiak zabaltzea da, ez soilik Bilbao Gazteak edo Bilboko Udaleko Gazteria sailak antolatutakoak. Izan ere, udalean azken urteetan identifikatu da antolatzen dena gazteei helaraztean hobekuntzak eman daitezkeela. Eta, horietako bat, YouTuberren aukeraketa izan da, egungo planak beste modu batera helarazteko.

Bilboko Udaletxeko gazteria sailak bi YouTuber bilatzeko antolatutako lehiaketa honetan EGK epaimahaiko kide izan da. Ezarritako baldintzak haien webgunean eta sare sozialen bidez zabaldu ziren: 18 eta 25 urte bitartekoa izatea, Bilbon erroldatuta egotea eta euskara zein gaztelania jakitea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Bilbon dagoen eskaintza zabaldu eta honi buruz gazteek duten iritzia pilatzea.
- Bilboko Udala eta gazteriaren artean harremana sendotzea.

Garapena

Zabalpena:

2019ko irailaren 20an Bilboko Udalak, Bilbao Gazte markaren bitartez, bere YouTuberrak aukeratzeko hirugarren lehiaketaren zabalpena egin zuen. EGK-k honen oihartzuna egin zuen webgunearen eta sare sozialen bitartez.

Epaimahaia:

Hautagai guztiek euren bideoak bidali ostean, EGK-k beste epaimahaikideen bezala, Bilboko Udalak helarazitako ebaluazioa egin zuen.


Elkarriketak:

Urriaren 9an Bilbon lehen fasea pasa zuten gazte guztiei elkarriketa egin zitzaien eta, egunean bertan, Bilboko Udalaren bi YouTuberrak aukeratu ziren.

Ebaluazioa

EGKrentzat antzeko epaimahaietan egotea beti da interesgarria. Batetik, administrazioekin lehen eskuko harremana izaten delako eta zuzen-zuzenean jakiten delako gazteei bideratutako proiektu eta politikak nolakoak diren. Bestetik, gazteengana gerturatzeko aukera ona delako egiten dituen egitasmoak azaltzeko.

7.10. Webguneen mantenua



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere eguneroko lana egiteko hainbat webgune ditu, bakoitza bere domeinu, zerbitzari eta mantenuarekin. Horretarako, kanpo enpresak hautatu dira. Horretaz gain, bai Lantalde Teknikoa zein Batzorde Iraunkorra komunikatu ahal izateko Gmail kontu bat dute (bigarrena soilik zabalpen-zerrenda da).

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren webgune orok (www.egk.eus, www.astialdiforooa.org eta www.atergune.astialdiforooa.org) ondo funtzionatzea eta urteko plangintzan ezarritako helburuak betetzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Urtean zehar sor daitezkeen arazoen aurrean laguntza teknikoa izatea irtenbidea ahalik eta azkarren topatzeko.
- Webguneak programazioaren eta diseinuaren munduan emandako aldaketetara moldatzea.

Garapena

www.egk.eus webgunea:

Irudigital enpresaren bitartez egin da aurreko urteetan bezala. Egunerokoan aldaketa txikiak egin dira: berrikuntza xumeak, plugin eraldatzeak eta barne programazioko berritzeak.

astialdiforooa.org webgunea:

Hezkuntza teknikariarekin elkarlanean Magna SIS ikasle enpresarekin egin dira mantenu lanak. Egunerokoan aldaketa txikiak egin dira: berrikuntza xumeak, plugin eraldatzeak eta barne programazioko berritzeak.

atergune.astialdiforooa.org webgunea:

Hezkuntza teknikariarekin elkarlanean TaPuntu enpresarekin kudeatu da. Egunerokoan aldaketa txikiak egin dira: berrikuntza xumeak, plugin eraldatzeak eta barne programazioko berritzeak.

SSL ziurtagiria:

Azken urteotan ezarri diren segurtasun baldintzetara moldatzeko SSL ziurtagiria lortu da aipatutako hiru webguneentzat. Pausu honen bitartez erabiltzailearen segurtasuna eta bere datuen pribatasuna bermatzea errazagoa da eta, ondorioz, erabiltze-esperientzia ere hobea da. Gainera, Google eta antzeko bilatzaileek neurriak hartzen hasi dira SSL ziurtagiria ez duten webguneak zigortzeko: SEO aldetik puntuazio baxuagoa eta, ondorioz, emaitza orrialdeetan beherago azaltzea; nabigatzaile askotan saioa blokeatzea erabiltzailearentzat segurua ez dela egotzita eta keinukari gorriekin erabiltzaileari webgunea segurua ez dela adieraztea.

Horretarako webgune bakoitzaren mantenuaren ardura duen enpresarekin harremanetan jarri da egin beharreko aldaketak kudeatzeko.

Ebaluazioa

- EGK-k dituen hiru webguneak urtean zehar euren zerbitzua arazo gabe eskaini ahal izan dute.
- Egin beharreko aldaketak, SSL ziurtagiria lortzea esaterako, modu azkar eta errexean egin dira.

7.11. Barne komunikazioa



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren komunikazio oro ez da kanpora begirakoa. Barne komunikazioa ere oso garrantzitsua da eta, hau, komunikazio teknikariaren ardura da

presidentearekin koordinatuta. Batetik, Lantalde Teknikoa osatzen duten lan-arloen artekoa; bestetik, Lantalde Teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren artean; eta, azkenik, EGK osatzen duten erakundeekin. Hiru euskarri hauen funtzionamendu egokiak soilik bermatzen du EGKren funtzionamendu egokia eta eraginkortasuna.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) barne-komunikazioa hobetzea, bai Lantalde Teknikoa osatzen duten lan-arloen artean, bai Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean eta bai hauen eta EGK osatzen duten elkarten artekoa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arloen artean sinergiak sortzea.
- EGK osatzen duten erakundeekin harremana sendotzea, haien presentziari garrantzia gehiago emanez (webgune, sare sozial, **Piztu! buletin digitala**).
- Bileren denbora murriztea eguneroko komunikazioa arinagoa eginez eta hobetuz.

Garapena

EGKren barne komunikazioa ahalik eta onena izateko, hainbat urrats eman dira:

- EGKren egitekoarekin zerikusia duten gaien jarraipena egiteko egunero hainbat egunkari eta aldizkari begiratzen dira. Horietan zerbait interesgarria aurkituz gero, lan-arloko teknikariari bidaltzen zaio. Gaia orokorragoa bada edo eragina zabalagoa bada, lantalde osoari bidaltzen zaio.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak lan-arloko teknikariari bidali eta Excel batean gorde. Horretaz gain, Excel-a lantaldearekin elkarbanatua dago teknikari bakoitzak nahi duenean kontsulta dezan. Era berean, kanpaina bakoitza egiten denean, honek lortutako emaitzen berri ematen zaie: sare sozialetan izandako inpaktua, erabiltzaileengandik jasotako erantzunak, etab.

- Sare sozialetan tarteka bilaketak egiten dira Lantalde Teknikoak eskuartean dituen gaien gainean zer esaten den jakiteko: gazteen iritzia, hitzarmena sinatua dagoen administrazioek zerbait esan duten, etab.
- Batzorde Iraunkorrak eta elkarteek EGKren jardunaren berri jasotzen dutela bermatu, EGKren tresnen bitartez, batik bat posta elektronikoa. Administratiboarekin batera egiten den lana da hau.
- Teknikariei, eta Batzorde Iraunkorrari hala eskatzen badu, komunikazio laguntza eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo-ildoak...).

Ebaluazioa

Barne-komunikazioa arintzea eta hobetzea izan da asmoa. Hein handi batean lortu da, bai Lantalde Teknikoaren barnean bai honen eta Batzorde Iraunkorraren artean.

Aurreko urteetako jarduna jarraituz, lan-arloen arteko sinergia eta elkarlana oso garrantzitsuak izan dira barne komunikazioa hobetzeko eta plangintzako proiektuak aurrera eramateko. Ildo honetatik, presidentziarekin koordinatuta, barne antolakuntzarako egindako bilerei beste ikuspegi bat eman zaie eta emaitza hobeak lortu dira. 2020an bide hau sakontzea da asmoa.

7.12. Beste lan-arloekin harremana

EGK-k jarduera ugari egiten ditu urtean zehar. Komunikazio lan-arloarekin zerikusi zuzena ez badute ere, teknikariaren ardura da hauen zabalpenean laguntzea eta gainerako lan-arloekin —etxebizitza, enplegua, hezkuntza, parte-hartzea, berdintasuna, bakea eta bizikidetzat, koordinazioa eta administrazioa— elkarlanean aritzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratzea eta gazte erakundeen artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Aurrera eramandako proiektuek oihartzuna izatea hedabideetan.
- Hedabideek egindako erreportajeetan gure ahotsa kontuan izatea.
- Kanpaina espezifikoen bidez argitalpenarekin zerikusia duen oro zentralizatzea.
- Jorratutako gaiak eta gazteok hauei buruz dugun iritzia gizarteratzea.

Garapena

Hau guztia kudeatzeko, hainbat lan egin dira:

- Prentsaurrekoak antolatu.
- Prentsa-ohar eta dosierrak garatu.
- Iritzi-artikuluak idatzi hedabideetan.
- Sare sozialetan estrategia espezifikoak erabili: publizitatea, traola konkretuak, etab.
- Ikus-entzunezko materialak bultzatu.
- Elkarriketak lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.

Plangintzarekin lotuta, hauek dira urtean zehar egin diren eta antolatzeko bidean dauden komunikazio kanpaina nagusienak:

1. Etikasi programa

Bake eta bizikidetzaren lan-arloak 2018an zehar Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin elkarlanean diseinatutako programa da. 2019an zehar bidaia hezitzaileak eskaintzeko proiektu pilotu hau aurrera eramanez da eta Batxilergoko 1. mailako ikasle-taldeek eta Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloetako eta Unibertsitateko lehen mailako ikasleek Auschwitz eta Belfast bisitatu dituzte, hurrenez hurren. Zabalpenerako esfortzu berezia egin da sareetan, ikastetxeetara mezu elektronikoak bidali eta deiak egin dira eta informazioa modu ezberdinetara hedatu da: [bideoak](#), [dosier informatiboak](#), sortutako galderak [erantzuteko albistea](#), etab. Era berean, proiektuaren jarraipen zehatza egin

da: [ebazpena](#) gizarteratu, bigarren [prentsaurreko](#) bat antolatu bidaiako xehetasunak emateko, [Auschwitz](#) eta [Belfastera](#) egindako bidaien jarraipena eta esperientzia inspiratutako iritzi-artikuluak *Gazteberri Aldizkarian*. Sakonago azaldu da [5.2 atalean](#).

2. Indarkeria Matxistaren eta LGBTI+fobikoaren aurkako protokoloa

2016ko ekainaren 22ko Ezohiko Batzarrean onartu zirenetik egin den bezala, berdintasun lan-arloaren koordinatuta, gazteei eragin dieten kasuak salatzeko protokoloa aktibatu da urte osoan zehar. **Gaur8** lantaldeak jorratutako posizionamendu publiko honen bitartez mahai-gainean jarri dira hobekuntza-proposamenak eta gizarteratzeko prentsa-oharra bidali da hedabideetara, mezua zabaldu sare sozialetan eta bideo bana egin diskurtsoa ezagutarazteko: [Indarkeria Matxistaren aurkakoa](#) eta [Indarkeria LGBTI+ fobikoaren aurkakoa](#). Sakonago azaldu da [6.4 atalean](#).

3. *Eragin #Plazandre* txostenaren zabalpena

Eragin #Plazandre [txostenak](#) 2018ko urriaren 31n antolatutako **#Plazandre** ekitaldian jorratutakoa biltzen du. Esfera publikoan diharduten zortzi emakumeren esperientziatik abiatuta beldur eta oztopoak aztertu ziren, ostean hobekuntza-proposamenak egin eta parte-hartzea sustatzeko. Honen zabalpenerako, [ekitaldia laburtzen duen bideoa](#) egin da eta hedabideetara [prentsa-oharra](#) bidali. Era berean, webgunean albisteak argitaratu da eta berau EGKren sare sozialetan zabaldu.

4. *BerdinHezi* txostenaren zabalpena

BerdinHezi: Hezkidetzarako lehen urratsak [txostenak](#) 2018an egindako lana jasotzen du. Zabaldutako galdetegiaren eta antolatutako bi eztabaida-taldeen bitartez, Euskadiko gazteek hezkidetzari buruz duten iritzia bildu da. Era berean, webgunean albisteak argitaratu da eta berau EGKren sare sozialetan zabaldu.

5. *Formakuntza Duala Ezagutzen* txostenaren zabalpena

Formakuntza Duala Europa mailan erreferente den formazio-eredua da eta aspaldian ari da errotzen Euskadin. Azken urteetako garapena eta gazteen bizitza-proiektuan izan duen eragina

aztertzeko egindako Hiruburuen ondorioak azaltzen dira *Formakuntza Duala Ezagutzen txostenean*. Era berean, webgunean albisteak argitaratu da eta berau EGKren sare sozialetan zabaldu.

6. Soldata Berdintasunaren Europako eguna (otsailak 22)

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala du jomuga eta horretan oinarritzen den gizarte baten alde lan egiten du. Bidean hainbat oztopo daude, asko estrukturalak. Horietako bat da soldata arrakala. Horregatik, otsailaren 22an, Soldata Berdintasunaren Europako egunean, [manifestua](#) kaleratu zen. Bertan, soldata arrakalan jartzen da fokua, baita hau bermatzen eta betikotzen duten faktoreak salatu ere. [Hemen albisteak](#) eta sakonago azaldu da [2.3](#) eta [2.7 ataletan](#).

7. Emakumeen* Nazioarteko eguna

Euskal Herriko Mugimendu Feministak martxoaren 8an deitutako greba babestu du 2019an EGK-k berdintasuna zeharkako balore gisa txertatzeko konpromisoa berretsiz. Arrazoiak [albiste batean](#) kaleratu ziren. Sakonago azaldu da 6.11 atalean.

8. 39. Batzar Orokorra

2019ko martxoan Donostian ospatutako batzarra. Urtean behin EGK osatzen duten elkarteak aurreko urteko memoria eta hurrengorako plangintza aurkezten zaizkie bozka ditzaten. Era berean, elkarteek euren proposamenak mahai gainean jartzeko aukera dute bertan onartu daitezen ala ez. [Albiste honetan](#) laburpen bat aurki daiteke eta sakonago azaldu da 8.8 atalean.

9. #EuroEmantzipatu zabalpena

Azken datuen arabera emantzipatzeko batez besteko adina 29,9 urtekoa da, teknikoki gazte izateari uzten zaionean. Hori dela-eta gazteen emantzipazio-ereduak landu ziren 2018an zehar aukera berritzaileak aurkezteko eta azaltzeko. Europan jarri da begirada eta bertako ereduak gazteekin kontrastatu. Bildutakoarekin *#EuroEmantzipatu ondorio-txostena* aurkeztu da. Honen zabalpenerako [albisteak](#) egin da webgunean.

10. Emantzipa... Zer? lantaldea

Lehen aldiz enplegu eta etxebizitza lan-arloak ezberdindu dira. Hala ere bi gaiak estuki lotuak daudenez, elkarlan handia egon da eta lantaldea mantendu dute. Deialdi bakoitzean zabalpena egin da ahalik eta gazte gehien gerturatzeko. Gainera, bi kasuetan proiektu berriak sortu dira eta, ondorioz, harreman berriak: pisu solidarioak eta cohousinga [ezagutzeko](#) bilera, GazteLagun [programa](#) eta [honen ondorioak](#) aztertzeke topaketa edo lan kontratuen inguruko formakuntza.

11. #Klika 21

AEK-k eta Korrikak bultzatutako 21. ekimena oso berezia izan da EGKrentzat. Proiektua bere osotasunean ezagutzeko lehen bilera izan ostean, martxoan Albaolan izandako aurkezpenean [bat egin zuen](#) eta, gainera, Bilboko sarrerako kilometroa hartu. Bertara gazteak animatzeko [deialdia](#) egin zen eta eguneko esperientzia [bideo batean](#) laburtu. Horretaz gain, gerora bizitakoa [Gazteberri Aldizkarian islatu](#) zen.

12. Gazteriaren Euskal Legea

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektu-proposamena aztertzea oso garrantzitsua izan da EGKrentzat. Etorkizunari begira hainbat kontu zehaztuko dira bertan eta gazteekin kontraste lan sakon bat egiteko esfortzu berezia egin da zabalpenean. Lan-arlo orok harremana izan duen eragileekin kontaktua izateaz gain, [deialdi zabala](#) egin da eta iragarkia *Gaztea Irratian*. Ostean, legebiltzarreko talde politikoekin bilerak izan dira jorratutakoa aurkezteko. Sakonago azaldu da 8.1 atalean.

13. Lan istripuen aurkako protokoloa

Enplegu lan-arloko *Emantzipa... Zer?* lantaldeak sustatu zuen protokoloa eta EGK-ko Batzar Orokorrak berretsi. Honen bitartez Euskadiko langile gazte batek lanean ari dela larriki zauritu edo zendu bada gertakaria salatzen da eta aldarrikapenak oroitu. Memoriako [2.4 atalean](#) zehazten den bezala aurten hainbatetan aktibatu da. Kasu orotan EGKren sare sozialetan

gertakaria deitoratzeko mezua zabaldu da eta hedabideetara prentsa-oharra bidali administrazioari eskari eta proposamenak oroitaraziz. Era berean, protokoloa ezagutarazteko [bideoa](#) garatu da.

14. #BazterretikErdira zineforuma

Zinemaren bitartez gizartera hainbat mezu helarazten dira indar handiz: diskurtso jakinak zabaldu, ideiak hedatu, aurreiritzien aurka lan egin, hausnarketa sustatu, jokabideak ezbaian jarri, etab. **#BazterretikErdira zineforumarekin** sexualitatea eta honen aniztasuna landu duten lau film jorratu dira: apirilean [Bar Bahar](#), maiatzean [Yes, We Fuck](#), irailean [Carmen y Lola](#) eta azaroan [Girl](#). Sakonago azaldu da [6.2 atalean](#).

15. Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna (apirilak 28)

Gazteek pairatzen duten prekaritatea eta honek haien ongizatean dituen ondorio latzak salatzeke, apirilaren 28an manifestua kaleratu zuen EGK-k. **Emantzipa... Zer?** lantaldean batutako hainbat gazte elkarte, kolektibo eta sindikatuk osatu dute lana eta beste hainbat elkarte atxiki dira manifestura. Hemen irakur daiteke [albiste](#) eta hemen [manifestua](#). Sakonago azaldu da [2.3 atalean](#).

16. Bake eta bizikidetza lantaldea

Bake eta bizikidetza lan-arloko diskurtsoa osatzeko hainbat deialdi egin dira, besteak beste [maiatzaren 8an](#) eta [azaroan 12an](#). Sakonago azaldu da [5.1 atalean](#).

17. Eragin #Plazandre

2018ko urrian antolatutako **#Plazandre** jardunaldiaren bitartez parte-hartze maskulinizatuaren arrazoiak eta honi nola erantzun aztertu zen. 2019an barrura begira lanketa egiteko jardunaldia antolatu zen. Horretarako [esfortzu berezia](#) egin da elkarrekin harremanetan jartzeko eta kontrastea ahalik eta aberatsena izateko. Sakonago azaldu da [6.7 atalean](#).

18. #HaziakAstialdira

2018an aurrera eramandako **#BerdinHezi** proiektua hezkidetzak hezkuntza ez formalean izandako bilakaerarekin [osatze](#)ko proiektua. Sakonago azaldu da [3.11 atalean](#).

19. Udako kanpaina

Hezkuntza lan-arloak koordinatzen duen Astialdi Foroko kideek antolatzen dituzten udako ekintzak zabaltzeko kanpaina. Lehenik ekitaldiak antolatzen dituzten elkarteekin [harremana](#) egiten da esku artean dutenaren informazio ahalik eta sakonena izateko. Ostean, hauen zabalpena egin da [webgunean](#) zein prentsa-ohar bitartez. Sakonago azaldu da [3.8 atalean](#).

20. Migratzaileei buruzko aurreiritziei Planto!

Historiako une guztietan izan dira migratzaileak munduan zehar. Lurralde orok hartu ditu berean beste herrietatik etorritakoak eta ia edonork ezagutzen du beste toki batera joan den pertsonaren bat. Mugikortasun hori hainbat modutara uler daiteke. EGKtik gizartea anitzagoa eta, beraz, aberatsagoa egiten duela uste da. Hala ere, ukaezina da aipatutakoa ez dela ikuspegi bakarra eta gizarteko zenbait estamentu edo taldetan bestelako usteak zabaldu direla. Aurreiritziak aztertzei [jardunaldia](#) izan da. Sakonago azaldu da [5.4 atalean](#).

21. Legebiltzarrean agerraldia

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua urtero agertzen da legebiltzarkideen aurrean. Aurten, Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean egindako agerraldian hiru izan dira mezu nagusiak: batetik, 2018ko memoria eta 2019ko plangintza legebiltzarkideei aurkeztea; bestetik, gazteen egoera sozio-ekonomikoa mahai gainean jartzea; eta, azkenik, egun dirauen berdintasun eza egoerak gazteak arduratzen dituela. Komunikazio lan-arloaren zeregina presidenteari mezua prestatzen laguntzea eta bertan egindako agerraldiaren mezua hedabideetan, [webgunean](#) eta sare sozialetan zabaltzea izan da. Sakonago azaldu da [8.9 atalean](#).

22. #GazteAgora: batzen gaituen norabidean

Eusko Ikaskuntza, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua eta Udako Euskal Unibertsitatearekin elkarlanean egindako proiektua da. Mugaz gaindiko lankidetzak sustatzeko eta gazteen erronkak identifikatzeko diseinatu da. Abenduaren 14an egin da [lehen topaketa](#) eta 2020an jarraipena emango zaio. Sakonago azaldu da 8.2 atalean.

23. Gune Anitza zigilua

Zigiluaren bitartez, Euskadiko gune fisiko zein birtualek aniztasunaren aldeko konpromiso adierazten dute. 2019an zehar berdintasun lan-arloak emandako bultzadan laguntzea izan da komunikazio-teknikariaren ardura, bai [Kalakak](#) egindako atxikimenduan zein Bergarako Udalarekin elkarlanean egindako [proiektuan](#). Sakonago azaldu da [6.3 atalean](#).

24. Festak birpentsatzen

EAEko testuinguruan herri-festek eta hauen inguruan sortzen diren talde antolamenduek indar handia izan dute urte luzeetan zehar. ‘Eta zuk, festa eredu hegemonikoa erdigunean jarri eta zalantzan jarri nahiko zenuke?’ galdera [abiapuntu](#) izanda, espazioak birpentsatzea izan da asmoa. Hainbat topaketa egin dira, horietako bakoitzean tokiko hedabideekin harremana eginda eta hainbat eragilerekin kontaktuan jarrita. Sakonago azaldu da [6.5 atalean](#).

25. Emantzipazio ereduak

Gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak ikusita eta 2018an egindako **#EuroEmantzipatu** proiektuari jarraipena emateko, etxebizitza lan-arlotik esfortzua berezia egin da eredu berritzaileak aztertzeke. Antolatu diren bi Hiruburuei begira asmoak aurkezteko [lehen zabalpena](#) egin da, udan bolo-bolo ibilitako gentrifikazioari buruzko [hausnarketa](#) bat plazaratu eta eredu berritzaileen aldeko apustua [Gazteberri Aldizkarian](#). Azkenik, Hiruburu bakoitzak zabalpen berezia izan du: hiri bakoitzeko udalarekin elkarlanean arituta, bertako hedabideekin harremanetan jarrita eta prentsa-oharra bidalita, webgunean albistea eginda ([Gasteiz](#) eta [Donostia](#)) eta, batez ere, topaketaren zabalpenerako bideoak eginda ([Gasteiz](#) eta [Donostia](#)). Ekitaldiek unean uneko jarraipena izan dute, baita osteko bideoa ere. Nabarmentzekoa hedabideetan izandako oihartzuna. Sakonago azaldu da [1.2](#) eta [1.3 ataletan](#).

26. #Boluntaldia

Gazte boluntarioek egindako lana sekulakoa da eta, zoritxarrez, beti ez du merezi duen oihartzuna eta babesa. Hori dela-eta, EGKtik esfortzu berezia egin da honen kontzientzia gizarteratzeko. Zuzenean gazteei ahotsa emateko bi proiektu antolatu dira: batetik, **#Boluntaldia** [argazki-lehiaketa](#) boluntarioek euren esperientzia isla zezaten; eta, bestetik, **#Boluntaldia** [boluntario gazteen topaketa](#) gazteei ahotsa eman eta euren esperientziatik abiatuz errealitatearen diagnosia egin eta etorkizunera begirako erronkak identifikatzeko. Hauek [albiste honetan](#) eta [manifestu honetan](#) bildu dira. Sakonago azaldu da [3.6 atalean](#).

27. Islamofobia

EGK-k berdintasun erreala jomuga du eta oztopoak aztertzea ezinbestekotzat jotzen du. Horretarako genero-ikuspegia txertatzea ezinbestekoa da. 2019an bake eta bizikidetzaren berdintasun lan-arloek elkarlanean egindako [proiektu](#) honen bitartez islamofobia eta, zehazki, emakume musulmanek emakume izateagatik sufritzen duten zapalkuntza bikoitza aztertu da. Zabalpen aldetik eragileekin harremanetan jartzea izan da asmo nagusia, ahalik eta diagnostiko zabalean egiteko. Horretaz gain, ekitaldiaren [unean uneko jarraipena](#) egin da eta amaieran [laburpen bideoa](#). Sakonago azaldu da [5.3 atalean](#).

28. #HistoriaOsatzen

Deustuko Unibertsitatearen Etika Aplikatuko Zentroarekin elkarlanean Euskadin azken hamarkadetan bizitako indarkeriaz gazteek planteatzen dituzten galderak aztertuko dituen Ikasketa Komunitatea da **#HistoriaOsatzen**. Hau osatzeko [zabalpena](#) egin da eta hiru lurraldeetako unibertsitateetako hainbat fakultate, irakasle eta eragilerekin harremana egin da ikasleei gonbita luzatzeko. Horretaz gain, Alejandra Londoñok eskainitako [hitzaldiari](#) begira ere zabalpen berezia egin da. Sakonago azaldu da [5.7 atalean](#).

29. Astialdi ikastaroak

Astialdi Foroko eskola eta federazioek 2019/20 ikasturterako antolatutako ikastaroen zabalpenaren helburua lurralde bakoitzeko gazteek begirale, zuzendari zein gizarte eta kultura sustatzailea izateko formazioa bertako eskola eta federazioetan egitera animatzea zen.

Horretarako [balioan jarri da](#) eskainitako eskaintza zabala: norbere beharrian eta erritmora egokitzen diren ikastaroak, lurraldearen arabekoak, astean zehar edo asteburuetan egiten direnak, goizeko edo arratsaldeko ordutegia dutenak, trinkoak edo estentsiboak direnak eta, urte batean edo bi urtetan zehar atera daitezkeenak. Guztiak Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulazioak. Sakonago azaldu da [3.7 atalean](#).

30. Formakuntza Duala

2018an hasitako ibilbidea sakontzeko eta identifikatutako erronkak osatzeko eta kontrastatzeko, 2019an Formakuntza Dualari buruzko galdetegia egin da. Ikasketa eredu honek indar gehien Gipuzkoan duenez, lurraldeko ikastetxeekin harremanetan jartzeko esfortzua egin da. Lehenik, EGK-k egiten duena aurkezteko; ondoren Formakuntza Dualari buruz egindako [proiektua aurkezteko](#); eta, azkenik, galdetegia haien ikasleen artean zabaltzeko eta eztabaida-taldeak antolatzeko aukera [aztertzeko](#). Sakonago azaldu da [2.2 atalean](#).

31. Lan Egokiaren Nazioarteko Eguna (urriak 7)

Azken urteetako **#TrabajoDecente** kanpainari jarraipena emanez, urriaren 7an gazteen lan baldintza egokien aldarrikapena egin da [albistea](#) eta [manifestua](#) publikatuz EGKren webgunean. Sakonago azaldu da [2.3 atalean](#).

32. Garraio gastuak aztergai

2016an aurrera eramandako **#ZergArraio** proiektua berritzeko, kontrastatzeko eta osatzeko antolatutako [ekimena](#). Garraio sistemak eta gastuek gazteen bizitzan duten eragina aztertu eta hobetze-proposamenak bilatzeko. Sakonago azaldu da [3.3 atalean](#).

33. #Hitzartzen: emakume politikariak hitza hartzen

Azken urteetan mugimendu feministaren aldarrikapenak agenda politikoan sartu dira, bai eta berdintasun politikak instituzioetan sartu ere. Hauen bilakaera aztertzeko egin da **#Hitzartzen** mahai-ingurua. [Zabalpenari](#) begira, hedabideekin harremana izan da, baita hainbat gazte-elkarterekin, bereziki unibertsitate girokoak. Horretaz gain, mahai-ingurua [streaming](#) bidez igorri

da, [unean uneko](#) jarraipena egin da sareetan eta [amaieran bideoa](#) zabaldu. Ekitaldiak oihartzuna izan du, besteak beste [Berrian](#). Sakonago azaldu da [6.6 atalean](#).

34. Gazte eta nerabeekin adikzioen prebentziorako tresnak

Gai honi buruz dagoen informazioa gizarteratu eta astialdiko taldeen eskura jartzeko [ekimena](#) da, baita adikzioen prebentzioran diharduten espazio eta entitateei ikusgarritasuna emateko ere. Osasun Publikoko eta Adikzioetako Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila) eta Etorkintza, Fundación Gizakia, Ortzadar eta Ai Laket elkarteak izan dira gonbidatuak. Sakonago azaldu da [3.12 atalean](#).

35. Adierazpen publikoak

2018ko Batzar Orokorrean onartutako plangintzan aurreikusiak zeuden proiektuez gain, EGK-k bestelako adierazpen publikoak egin ditu. Lan-arloko teknikariarekin elkarlanean egin ditu testuak komunikazio-teknikariak eta presidentziak eta Batzorde Iraunkorrak oniritzia eman ostean zabaldu dira.

- Maiatzak 17: LGTBI+ fobiaren aurkako Eguna <https://bit.ly/2Yygh30>
- Azaroak 17: Ikasleen Nazioarteko Eguna <https://bit.ly/2P8DvY>
- Azaroak 25: Indarkeria Matxistaren aurkako Eguna <https://bit.ly/2LJcCdG>
- Abenduak 3: Euskararen Nazioarteko Eguna <https://bit.ly/2rBfe6i>
- Abenduak 3: Aniztasun Funtzionalaren eguna <https://bit.ly/2E6OEF4>
- Abenduak 5: Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna <https://bit.ly/2LFevrR>

Ebaluazioa

Barne komunikaziorako hartutako neurriek 2019an elkarlanean egindako proiektuen emaitza hobetu du. Horren frogar da inoiz baino komunikazio kanpaina gehiago egin direla. Gainera, sare sozialetan eta komunikazio adikzioan orokorrean irekitako bide berriarekin koherentzia egin dira: ikus-entzunezkoei garrantzia gehiago emanda, proiektuetarako mapeoa eginda eta interakzioa bilatuz, eta, batez ere, gazteengandik gertuago kokatuz.

8. Presidentzia

8.1. Gazteriaren Euskal Legea

Azken urteetan, saiakera ezberdinak egin dira Euskal Autonomi Erkidegoan Gazteria Lege bat sortzeko. 2018an Gazteria Legea sortzeko agindua egon zen legebiltzarrean eta 2019an lege horren lehengo zirriborroa aurkeztu da. Hori kontuan izanda, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak honen gaineko lanketa eta jarraipena aurrera eramateko ekimen eta harremanez baliatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEko gazteen eskubideak bermatu

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen egoera hobetu
- Legeak jasotzen dituen neurriak landu
- Gazteria legearen informazioa zabaldu

Garapena

Euskal Gazteria Legearen zirriborroaren lanketa egiteko hainbat pausu eman dira. Lehenik, EGK-ko Batzorde Iraunkorrak beste kontseiluekin jarri da harremanetan haien legeak ezagutzeko, besteak beste, Valentziako Gazteriaren Kontseilua eta bere legea. Behin lehengo lanketa eginda, lan-talde teknikoak zirriborroa aztertu eta presidentziarekin batera legearen topaketa prestatu zen.



Apirilaren 6an egindako topaketan, mahai ezberdinak jarri ziren legearen gaiak jorratzeko. Hortaz gain, erabilitako dinamika aukera ematen zien gazteei mahai guztietan parte hartzeko. Hainbat gazte parte-hartu zuten eta ekarpen oso interesgarriak atera ziren.



Ekarpen guzti horien emaitza Gazteria Legearen gainean sortutako txostenean daude jasota. Horrekin, bilerak egin dira legebiltzarreko talde politiko guztiekin txosteneko ekarpenak, proposamenak ... etab aurkezteko.

Ebaluazioa

- Euskal Gazteriaren Legearen prozesuan parte-hartzaileek gaiari buruz interesa erakutsi dute eta egindako ekarpenak sakonak izan dira.
- Prozesu honek baliagarria izan da EGKrentzat oinarri berriak adosteko.

8.2. #GazteAgora

#GazteAgora, Eusko Ikaskuntza, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua eta UEUK aurrera eramandako proiektua da. Proiektu honen bitartez, aukera eman da zonalde ezberdineko gazteak elkartu eta komuneko gaiak jorratzeko. Honetaz gain, aukera ematen du lurraldeetako gazte eta eragileen arteko

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lurraldeetako gazte sarea sortu

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen saretzea hobetu
- Gazteen beharrentzako proposamenak sortu

Garapena

Proiektu hau aurrera eramateko, hainbat bilera burutu dira sortzaileen artean. Bertan, daten proposamena egin da eta ereduari forma eman zaio. Lau topaketa aurreikusi dira, lehengo bat abenduan (Donostian) izan da eta EAEko gazteentzako topaketa izan da. Bigarrena eta hirugarrena, 2020ko otsailean (Iruñean) eta martxoan (Baiona) izango dira.

Topaketa guztietan gai berdinak jorratuko dira eta hurrengo hauek dira:

- Sozio-ekonomia
- Hizkuntza politikak - Euskara
- Gobernantza
- Hezkuntza

Donostian egindako ekitaldia lehengoa izan zen eta bertan EAEko hainbat gazte elkartzea lortu zen. Goiz osoko ekitaldia izan zen eta mahaika banatuta gai bakoitzeko proposamenak jaso ziren. Proiektua hasiera baino ez denez, ikusiko da hurrengo urtean zehar ematen dituen fruituak.

Ebaluazioa

- GazteAgora proiektua oso positibo baloratu EGKn oso beharrezkoa ikusten delako gazteen arteko saretzea bultzatzea, bereziki inguruan ditugun lurraldeekin.

- Nafarroaren Gazteriaren Kontseiluarekin aliantzak egiteko aukera bikaina izan da eta gazte elkarteetan artean ezagutzeko eta komuneko gaiak identifikatzeko ezinbestekoa izan da.
- 2020an jarraipena izango duen proiektua da eta EGKtik espero da maiatzetik aurrera bide berria hartzea.

8.3. Elkarrekin Harremana (EGK sendotzen)

EGK Sendotzenekin batera, presidentziatik beste hainbat eragileekin harremana egin da, kontseilu barneko zein kanpoko eragileekin. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua anitza izatea bilatu behar du eta horretarako une oro egon behar da gazte elkarte edo eragileekin errealitatea hurbiletik ezagutzeko eta sarea handitzen joateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eragile berriekin elkarlanak sustatu

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte sarea handitu
- Proiektu berriak sortu
- Errealitatea gehiago aztertu eta ezagutu

Garapena

Urtean zehar, hainbat bilera burutu dira elkarlan berriak sortzeko asmoz. Eragile hauetako batzuekin elkarlaneko proiektuak egiteko aukera egon da eta sare handitzea ahalbidetu du. Bilera hauekin EGK aukera dauka, alde batetik, barneko elkarteetan egoera eta proiektuak ezagutzeko eta bestetik, EGKtik kanpo dauden elkarrekin harremana mantentzea eta elkarlanak sortzea.

Harremana eta proiektuak egindako eragileen zerrenda:

Eusko ikaskuntza: Hasieran aurkeztutako GazteAgora proiektua aurrera eramateko egindako bilerak.

Gurutze Gorria: Elkarre honek asteburuko formakuntza bat antolatu zuen eta EGK gonbidatu zuen parte-hartzera.



LAB Sindikatua: Bereziki, Enplegu eta Etxebizitzako lan arloetako gaiak jorratzeko bilerak egin dira.

Alboan: Astialdian hezkuntza ez formalean hezkidetzat jorratzeko proiektuak elkartrukatzeko eta elkarlanerako bilerak egin dira.

ESN Euskadi: Elkarrearen hurrengo urteko batzar orokorra Bilbora ekartzeko proiektuan laguntza emateko bilerak egin dira.

Ernai:

Ebaluazioa

- Elkarreekin harremana onuragarria izan dela adierazi da.
- Saretzearen garrantzia balioetsi da.

8.4. Gobernu Irekia (OGP)

Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta hiru hiriburuetakoko udalek proiektu berri baten parte izatea erabaki zuten. OGPrako aurkeztu eta hautatuak izan ziren. Proiektu hau aurrera eramateko foro ezberdinak sortu behar zituzten eta horietako bat Foro Erregularra izan zen. Foro horretan, hiru administrazio mailetakoko ordezkariak zeuden eta baita gizarte zibilak aukeratutako ordezkariak ere. Azken hauen papera, gizartearen interesak zein beharrak defendatzea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eragin politikoa izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen iritzia erabaki guneetara hurbiltzea.
- Gazteen ikuspuntua txertatzea.
- Gazteen partaidetza sustatzea.

Garapena

Presidentziatik Foro Erregularrean maiztasun handiarekin parte-hartu da. Bertan, gazte ikuspegia txertatzea izan da erronka garrantzitsuena horrelako guneetara gazteen ahotsa hurbiltzeko. Gizarte zibilen ordezkariekin batera, bilera egin dira OGP planean aurkeztutako konpromisoen jarraipena bat egiteko eta horren gaineko ekarpenak eta proposamenak aurkeztu dira.

Hortaz gain, EGK-k konpromisoetan parte-hartu du eta saiatu da gazte kopurua handitzen. Kontuan izanda, plan berria sortzen hasi dela aurreko planean egindako ekarpenak kontuan ha

Ebaluazioa

- EGKtik, prozesu honetan parte hartzeko aukera izatea positibotzat hartzen da. Era honetara, bermatzen da administrazio maila ezberdinetan gazteen ikuspegia kontuan izatea.

- Plana martxan jartzen den heinean ikusiko da EGKren ekarpenek bertan izan duten balioa.
- Prozesua eta egituratutako planak herritarrekin zein administrazioekin harremana hobetzeko eta gardentasunean sakontzeko balio izan duen ere aztertu beharko da.

8.5. Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGK-ko eskubide osoko kide diren elkartetako 11 ordezkari osatzen dute, hurrengo moduan banatuta: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

Urte honetan, Batzorde Iraunkorra berritu da. Hori dela eta, Batzorde Iraunkorreko kideek EGKren gainean daukaten ezagutza sakondu beharko dute, Batzar Orokorrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokien erabaki berriak hartu.

Bestalde, presidenteak zubi-lana egingo du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, presidentziaz Batzorde Iraunkorra (B.I) gai guztietan jakinaren gainean mantentzeko lana egingo da baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren gaineko erabaki nagusiak bideratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa landu.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna handitu.

- Ardura banaketa errespetatu.
- B.I.eko kideen parte hartzea sustatu.

Garapena

Bileren jarraipena 2019an zehar:

- Urtarrilak 15 eta 31
- Otsailak 8 eta 21
- Martxoak 6
- Apirilak 12 eta 22
- Maiatzak 8 eta 29
- Ekainak 11 eta 26
- Irailak 17
- Urriak 8 eta 23
- Azaroak 12 eta 28
- Abenduak 2

Ebaluazioa

Urte honetan, Batzorde Iraunkorra berritu da. Hasieran aipatu den bezala, Batzorde Iraunkorra 11 ordezkari osatu dezakete baina urte honetan gutxiago egon dira. Horrek suposatu du, iraunkorkideek EGKren erritmoak ikasi eta ezagutu behar izan dituztela.

Taldekieen inplikazioa eta konpromisoa oso ezberdina izan da. Bakoitzaren lan-arloarekiko jarraipena eta egunerokoarekiko interesa, batetik bestera, erabat ezberdina izan da. Horrek desoreka handia ekarri du langileekiko. Batzordeko bileretan behin baino gehiagotan gogorarazi da kideen oinarrizko egitekoak zeintzuk diren, baina hala ere, ez da lortu konpromiso orekatua izatea.

Esan beharra dago, B.I.a murrizterakoan ardura handiagoa hartu dela talde bezala eta egon diren pertsonen artean inplikazio handiagoa egon dela.

Une oro, taldeari informazio eta egunerokoaren berri emateko ahalegina egin da, bilerak, emailak, WhatsApp-ak edo audioak bidalita.

Orokorrean taldekideak bileretara joan dira, baina guztietan jendea falta izan da. Batez bestekoa, bilera hasieretan, 4 pertsonakoa izan da.

Bilerak gehien bat informatiboak izan dira EGK-k duen egunerokoan erabakiak hartzeko gai izateko. Hala ere, Elkarteen erantzuna ohikoa izan da, eta Iraunkorreko kideen elkarteen partaidetza handitu da.

Erabakiak ez dira beti bileretan hartu, gertatu izan da inoiz Whatsapp-a edo posta elektronikoa erabili behar izatea berehalako erabakiak hartzeko. Orokorrean, nahiz eta iritzi ezberdinak izan ez da zailegia izan adostasun batetara iritsi eta erabakiak hartzea.

8.6. Lantalde Teknikoaren koordinazioa

Lantalde Teknikoa EGK-ko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta lan-arlo konkretu bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezen eta guztien artean koherentzia bermatu dadin.

Presidentziaren aldetik lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bilatzen dira. Hortaz gain, zubi lana egiten da Batzorde Iraunkorraren eta Lan Talde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarrenora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala, bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lantalde Teknikoa hilabeteen behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearenak dira. Horrez gain, kontuan izanda EGK hiru egoitzetan banatuta dagoela (eta horrek bilera presentzialak egitea zailtzen duela), aurten erabaki da ostiralero Skype bilera teknikoak egitea barne komunikazioa hobetzeko.

Lantaldean aldaketak eman dira. Alde batetik, enplegua eta etxebizitza lan arloak banatu direnez teknikari berria egon da, hortaz gain, enplegu arloan teknikari aldaketa eman da. Bestetik,

partaidetza arloan teknikaria jardunaldi murrizketa eskatu dut eta bi teknikari egon dira lan arloa eramaten. Prozesuak presidentziatik koordinatu dira Batzorde Iraunkorraren laguntzarekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bermatu.

Zubi-lana egin Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean.

Garapena

Lantalde Teknikoarekin bilerak :

Bilera hauek, hilean behin presentzialak izan dira, lurraldeak txandakatuz. Horrez gain, , ostiralero, skype bidez bilerak martxan jarri dira. Honekin, koordinazioa eta barne komunikazioa hobetzeaz gain, eraginkortasuna eta denbora aurreztu dira.

Batzorde Iraunkorrarekin bilerak:

Bilera bakoitzaren aurretik, Lantalde Teknikoak aurre prestaketa bat egin du, taulak osatu behar ditu bilera baino lehen.

Jarraipen bilerak:

Egunerokoaren erritmoak ez du hainbat gai lantzeko aukerarik ematen. Bilera teknikoetan gai gehienak jorratzeko ahalegina egiten bada ere, zenbait gai bakarka eta aurrez aurre landu daitezke soilik. Urtean behin gutxienez presidentea teknikari bakoitzarekin elkartzen da banan-banan. Bilera horretan, lan-arloaz, teknikariaren lanaz eta EGKri buruz hitz egiten da.

Aukeraketa Prozesuak

Deialdirako irizpide batzuk ezartzen dira Batzorde Iraunkorra eta Lantalde Teknikoaren artean. Ezarritako irizpideen arabera, lehen aukeraketa bat egiten da; ondoren, idatzizko frogak; eta azkenik, elkarriketa egiten da. Aurten egin behar izan diren deialdiak ondorengoak dira:

Enplegu teknikaria: Ekaina eta Uztailan.

Partaidetza teknikariaren ordezkapena: Abuztuan

Egunerokotasuna

Hiru egoitza ezberdinetan lan egiten dela kontuan hartuz, egunerokoan jarraipena egiteko baliabide ezberdinak erabiltzen dira: WhatsApp Lantalde Teknikoa, Skype talde teknikoa, eta “teknikoa” posta elektronikoko distribuzio taldea.

Horrez gain, lantaldearen giroa eta baldintzak zaintzeko ahalegina egin da. Horretarako, koordinazioaz gain, giza baliabideak gizatasunetik landu eta behar ezberdinak asetzeko ahaleginak egin dira.

Ebaluazioa

- Azken urteetan lantaldea murriztu eta hazi da berriro ere. Hazkuntza hori asko nabaritu da proiektuen ugaritzean, egutegia data garrantzitsuz bete delako, besteak beste. Taldeak aldaketa asko jasan dituen sendotasuna lortu du, gaitasun eta ezaugarri ugariak ekipoa da.
- Oro har, egitasmo guztiak arrakastaz burutu dira eta plangintzan aurreikusia zegoena bete da.
- Aurrerantzean, langileen arteko komunikazioan, kohesioan eta koordinazioan sakontzen jarraituko da EGKren egitekoari kalitatez eusteko.

8.7. Batzorde Ekonomikoa

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGK-ko administrariak, diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarleen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan, 2019ko aurrekontuaren kudeaketa egin da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, erakundeekin hitzarmenak negoziatu dira. Horrez gain, beharrezkoak izan diren gastuak baloratu eta onartu dira.

Azkenik, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatu dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.

Alor honetan unean-uneko erabakiak hartu.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2019ko aurrekontua prestatu.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- Diru sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egin.
- Balantze ekonomikoa.

Garapena

Batzorde Ekonomikoaren bilerak:

Urtean hiru bilera egin dira. Koordinaziorako gainontzeko baliabideak erabili dira administraria, diruzaina eta presidentearen artean (posta elektronikoa eta telefono deiak batez ere).

Aurtengo erabaki handienetariko bat, Etxebizitza lan arloa aurrera eramateko beharrezkoa izan den dirulaguntza zuzena izan da. Honek, denbora eraman du bai prestaketan zein kudeaketan. Ez da onarpena jakinarazi uztaile arte eta horrek urte erdian berrantolaketa ekarri du.

Ebaluazioa

Egoera ekonomikoa.

- Aurtengo egoera ekonomikoaren egonkortasunak ahalegin handiak eskatu ditu, hainbat bilera eta negoziazio eman dira.

- 2019an zehar, beti bezala, hainbat ezusteko ekonomiko gertatu dira, izan ere, azken momentuko diru-laguntzak egon dira.
- Urtez urte esfortzu berdina errepikatu behar izateak zailtasunak ekar ditzake etorkizunean. Zentzu horretan, administrazio eta erakundeekin lankidetzara sendagoak negoziatu beharko lirateke, Kontseiluak egiten duen lanari jarraipena eta egonkortasuna emateko.

8.8. Batzar Orokorra

EGKren Batzar Orokorra urtero ospatzen da. Bertan EGK-ko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria aurkezten zaie eta urte horretarako plangintza, onartu edota atzera bota ditzaten. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzen da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetik behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Batzar Orokorrean. Batzarraren prestaketa Batzorde Iraunkorrari badagokio ere, presidentea da Batzarreko Mahaiko arduraduna eta bera da Batzarra dinamizatzen duena.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2018ko Batzar Orokorraren koordinaketa eta dinamizazioa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatu.
- Aldez aurretik elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.

Garapena

Memoria eta plangintzaren prestaketa

Honek izugarritzko lana suposatzen dio EGK-ko Lantalde Teknikoari eta koordinazio lanak egiten dituen presidenteari; izan ere, dokumentu guztiak honen eskutik pasa behar izaten dira.

Bi dokumentu hauek, fase ezberdinetan, teknikari bakoitzak, talde tekniko osoak eta Batzorde Iraunkorrak aztertzen dituzte Batzar Orokorrari aurkeztu aurretik. Honekin, koherentzia, zuzentasuna eta egokitasuna bermatu nahi dira.

Batzarreko gai ordena eta antolaketa

Urtero prestatzen den gai ordena eredu mantentzen da eta urtean urteko beharren arabera gauzak gehitu. Batzarra ospatzen den egunera begira, memoria eta plangintzen aurkezpen lanak banatu egiten dira, pertsona ezberdinen artean egin dadin.

Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu

Deialdia egin eta Batzarra burutu bitartean, elkarte ezberdinen proposamenak jasotzen dira. Horietako batzuk Batzorde Iraunkorrak aztertu behar izaten ditu aurretik.

Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu

Batzorde Iraunkorrak aztertu behar ditu elkarte guztiei zabaldu aurretik.

Ebaluazioa

- Batzarraren eraginkortasuna.
- Aurtengo batzarrean proposamen berriak egon dira.
- Batzar Orokorrak honetan Euskara Abentura sartu da.

8.9. Lankidetza eta ordezkaritza

8.9.1. Eusko Jaurlaritza

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, EGK-k kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantziazio-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik jasotzen da.

Urtean zehar, aurreko urtean lortutako harreman berriak, zein zaharrak, sendotu egin dira nabarmen: Gazteria Zuzendaritzarekin, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetza Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Kanpo Harremanen Idazkaritzarekin, Lanbiderekin eta

Hezkidetza Planaren Batzordearekin, besteak beste. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, 2019an elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

Helburuak

HELBUU OROKORRA:

Elkarlanerako guneak identifikatu.

Eragin politikoa izan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zuzendaritza ezberdinekin informazio trukaketa bermatu.
- Mahai Interinstituzionalean parte hartu.
- EGKren aurrekontua egonkortzeko-handitzeko lana egin.

Garapena

Egindako bilerak ondorengoak dira:

Gazteria zuzendaritza(datak):

Urtarrilak 26an

Martxoaren 15ean

Maiatzaren 23an

Urriaren 3an

Azaroaren 9an

Abenduaren 13an

Etxebizitza:

Mario Yoldi azaroak 25

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza:

Urtarrilak 25, maiatzak 14, uztailak 4 eta abenduak 20

Emakunde:

Otsailak 8 eta azaroak 15

Esan beharrik ez dago, bilera presentzialetaz gain, harremana telefonoz zein emailaz ere mantendu dela.

Ebaluazioa

- Atal honetan, esan daiteke helburuak zein ekintzak, neurri handi batean bete direla. Elkarlanerako guneak identifikatu eta gauzatu dira eta harreman berriak lortu.
- Azkeneko urtean aipatu zen bezala, Kontseilua erreferente argi bat bihurtu da eta ahal den neurrian, arlo ezberdinetan aholkularitza ematen eta proiektu ezberdinetan parte hartzen ahalegindu da.
- Aurten Gazteria Zuzendaritzarekin bilera presentzialak gehiago izan dira eta mantendu da telefonoz zein emailaz izandako harremana.

8.9.2. Aldundiak

Bere izaera juridikoa, finantziario-bidea eta helburuak direla eta, EGK-k kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere, gazteen egoera, behar eta interesen gainean lan egiten da. 2018an lurralde historiko bakoitzeko Foru administrazioarekin martxan jarritako hitzarmenak aurrera joan dira. Aurreko urtean bezala, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundiekin hitzarmenak mantendu dira, nahiz eta Arabakoaren diru-laguntza aurreko urtekoa baino gutxiago izan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Elkarlanerako guneak identifikatu (Gaztematika, GazteBizz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...)

HELBURU ZEHATZAK:

- Hitzarmenak adostu.
- Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egin.

Garapena

Bizkaiko Foru Aldundiarekin bilerak:

Otsailak 2, martxoak 14 eta irailak 19 .

Gipuzkoako Foru Aldundia:

Otsailak 6, martxoak 22 eta ekainak 5.

Arabako Foru Aldundia:

Martxoak 5.

Kontuan izan behar da bilera hauek bilera instituzionalak izan direla. Hauetaz gain, beste hainbat koordinazio bilera egin dira Lantalde Teknikoarekin.

Ebaluazioa

- Bileren eraginkortasuna

Urte honetako lankidetza asko hobetu da. Erakundeek gehiago ulertu dute zein den EGKren funtzionamendua nahiz eta batzuetan zailtasunak egon hasiera batean. Lortutako lankidetza-hitzaumenak sendagoak bihurtu dira.

- Lankidetza gunen berrien sorrera

Aurreko urtean aipatu zen bezala, aldaketa asko eman dira erakunde hauetan baina haiekin lanean jarraitzen da. Adibidez, Bizkaian lau urteko hitzaumenarekin jarraitzen da.

Arabian, bigarren urtea izan da elkarlanean koordinazioa burutu dena eta harreman ona egon den arren, denborarekin hobetuz joango da.

Gipuzkoari dagokionez, aurreko urteko lankidetza-hitzaumena mantendu da eta elkarlan bilera gehiago ematen ari dira. Datorren urtera begira, elkarlanean jarraitzeko asmoa dago.

Hiru Aldundietan Gazteriako arduradunekin biltzeko aukera eman da eta hori aurreko urteekin konparatuta, aurrera pauso bat izan da.

- Lankidetzaren eraginkortasuna

Zaila da neurtzea EGKren parte hartzeak eta egindako kontraste, txosten eta adierazpenek zenbaterainoko eraginkortasuna izan duten Aldundietako politika publikoetan.

EGK-k aurreko urteko ildoak jarraitu du proposamen zehatz asko egiten. Hala ere, agian ez dira politika publikoetan oraindik islatu.

- Aurrekontuan eragina

2018an, Bizkaiak eta Gipuzkoak EGKrekin zuten akordioa mantentzea lortu da partida ekonomikoak ere bere horretan mantenduz. Aldiz, Araban hitzarmena mantendu den arren, diru-laguntza murriztu da.

8.9.3. Eusko Legebiltzarra

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, Gazteria Batzordean, Sustapen Ekonomikokoan edo dagokionarekin bilduaz. Urtean behin, gutxienez, ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gaineko erantzuna emateko, bertaratu eta hala egiten da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri eman.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztu.

- Legebiltzarkideen agerpen-eskaera eta galderei erantzuna eman.
- Gazteen egoeraren berri eman instituzio eta gizarteari.

Garapena

Agerraldiak:

Ekainaren 5ean, urtero bezala, EGK, Enplegu, Gizarte Politikak eta Gazteria batzordean agertu da 2019 urteko memoria aurkezteko.

Ebaluazioa

Kalitateari dagokionez, informazio, datu eta material nahikoa ematen ahalegindu da EGK. Gainerakoa, hizlariaren abileziaren araberrakoa izan da. Eraginkortasun maila neurtzea zaila da. Alderdi gehienek galderak egin dituzte, baina ezin jakin zenbatean eragin duen diskurtsoak. Azken aldiari, inoiz baino gehiago aipatzen da EGK Eusko Legebiltzarrean. EGK-k erabilitako argudioak eta proposamenak gehiagotan aipatzen dira lehen baino. Kontuan izateko da, azken aldiari gehiago deitu dutela EGK-ko proposamenak, ekarpenak eta txostenak aurkezteko.

8.9.4. Udalak

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, EGK-k erakundeekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Orokorrean EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Arduradunekin egiten diren bilerekin gain, eratuta dauden esturkturretan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, elkarlana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea presidentziaren bitartez burutzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Gazteria politikari ekarpenak egitea.

Garapena

Bilboko Udala:

Urtarrilaren 26an eta martxoaren 20an.

Gasteizko Udala:

Otsailaren 8an eta ekainaren 15ean.

Donostiako Udala:

Apirilaren 16an eta ekainaren 10ean.

Ebaluazioa

- Orain arte izandako lankidetzak hitzarmenak mantendu dira Bilbon zein Gasteizen, eta elkarlana sustatu da. Gehiago lan egin da Gasteizen Gazte Plana dela medio, baina biak elkarlan positiboa izan dute EGKrekin. Donostiako Udalarekin aurten sinatu da hitzarmena eta hurrengo urteetara begira asmoa dago elkarlanean jarraitzeko.

8.9.5. Beste erakundeak

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua edukitzen da Presidentziazatik, hala nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Euskadiko Eskola Kontseilua, Drogamendekotasunen Batzordea, Boluntariorzaren Euskal Kontseilua ...

Horiez gain, EGK-k hainbat entitaterekin (EGK barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

Horren guztiaren helburua, gazteen ahotsa eta EGKren diskurtsoa ahal bezain beste zabaltzea da eta Kontseilutik egiten den lanak eragina izatea gazteen bizi-baldintzetan eta eskubideetan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren ordezkaritza egin.

Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatu.

EGKren hitza eta iritzia zabaldu.

Garapena

- Espainiako Gazte Kontseiluarekin bilerak
- Nafarroako Gazte Kontseiluarekin bilerak
- Euskararen Aholku Batzordeko bileretan parte hartu
- OGP-Gobernu irekiko foru erregularra
- UPV/EHU-rekin harremanetarako bilerak
- Deustuko Unibertsitatearekin harremanetarako bilerak
- Eusko Ikaskuntza
- UNICEF
- Innobasque
- AEK

Ebaluazioa

- Espainiako zein Nafarroako Gazteria Kontseiluekin harremanetan egoten da, batez ere, Nafarroako Gazte Kontseiluarekin. Proiektuen informazioaren hartu-eman bat egiten da komunean dauden proiektuetan elkarlana sustatzeko.
- Euskararen Aholku Batzordearen kide da EGK eta aurrera eramaten diren bileretan parte hartu egiten da. Aldi berean, gobernu irekiko hainbat bileretan parte hartu da.
- Honetaz gain, beste hainbat bilera egin dira EGKren barne zein kanpoko elkarteekin.